



ITZIAR USANDIZAGA
BERGARA. 70 URTE. OIHAI-FKO I ANGLI E OHIA



XABIER ORREGI
OÑATI. 65 URTE. EDFRI AN-FKO I ANGLI E OHIA

2019-02-08 EGUBAKOITZA / 803. ZENBAKIA / 19. URTEA
DEBAGOIENEN DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM



Nerabeekin sexualitatea lantzeko, 'Mihi-bero' mahai jolasa aurkeztu du Txatxilipurdik / 15

Venezuelako egoera, lau debagoiendarren ikuspuntutik: Maduroren aldeko eta kontrako iritziak / 2

Sei aramaioarrek hartuko dute parte zapatuan hasiko den Arabako Bertsolari Txapelketan / 17



PILAR ETXANIZ
ANTZUJOI A. 65 URTE. ANTZUJOI AKO ESKOLAKO IRAKASLE OHIA



PEDRO MARTIN ETXEBARRIA
ARAMAIO. 71 URTE. I ANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE OHIA

Mikel Linazisoro, Markel Uriarte edo Maialen Axpe, 2018ko Debagoieneko kirolari onena / 38

Ainara LeGardon, Atom Rhumba, Juan Valls, Madeleine, Vulk eta beste martxoan, Beratu jaialdian / 40

SINADURAK

	ANDRES OSA "SAKONA" / 26
	MAIDER AZKARRAGA- URIZAR / 6
	LUKENE IGARTUA / 35
	ANE ZUAZUBISKAR / 11
	ANDER ETXEBARRIA / 48

+ puntua

Javier Tejada fisikariari elkarrizketa

Futbolekit bizi daiteke, baita fokuetatik kanpo



ALBERTO KABIKETA
ARRASATE. 68 URTE. I ABF GARAIETAKO I ANGLI E OHIA



JASONE ORBEGOZO
ESKORIATZA. 62 URTE. EDFRI AN-FKO I ANGLI E OHIA

ALKIDEBA
SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO

Maitzaga - Soraluez erepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluez (Gipuzkoa)

Goitondo Industriagunea, 3. pabiloia
Tel.: 943 17 13 62 • Malabia (Bizkaia)

administracion@alkideba.net
Saskibaloi taldearen babeslea

OINTXE!

Pentsiodunen erretratua: egiteko asko, baina lorpen txikiekin pozik

Urtebete da Debagoieneko pentsiodunak "bastoi eta guzti" kalera ateratzen hasi zirela; pozik daude aurrerapausoak egin dituztelako, baina egiteko asko dagoela diote / 4



Salva Gonzalez, Ezker Anitzako kidea. S.G.



Jesus Baez, Bergaran bizi den venezuelarra. J.B.



Luis Ugalde, Venezuelan bizi den bergararra. WIKIPEDIA



Ebert Sanchez, Arrasaten bizi den venezuelarra. E.S.

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Duela aste pare bat, urtarrilaren 23an, Juan Guaidok bere burua Venezuelako presidente izendatu zuen. Herrialdeko tentsio politikoa areagotzea ekarri du horrek, eta gizartea erabat zaituta geratu da, lehenaz gain. Batetik, Maduroren Gobernuaren aldekoak, iraultza bolibartarra babesten dutenak. Bestetik, Guaidoren aldekoak, Maduro deuseztatu eta aldaketa politikoa eskatzen dutenak. Azken horiek hauteskundeak errepikatzea aldarrikatzen dute, argudiatuta egin ziren azkenak ez zirela garbiak izan. Aldiz, Madurok dio herriak hautatu zuela presidente, eta ez dituela hauteskundeak deituko, agintaldia bukatzea "zor" diolako herriari.

Salva Gonzalez Ezker Anitzako kide bergararrak azaldu duenez, Guaidok egindakoa "legez kanpoko" da, "estatu kolpe bat". "AEBen eskuetan dagoen txotxongilo bat da Guaido. AEBei komeni zaie egoera aldatzea, Venezuelak baliaibide natural aberastasun ikaragarria duela: petrolioa, koltana, urrea, litioa, eta abar. Orain arte ezin izan dute chavismoa hauteskunde bidez garaitu, eta hau da AEBen maniobra bat Maduro boteretik kentzeko. Geoestrategia oso garrantzitsua da hemen, guztiaren ardatza da. Momentu hauetan, AEBek ez dute Venezuela menperatzeko aukerarik, eta horretarako lanean ari dira. Haien helburua da PDVSA -pe-

Bi alde izan ohi ditu txanponak

Venezuela bizi izaten ari den egoera politikoa hautsak harrotzen ari da asteotan, eta herrialdea zaituta dago: batzuek Maduroren Gobernu babesten dute, iraultza bolibartarra; besteak aldaketa politikoa exijitzen dutenak dira, Guaidoren aldekoak

trolioaren enpresa estatala- pribatizatzea, petrolioaren aberastasun guztiak enpresa pribatuaren esku uzteko", azaldu du.

Ebert Sanchez Arrasaten bizi den venezuelarrak ere antzeko iritzia dauka. "Munduan agintzen duten komunikabideek Venezuelen estatu kolpe bat ematea gura dute, Gobernu deuseztatzea, eta Guaido inperioaren txotxongilo bat besterik ez da. Bolivarrek berak ere esaten zuen AEBak gu zapaltzeko predestinatuta daudela. Beti eduki izan dute gaiztakeria eta maltzurkeria hori, agintzeko intentzio hori, eta hau agintea lortzeko maniobra bat da, gure herriak duen biodibertsitatea nahi bezala esplotatu dezaten. Chavismoa gure lurraldea, kultura eta balioak defendatzen ari da. Ez da posible kanpotik datozenek hemen agindu behar izatea. Zein dira AEB

edo Europar Batasuna eraldatu gura duen herrialde baten ordeztu erabakiak hartzeko? Herriaren alde ahal duen guztia egiten ari da Gobernu, baina eskuinak eta gobernu inperialistek aurretik eramatzen dute ezker, zapaldu egiten dute".

Jesus Baez Bergaran bizi den venezuelarrak, berriz, azaldu du konstituzioan jasota dagoela oposizio buruak egin duena. "Venezuelako konstituzioak baimentzen du. Asanblea Nazional- leko -parlamentua- presidentea da Guaido. Artikulu batek dio, botere falta badago, parlamentuko presidentea izango dela behin-behineko presidente legitimo, hauteskundeak deitu ditzan. Nire ustez, botere falta hori badago. Oposizioak eta nazioarteko beste erakunde batzuek ez zituzten onartu azken hauteskunde presidentzialak. Kabilido

ireki batekin egin zuen presidente izendapena, eta hori ere jasota dago konstituzioan. Kabilido ireki bat da gizarte zibila parlamentarietara batzea, herriak jakin dezan zer gertatu den".

Luis Ugalde jesuita bergararrak urteak daramatza Venezuelen bizi izaten, eta ezaguna da han Gobernuaren opositor izateagatik. Ugaldek uste du kanpoko laguntza ezinbestekoa dela "aldaketa politikoa" gerta dadin. "Garbi dago AEBen presioagatik ez balitz, Maduroren erregimenak Guaido presidentea atxilotu zeukala dagoeneko, Asanblea Nazionala ezabatuta eta diputatuak kartzelatuta. Egun gutxitan dozenaka pertsona hil dituzte protesta egiteagatik soilik, milaka pertsona atxilotu, adingabeak aurretik eraman, komunikatzaileak jazarri, eta abar. Gustatu edo ez, AEBak ezinbes-

tekoak dira Venezuelako krimen ofiziala frenatzeko, eta Kubaren injerentzia ezabatzeko, baita ELN taldeen eta narkotrafikatzaileen delinkuentzia amaitzeko ere".

Egunerokoa Venezuelen

Inflazio egoera bizi du herrialdeak, eta, Gonzalezen iritziz, blokeo ekonomikoaren ondorio da inflazio hori. Edozelan ere, ukatu egin du jendea gosez hiltzen ari denik. "Kanpotik datorren gerra ekonomikoa baretzen ahalegindu izan da chavismoa. Orain dela gutxi, Trumpen gobernuaren aginduz, Euroclear ordaintze sisteman 1.400 milioi dolar blokeatu zioten Maduroren Gobernuari. Sendagaiak, elikagaiak, eta abar erosteko erabiltzen zuten Gobernuak diru hori. Bestalde, nahiz eta Gobernuak soldadak igo, berehala txiki geratzen dira, kanpotik probokatutako inflazio bat delako. Egia da blokeo ekonomikoa eragina izaten ari dela eta ez dela egoera samurra, baina jendeak ez du goserik pasatzen. Krisi humanitarioa irudikatu nahian esaten dituzte halako gauzak komunikabideek".

Sanchezek gaineratu du herrialdean *dolarizatu* egin dutela AEBek, "modu sotilean". "Monopolioa dute eta gura dutena egiten dute nahi dutena lortzeko", azaldu du. Horrez gain, desinformazio handia dagoela salatu du. "Gerra mediatikoa ikusten dut, eta chavismoa ba-

bestera ateratzen den jendetza hori guztia gordetzen saiatzen dira eskuineko komunikabideak, manipulatu egiten dute informazioa. Diktadura bat dela diote, eta jendea gosez hiltzen ari dela. Baina ez dago hori frogatzen duen daturik edo estatistikarik. Okerrena da jende asko hori sinistuta ateratzen dela protesta egitera, komunikabideek esaten dituzten gezur horiek guztiak sinistuta".

Baezen iritziz, bestalde, egoe-ra "beldurgarria" bizi izaten ari da Venezuela, eta manipulazioa Gobernuaren aldetik dator, haren esanetan. "Aldaketa politiko bat eskatzen du herriak, eta chavismoak ez du hori sustatzen. Ezer ez egiteaz gain, blokeatzen ari da aldaketa politikorako edozein aukera. Umeak desnurtzioak jota hiltzen ari dira, minbiziak jota ere asko hiltzen dira, tratamendurik ez dagoelako; erdi mailako klasea desagertu egin da guztiz, eta herritarren gehiengoa txiroa da. Horri aurre egiteko, kanpoan bizi garenon laguntza ezinbestekoa da gure senideentzat, eta Gobernuak urteak daramatza guk bidalitako diru horretan esku hartzen. Bestalde, ez ditu onartzen aipatutako heriotzak, elikagai falta, eta abar. Manipulazio izugarria dago Gobernuaren aldetik", dio.

Ugaldek bat egiten du ikuspegi horrekin. "Egungo diktadura mantentzen bada, herritarrek gosea pasatzen jarraituko dute eta milioika venezuelarrek erbestera joaten jarraituko dute bizitza hobe baten bila", dio.

Gaineratu du osasun sistema "oso egoera txarrean" dagoela. "Egungo erregimenak auzoetako milaka anbulatorio publiko abandonatu zituen pertsonal kubatarrekin ordezkatzeko, modu sektarioan. Horren truke,

gainera, milioika dolar bidali zizkion erregimen kubatarri. Orain ez daukagu ia anbulatorioirik, eta 20.000 medikuk eta osasun langilek herrialdeetik alde egin behar izan dute lana aurkitzeko. Ezin gara begira geratu. Osasun programa berri bat jarri behar dugu martxan, medikuekin, erizainekin eta medikuntzako milaka ikaslerekin. Hala, daukagun hutsune hau beteko genuke, eta behar gehien duten sektoreei esperantza izpi bat eman. Era berean, ospitaleak eta sendagaiak berreskuratu behar ditugu".

Eta orain zer?

Hori da askok egiten duten galdera: zer gertatuko da orain? Zein da konponbidea? Gonzalezek dio Mexikok eta Uruguai proposatutako elkarrizketa izan daitekeela bide bat. "Madurok askotan esan izan du elkarrizketaren aldekoa dela". Hala ere, "oso zabalik" ikusten du interbentzio militar baterako bidea. "AEBek askotan erabiltzen duten estrategia da. Lehenik, presidentea gaitzetsi, eta gero, kanpoko komandoak sartu. Aspalitik nahi dute Kolonbiako mugatik sartu gatazka armatu bat hasteko", azpimarratu du.

Sanchezek ere gatazka armatuaren arriskua ikusten du. "Venezuelako armada guztia zabaldua dago herrialde osoan, muga guztiak kontrolatuta daude, eta herria prest dago eraso posible bati aurre egiteko. Maduro saiatzen ari da herria lasaitzen, eta herria Maduroekin dago. Garbi dagoena da, gerra hasten bada, eskuinaren faltsutasuna demostratzea izango litzatekeela, beste behin. Badakigu AEBen jarrera zein den, eta gura dutena lortzeko edozein gauza

egiteko gai dira, berdin zaie herritarrei gertatu dakiekena. Mundu hau oso zatituta dago gizartearen agintzen duen ideologia nazkagarri honen ondorioz, eta borroka egin behar dugu hori amaitzeko, nahiz eta oso zaila izan", dio.

Mesfidati azaldu da Baez ere. "Gatazka armatu baten arriskua ikusten dut. Chavismoa ez da hortik mugituko eta gatazka armatu bat hasiko dela uste dut, Kolonbian gertatu moduan. Arazo honi konpon-

bidea emateko, beharrezkoa da Guaidok izan duen nazioarteko babes. Oposizioak gehien-go soziala dauka, baina chavismoak militarrek ditu, gerrilla armatu bat dauka, eta zibilak armatu ditu. Hala ere, chavismoa politikoki hilda dago. Ez dauka gizartearen babesik. Ondo erreparatuz gero, azken asteetako irudietan Maduro ez da ikusten gizarteak babestuta, militarrek babestuta baizik, eta hori oso esanguratsua da", azpimarratu du.

Ugaldek, azkenik, agintea utz dezala exijitu dio presidenteari. Dio Maduro agintetik kentzea ezinbestekoa dela, "demokrazia-rako trantsizioa" egin ahal izateko, "aldaketa sozioekonomiko azkar" batekin. "Hala, hauteskunde libre eta justu batzuk egiteko baldintzak edukiko ditugu. Zorionez, Guaidok ausardiaz eta garbi jokatu du eta venezuelarren gehiengoarekin modu sinesgaitz batean konektatu du, baita nazioarteko beste hainbat gobernuarekin ere".




Gure ikasleen ahotsan



Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik? Batxilergo arte, Elkar Hezi Ikastetxean egon nintzen, Oñatin, eta azken lau urteak Mondragon Unibertsitatean daramatza, LEINN gradua egiten. Nire zaletasun nagusiak moda eta turismoa dira.

Zergatik aukeratu zenuen Leinn gradua? Hasiera batean, ez nuen oso argi zer ikasi. LEINN gradua ezagutzean konturatu nintzen zerbait ezberdina zela. MTAk (Mondragon Team Academy) landutako metodologia asko gustatu zitzaidan, nire izateko moduarekin bat datorrelako.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?

“LEINN graduan, akatsetatik ikasten dugu”

Nagore Altuna 21 urteko oñatiarra LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduko laugarren maila ari da ikasten Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Oñatiko campusean.

Zaila egiten zait azaltzea, bizi egin behar da ondo ulertzeko. Lau urte hauek oso baliagarriak izan dira, ekarpen handi bat izan da nire bizitzan, bai pertsona moduan, bai lan munduari begira. Aldi berean, gogorra ere izan da, lan asko eskatzen baitu, momentu zail asko izaten dira. Oso berezia da hainbeste esperientzia hain denbora laburrean bizi izatea, eta hain gazte, 18-19 urterekin.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Gure metodologia, beste gradu batzuekin alderatuz gero, oso bestelakoa da. Lehen unetik, gutxieneko oinarri teoriko bat hartuta, garrantzitsuena da praktikan jartzea ikasitakoa. Praktikara eramaterakoan, akats asko egiten dituzu eta akats

horietatik, hain zuzen, ikasten duzu. Metodologia oso baliagarria da, modu horretan pila bat ikasten baituzu.

Zer-nolako ekarpena egiten dituzte graduan erabiltzen duzun lan egiteko moduak? Proiektu desberdinetan lanean jarduteko aukera izan dut. Azken urtean, berriz, modaren industria esperientzien bidez garatzen duen start-up bat sortzen ari naiz. Proiektu horren helburua zera da, hiriburuak modaren munduan erreferente gisa kokatzea turismoa oinarritzat hartuta. Finean, turismoa modarekin lotzea da asmoa, eta beti emakumezkoaren ongizatea kontuan hartuta. Ideia Txinara eginiko bi hilabeteko bidaian sortu zen; bertan ideia testatzeaz gain, kolaborazio batzuk lortu genituen. Orain, horretan nabil, buru-belarri.

"DIKTADURA HONEKIN HERRITARREK GOSEA PASATZEN JARRAITUKO DUTE"

LUIS UGALDE

"EZ DA POSIBLE KANPOKOEK VENEZUELAN AGINDU BEHAR IZATEA"

EBERT SANCHEZ

"HAUTESKUNDE BIDEZ LORTU EZIN DUTENA ESTATU KOLPE BIDEZ LORTU GURA DUTE"

SALVA GONZALEZ

"CHAVISMOA, POLITIKOKI, HILDA DAGO; GIZARTEAREN BABESIK EZ DAUKA"

JESUS BAEZ

Aldarrikapenei eusteko gertu

Urtebete pasa da pentsiodunak 2018ko urtarrilaren 15ean lehen aldiz kalera atera zirenetik hona; euri edo eguzki, astelehenero elkartu dira milaka erretiratu. Bilbokoa eredu izaten ari da estatuan, baina Gipuzkoan bertan ere 25 herritan biltzen dira

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Pentsiodunen etengabetasunak politikarien agendan eta baita iritzi publikoan ere gaia bolobolo ibiltzea lortu du, baina zer da eskatzen dute, zehazki?

Alde batetik, pentsioak Kontsumo Prezioaren Indizearen arabera (KPI) igotzea eskatzen dute. Izan ere, Espainiako Gobernuak 2018rako ezarritako %0,25eko igoera, legeak ezarritako gutxienezkoa, "iraina eta huskeria" dela uste dute erretiratuek.

Bestalde, gutxienezko pentsioa 1.080 eurokoa izatea ere eskatzen dute. Izan ere, Pentsiodunak Aurrera plataformak salatzen du Gipuzkoako pentsiodun gehienak pobrezia mugatik behera daudela -%57,34; 107.331 pentsiodun-; hau da, 1.080tik behera. Gaineratzen du gehienak emakumeak direla -%70,86-; guztira, 76.062 emakume.

Horretaz gain, pentsioen erforma eta iraunkortasun faktorea bertan behera uztea eskatzen dute, eta baita pentsioak Estatuko Aurrekontu Orokorretan sartzea eta "diru publikoaren bidez" bermatzea.

Debagoieneko pentsiodunak

Gipuzkoako 25 herritan egiten dituzte elkarretaratzeak astelehenero, eta horien artean sei eskualdekoak dira: Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuola, hain zuzen. Eta Elgetan ere tarteka egin dituzte elkarretaratzeak. Ondorioz, hainbat dira mugimendu horrekin bat egin duten erretiratu debagoiendarrak; besteak beste, Pilar Etxaniz antzuolarra (65 urte), Pedro Martin Etxebarria aramaiarra (71 urte), Itziar Usandizaga bergararra (70 urte), Alberto Kabiketa arra-

satearra (68 urte), Xabier Orregi oñatiarra (65 urte) eta Jasone Orbegozo eskoriatzarra (62 urte).

Protesten hasiera

Guztiak diote 2018ko Espainiako Enplegu ministro Fatima Bañezen gutunak lehertu zuela guztia. "Oso beteta geunden: 2008tik murrizketak, 2011n pentsioak izoztuta, eta, gainera, 2018an %0,25eko igoera izango zela zioen gutun hau jasotzean, burla eginen ari zirela ikusi genuen. Bizitza gorantz doa eta gu errotik ahalmena galtzen ari ginen; ondoren, bat egin genuen eta olatu hau etorri zen", dio Itziar Usandizagak, Duintasuna Elkarteko kide eta Bergarako pentsiodun eta erretiratuen batzarreko dinamizatzaileak.

Xabier Orregik, Oñatiko pentsiodun eta Duintasuna Elkarteko kideak, gutun horren "tonua" azpimarratzen du: "Gutunak zioen zortea daukagula pentsioen sistema Espainiako Gobernuari esker mantentzen delako; hori ikusita, lehen pausoa eskutitzak Correos-eko egoitzara joan eta bueltan bidaltzea izan zen". Pilar Etxaniz pentsiodun antzuolarra, berriz, "probokatzailerik hitzarekin definitzen du eskutitza.

Lorpen sozialak

Protesta horiek balio ahal izan duten eta lorpenak zein izan diren galdetuta, guztiak bat datoz gizarteko lorpenak aipatzean. Alberto Kabiketa pentsiodun arrasatearra, esaterako, aste-

**GIPUZKOAN
PENSIOEN %57,34,
1.080 EUROTIK
BEHERAKOA DA
-107.331 LAGUN-**

leheneroko asistentzia hori azpimarratu du: "Eguraldi txarra edo ona egin, hor gaude beti, ideologia ezberdinetako emakume eta gizonak elkartzen gara bertan, eta batasun hori ikustea eta lortzea izugarria da. Pilar Etxaniz, Antzuolako Landatxope erretiratuen eta pentsiodunen elkartekoa, haratago doa, eta botila erdi hutsik ez, erdi beteta ikusten duela dio: "Erretiratuen irudia aldatzea lortu dugu, ez garelako pasiboak, baizik aktiboak, eta antolatzen dakigula, ez gaituztela manipulatu, gure eskubideak ezagutzen baititugu".

Pedro Martin Etxebarria pentsiodun aramaiarra dio orain arte "ikasleak soilik" manifestatzen ziren irudia zuela gizarteak, baina pentsiodunen mugimenduari esker hori aldatu egin dela eta gizarteak ikusi duela erretiratuak ere "bastoi eta guzti" mugitu direla, eta hori "oso garrantzitsua" dela: "Bilboko elkarretaratzeak bereziki izugarriak dira, sekulako indarra dago, mota askotako jendea baten da bertan eta guztiok bat eginda gaudela ikustea oso polita da. Nire ustez, gainera, euskaldunak beti izan gara elkarri laguntzekoak, eta auzolanaren kultura ere hor dago; hori ikusten da mobilizazio hauetan".

Itziar Usandizagak dio jendearen kontzientzia eragitea lortu dela: "Kazetarrien eta politikarien agendan sartzea lortu dugu, baina ez hori bakarrik, baita herritarren elkarriketetan ere. Orain, lagunekin kafea hartzean, pentsiodunen mugimenduz hitz egiten da edo trenean zoazela aldamenekoari entzuten diozu; lehen, pentsaezina zen, eta hori lorpen handia da. Elkar babestu eta indartu egin gara". Horretaz gain, Usandizagak gaine-



Itziar Usandizaga, Pedro Martin Etxebarria, Jasone Orbegozo, Alberto Kabiketa, Xabier Orregi

ratu du "emakumeen ahalduzko prozesua" gertatu dela: "Etxekoandrea izan diren emakumeak lanak eta mantal utzi eta beraien eskubideak aldarrikatzera irten dira; hori izugarriko aurrerapausoa izan da".

Lorpen txikiak

Aldarrikapenei esker "lorpen txiki" batzuk izan dituztela eta "pozik" daude, nahiz eta guztiak argi duten ez dela nahikoa eta oraindik asko dagoela lortzeko. Bestalde, guztiak bat datoz gaurerako batean: mobilizatu izan ez balira, ez zituztela "lorpen txiki" horiek izango.

"Alargunei igoera bat egitea, pentsio baxuak %3 igotzea, jasangarritasun faktorea 2023ra atzeratzea eta pentsio orokorra %1,6 2019an eta %1,7 2018an igotzea lortu dugu, eta badira lorpenak, baina ez da nahikoa; azken igoera horrek, esaterako,

**"ZORIONEZ, KOTIZATU
EGIN NUEN, ALARGUN
PENSIOAREKIN
SOILIK EZINGO
BAININTZEN BIZI"**

%40ri soilik eragiten dio eta alargunen pentsioaren igoerak %16ri, oso baldintza gogorrak jarri baitituzte. Beraz, ez da nahikoa". Bestalde, Kabiketaren ustez, lehentasuna du Eusko Jaurlaritzak Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren lege propioa ezartzea, "pentsiodun gehiagok onurak izan ditzaten".

Emakumeak, "kaltetuenak"

Sei pentsiodunak bat datoz beste gauza batean: orokorrean, emakumeen egoera okerragoa dela. Honela azaldu du Pilar Etxanizek: "Emakume askok kobratu gabe egin dute lan, etxeko lanetan; beraz, ez dute kotizatu. Gizartearentzat egin dute lan, eta orain, zahartzean, po-break dira; gizartea zorretan dago beraiekin. Gainera, emakumeak gero eta urte gehiago bizi dira eta gero eta mendekotasun gehiago dituzte; zahartze duina merezi dute. Beraz, hauen gutxiengo pentsioak igotzeak lehentasuna du".

Pedro Martin Etxebarriak dio, esaterako, emazteak berak baino urte gehiago egin zituela lan, 45 urte, zehazki, eta berak baino pentsio baxuagoa duela: 800 euro.



eta Pilar Etxaniz. XABI URZELAI

"Gizarte Segurantzari ordaintzen zitzaiena ez zen boluntarioa, enpresak finkatzen zuena baizik, eta, ondorioz, oso zahartzaro txarra ari dira pasatzen asko; batez ere, emakumeak".

Jasone Orbegozo, Eskoriatza-ko Olazar erretiratuen eta pentsiodunen elkartekoa, berriz, alarguna da, eta argi du alargun pentsioa soilik izango balu, hilean 580 euro, ezinezkoa izango zitzaiola beste inongo laguntzarik gabe bizi izatea: "Zorionez, nik Ederlan kooperatiban egiten nuen lan, eta kotizatu egin nuen; beraz, erretiroan, alarguntasunarekin eta kooperatibako alarguntzarekin, eta abarrekin, denarekin, *kopuru polita* geratu zait. Eskerrak". Gaineratu du Euskal Herrian, zorionez, gaintzeko komunitateekin alderatuta orokorrean egoera "hobea" dela, nahiz eta "egoera larrian" daudenak ere badiren.

Pentsiodunak Aurrera plataformaren esanetan, Gipuzkoan alarguntza pentsioa 43.751 lagunek jasotzen dute eta horietatik %84,78k, 37.093 lagunek, 1.080 euro azpitik kobratzen dute.

Itziar Usandizagak genero arrakala ere izan du hizpide;

izan ere, emakumezkoen pentsioa gizona baino %40 baxuagoa dela jakinarazi du. Horren harira, Martxoaren 8ko greba feministarekin bat egiten dutela gaineratu du eta, bide batez, pentsiodunei herriko ekintzetan parte hartzeko dei egin die.

Borroka solidarioa

Sei pentsiodun horiek onartzen dute beraien egoera "ona" dela, gehiengoarekin alderatuta, baina borroka hori "oso solidarioa" dela eta gizarte osoaren onuraren alde ari direla azpimarratzen dute, bai oraingoentzat, eta baita etorkizunekoentzat ere. Xabier Usandizagak, adibidez, 17 urte eta erdi egin zituen kartzelan, eta, ondorioz, urte gutxian kotizatu zuen eta pentsio minimoa geratu zaio, 700 euro. Baina berak hori "argi" zuen, eta "borroka"

**PENSIOEN GENERO
ARRAKALA:
GIZONEZKOENA
EMAKUMEZKOENA
BAINO %40 ALTUAGOA**

hau beragatik ez, baizik eta gizartearengatik egiten duela dio.

Etorkizunari begira

Sei protagonistek argi dute mobilizazioekin jarraituko dutela, oraindik "asko" dutelako lortzeko, eta, gainera, gehiengo baikorra da. Xabier Orregik gaineratu du dirua badagoela gutxiengo pentsioa 1.080ra igotzeko; Gobernuaren borondate eta lehenasuna dela kontua. Gipuzkoako Helduen Elkartearen plataformaren esanetan, Espainiak Greziak, Frantziak, Italiak eta Portugalek baino 46.000 milioi euro gutxiago bideratzen du pentsioetara.

Pilar Etxaniz ere bat dator Orregirekin, eta Gobernuak pertsonen ongizatera edo garapen ekonomikora dirua nora bideratu nahi duten erabakitzean dagoela "gakoa" dio: "Eskuineko indarrak boterea hartzen ari dira eta begiak zabalik izan behar ditugu, horren aurrean oso garrantzitsua dugu bat eginda egotea. Mugimendu plurala gara eta batzen gaituzten aldarrikapenei lehenasuna emanez egin behar dugu aurrera".



Ezker Anitzeko hautagaiak, erdian Juan Luis Merino dela. AMAIA ZABALA

Ezker Anitzak Merino aurkeztu du Arrasateko alkategai izateko

Beste herrietako hautagaiak aurrerago erabakiko dituzte, eta baliteke aurten Antzuolan ere aurkeztea

Amaia Zabala ARRASATE

Atzo aurkeztu zuen Debagoieneko Ezker Anitzak Arrasateko alkategaia, eskualde mailako Arrasateko egoitzan. Bertan izan ziren Isabel Salud -Ezker Anitzeko koordinatzaile nagusia eta Podemos-Ahal Duguko diputatua Espainiako Kongresuan- eta baita Arantza Gonzalez -Gipuzkoako Batzar Nagusiko diputatua Ezker Anitzetik-.

Juan Luis Merinoren esanetan, Ezker Anitzak "bere printzipioei eutsiz" lanean jarraituko du: "Justizia soziala, etxebizitzara-

ko eskubidea, enplegua, berdintasuna, ingurumena eta parte hartzea, besteak beste". Merinoren hautagaitza urtarrilaren 14an egindako alderdiaren batzarrean aho batez onartua izan dela jakinarazi zuten.

Gaintzeko herriak

Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergarako alkategaien izenak datozen egunetan erabakiko dituztela jakinarazi du alderdiak. Aurten, gainera, Antzuolan hautagaia aurkeztea planteatzen ari dira.

Lan deialdi publikokoan ustezko iruzurra salatzeke agerraldia

Salaketa egin zuten hiru anestesistak babestu dituzte Debagoieneko Ospitalean, LABek eta ESK-k deituta

Amaia Zabala ARRASATE

Filtraziorik ez, jazarpenik ez! lelopean egin dute agerraldia. Iaz egindako lan deialdi publikoan izandako ustezko iruzurra salatu zuten hiru langileei elkartasuna eta babesa adierazi eta eskerrak eman dizkiete.

Debagoieneko Ospitaleko zuzendariak ustezko iruzurraren berri bazuela azaldu du Osakidetza LABeko ordezkari Jesus Oñatek: "Azterketa baino 25 egun lehenago epaimahaikide batek posta elektronikoz eman zion iruzurraren berri, eta ez ikusia-

rena egitea erabaki zuen". Gaineratu du Luisa Maria Diez Azurmendi Kardiologiako epaimahaiko buru ere bazela; eta, hain zuzen, lan eskaintza publiko hartan kardiologia izan zela kategoria deigarriena.

Osakidetza erantzuna

Debagoieneko Erakunde Sanitarioko Zuzendaritzak gutun bidez erantzun du eta ukatu egin du azken Enplegu Publikoan irregulartasunak salatu zituzten hiru anestesisten aurkako inolako errepresaliarik dagoenik.



ZABALIK

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR

Nahi zenetik, naizenera

Eta zu?

Nor zara?

Eta ni, nor naiz?

Azken asteotan zabaldu den bideo baten muina dira galdera horiek.

Naizen sortu dute adin txikiko Euskal Herriko haur transexualen familiek.

Badu izen horrek berak nahikoa zuku ateratzeko.

Aztertu dezagun bada, *naiz(en)* hori, gure *ni-a* litzatekeena.

Ba al dakigu nor garen?

Ez da egunerokotasunean buruan dabilen galdera horietako bat, badakit.

Argiago dugu, akaso, zer izan nahi dugun edo zertan aritzen garen, ezta?

Baina nor garen definitzeko, garatzeko eta lortzeko ezer gutxi egiten dugula esango nuke.

Begira diezaiozun iraganari orain: (*Nai*)zen: nor izan ginen –inoiz izan bagara– gogoratzen al dugu?

ARGIAGO DUGU, AKASO, ZER IZAN NAHI DUGUN EDO ZERTAN ARITZEN GAREN, EZTA?

Eta zergatik izan ginen nor hori?

Etorkizunean bizi garenez orainean baino gehiago, iraganeko galdera egitea gehiegi izango da, beharbada, baina pentsa dezagun horretan ere noizean behin.

Na(h)i-zen hori izatea lortu edo bultzatzen zen, akaso, eta hortxe egon zen eta dago akatsa.

Baliteke, hirugarrengoen eraginez garelako egun garena, gaur *na(h)i-zena* zutelako horiek helburu.

Beharbada, Maider (*na(h)i-zen* Eder izango nintzateke orain bestela; edo zu Josu jaio zinen Josune; Oihana jaio zinen Oihan; Aner jaio zinen Ane; Jon jaio zinen Jone; Julene jaio zinen Julen edo Ikerne jaio zinen Iker.

Espero dut oraindik aurrera, benetan zarena izango zarela, garelako.

Diren hori argi dutenek irakatsi eta erakutsiko digutela guri ere garena; eta guk *Naizen* hori elikatzen jarraituko dugu, diegu.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Lan munduratzeari

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

HTTPS://LABUR.EUS/JOAST
'BERRIA'-N ARGITARATUA

EHUK sustaturiko beka batekin lanean izan da gure artean lagun bat, hiru hilabetez. Nahiko erraz lortu zuen sartzeari: unibertsitateko gradua bukatu berri, eskaintza egin zion fakultateko praktiketako arduradunak, eta, izena emanda, aukera izan du hiru hilabetez lanean aritzeko. *Hezkuntzatik lan arlora igarotzeko beka* izena zuen programak, eta, berez, enpresa edo elkarteentzat ez dago batere gaizki: hiru hilabetez lanean edukitzea

gazte bat, prestakuntza jaso berria eta lanerako gogotsu dagoena. Horren truke 1.500 euro jartzen ditu EHUK, ikasketak bukatu berriak dituen langileari emateko; trukean, enpresak edo elkarteak ez du deus jarri behar. [...]

Kontua da, bistan denez, hutsune batzuk badituela: hasteko eta behin, bekaren bukaeran jaso behar zuten langileek dirua, hiru hilabetez deus kobratu gabe ibili ondotik –negoziatuta azkenean lortu dute batzuek bi epetan jasotzea, behintzat–. Eta kobratuta ere, hilean 500 euro ez dira pagotxa. Kotizatuko ote zuten zer edo zer Gizarte Segurantzaren?

Enpresari zer kostu ekarri diote, eta zer onura? Eta zer berme dauzka langile horrek lan munduan jarraitzeko, lantoki horretan? Erraza da asmatzen.

Tamalez, ikasketetatik lan mundurako trantsizio hori jasaten dugu gazte gehienok egun: enpresak ohitu egin dira praktiketako kontratuak egitera, lan esku merkea lortzen dutelako horri esker. Eta gazteok ere ohitu egin gara ia saihetsezina zaigun prekaritatera, lana edukitzea bera zortea dela pentsatzeraino, baldintza negargarrietan izan arren. Eta hori guztia, tartean, instituzio publikoek babestuta.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Amaia Igarua.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goizatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Lankidetzaren honek ikuskizun zoragarria eskainiko du"

IÑIGO ALBIZURI MONDRAGON TALDEKO ERAKUNDE HARREMANETARAKO ZUZENDARIA

Eneko Azkarate ARRASATE

Humanity at music proiektuaren estreinaldia izango da Arrasateko Amaia antzokian otsailaren 22an eta 23an, 19:30ean hasita. Sarrerak gaur jarri dituzte salgai.

Zelako ikuskizuna izango da eta nortzuek hartuko dute parte?

Ikuskizun handia espero dugu. 200 lagun izango dira agertokian: Arrasate Musikal orkestra lanak egiten; Goikobalu abesbatza eta kooperatibetatik proiektura batu diren hainbat abeslari; Leintz bailarako txistulariak; Arizmendi Ikastolako abesbatza; Iubilo Bilbao Abesbatzaren abeslariak; Oihana Iguaran eta Amets Arzallus bertsolariak...

Eragile asko batuko dira eta elkarren arteko lankidetzak ikuskizun zoragarria eskainiko duela uste dut.

Sarrerak non eskura daitezke?

Gaur jarri ditugu salgai, Arrasateko Udaleko webguneko agenda



Iñigo Albizuri, Mondragon Korporazioaren aurrean, Arrasaten, Olandixon. MONDRAGON

kulturalean, 15 euroren truke. www.humanityatmusic.com webgunean ere sarrerak lortzeko aukera dago.

Ze espero duzue?

Jendeak ondo pasatzea, ikuskizuna gustukoa izatea. Ez

hori bakarrik: guretzat ezinbestekoa da proiektu hau guztiona egitea eta parte-hartzea sustatzea. Hortaz, ikuskizuneko abesbatzan, dantza, musika taldean edota beste diziplina artistiko batean

parte hartzeko interesa duenak hatmusic@mondragoncorporation.com posta elektronikora idatzi dezake. Esperientzia Kooperatiboari erritmo berezia jartzeko aukera izango du. **Proiektu zabal eta osoa da *Humanity at music*, hainbat esparru lotzen dituena. Liburua kalean da, orain zuzeneko ikuskizuna dator...**

Sinfonia Kooperatiboa proiektu potoloa da eta ilusio berezia daukagu ekitaldi honekin, Arrasatekoarekin; izan ere, hauxe izango da gure estreinaldia. Eta bi helburu ditu: ikuskizun artistiko ederra eskaintzea eta jendea gosez uztea irailaren 14an Buesa Arenan egin behar dugun ekitaldi erraldoira joan dadin gogoia pizteko. Obra literarioa, bestalde, altxor bat da: Maite Mutuberriak egin dituen ilustrazioak magiaz beterik daude; Jon Sarasua idazlearen letrak, historia, oraina eta etorkizuna uztartzen ditu; eta Pilar Kaltzada, Katixa Agirre, Leire Bilbao eta Irati Jimenez bezalako idazleen kontakizun goxo eta sakonak ere biltzen ditu liburuetan. Ezagutzen ez duenak eskura dezake, Humanityatmusic.com bidez, Eroskin edota Elkar-eko denda fisiko eta birtualean.

HAU BE BADOGU!

Euskal derbia, berriro Anoetan



Domekan, Real eta Athletic berriro lehiatuko dira elkarren aurka Donostian. Talde txuri-urdineko gizonak 2-1 irabazi zieten pasa den zapatuan zuri-gorriari, eta aste bukaera honetan emakumeen txanda izango da.

@madditorre: "Munduko derbirik onenaz disfrutatu dezagun. Igandean, Anoetan (11:30) [#euskalderbia](https://twitter.com/hashtag/euskalderbia)".

@neka_7: "Domekan beste derbi bat jokatu dugu Athleticen eta Realak Anoetan. Animatuko zarete etortzera?".

Berri Txarrak taldearen kontzertuen zoramena

Euskal Herrian hamabi kontzertu emango zituztela jakinarazi, eta sarrerak ordu eta erdian bukatu ziren:

@ragerrri: "Arratsaldeko lauetan, jende gehiegi ilaran. Inor ez dabil lehiatuean, eta ezin asmatu lortuko dudana. Erabateko urduritasuna, hau ez zen nik nahi nuena.

Asteartea da gaur eta, grupie da nire izena...".

@odeiesnaola: "Bilboko Kafe Antzokian sarrera lortzen duenak ez du meritu gutxi ilara ikusita".

#KazetaritzaEzDaDelitua' traola, erabiliena

Argia aldizkaria salatu dute bi ertzainek, "hizkuntza eskubide urraketa batez informatzeagatik".

@argia: "Euskaraz informatzen eta polizia grabatzen jarraituko dugu *Argiaren* aurka bi ertzainek jarritako salaketa dela eta. [#KazetaritzaEzDaDelitua](https://twitter.com/hashtag/KazetaritzaEzDaDelitua)".

@pikaramagazine: "Bere lana egiteagatik *Argiako* kazetari bat salatu dute bi ertzainek. Gure ellkartasuna adierazi nahi diogu, Lander Arbelaitzi. Zurekin gaude".

ITURRI ONETIK

Garibairen oroigarria


Esteban Garibai (1533-1599) historiagile arrasatearraren oroigarria jarriko dute martxoaren 9an, haren jaiotegunean, Arrasateko Garibai plazan. Iñigo Arregi artistak propio eraikitako euskarri eta guzti. Arrasate Zientzia Elkarte ari da zeregin horretan, Udalaren laguntzarekin. Garibai protagonista da egunotan beste kontu batengatik: Carlos Urkixok, Espainiako Gobernuaren ordezkaria EAEn, Esteban Garibay Fundazioa aurkeztu du, "Euskadiren eta Espainiaren arteko loturak indartzeko".

ALBISTE IZAN ZEN

2007-02-04

Merkataritza-gune berria Arrasaten, Zabaletan

Arrasaten, Zabaletan, merkataritza-gunea egiteko argazkian, nabarmenduta-planari hasierako onarpena eman zion Arrasateko Udaleko Gobernu Batzordeak -EAJ eta PSE-EE-. Eroski hipermerkatuaren alboan, bi solairuko eraikina, lur azpiko aparkalekua eta aisialdigunea -multizinemak, eta abar-jartzeko plana zen; orotara, 30.718 metro koadro. Gerora, Udal Gobernuak aldatu zen eta baztertu egin zen asmoa.



Itsasoan gertatzen dena gure etxe parean hasten da

GORKA ALBERDI GOMEZ

EGUZKI ERAKUNDE EKOLOGISTAREN
IZENEAN
AZKOITIA

Flyschak plastikoz beteta ikusteak harrabotsa eta kezka sortu du azkenaldian, gure kostaldean dagoen kutsadura eta zikinkeria dela eta.

Baina itsasoan amaitutako hondakin horien zati handi bat gure lurraldetik bertatik irten da eta hori oso gutxitan aipatzen da, eta, aipatuta ere, ez da zehazten.

Ematen du askoz errazago egiten zaigula arazoa kanpoan kokatzea, baina hemen ere badauzka bere sustraiak.

Hemengo hedabideek ez digute horretarako aukera gehiegi ematen.

Jendeak barneratu behar luke itsasoko irudi horiek gureak ere badirela, eta arazoa gainditzera beharturik gaudela.

Horrek izan behar luke hedabideen lana.

Baina, ordea, esaten digute itsasoko milaka kilo hondakin arazoa globala dela.

Horrek ez du batere laguntzen, askoz gutxiago Indiaz hitz egiten digutenean.

Bertoko erakundeek ere gaitz honen aurrean ez dituzte beharrezko neurriak abian jartzen.

Ez gaituzte hezten.

Zenbat ubide, erreka, ibai eta haien ertzak ikusten ditudan plastiko zuri eta beltzez edo beste mota batzuetako hondakinez josita.

Zenbat aldiz gelditzen naiz ibaiari begira eta zenbat aldiz ikusten ditut plastikoak eta bestelako hondakinak beren bidea hartuta, itsasorantz txalupa bezala doazela.

Holako irudiak parean izatean garbi gelditzen zaio bati ez herritarrek ez erakundeek ez diotela gaiari behar duen garrantzirik ematen: ez gara ohartzen ingurumenarekin arazo handia dugula.

Baina sinetsita nago, inguru eta ibaiak horrelaxe ikusita, behartuta gaudela haien egoera aldatzera.

Ezin da onartu itsasoak jasaten duen kutsadurarekin gora eta behera ibili, eta, aldiz, ibaien egoeraz ezer ez esatea, harreman zuzena baitauka han gertatzen denarekin.

Hondakinek ez dute dagokien edukiontzian edo lekuan amaitzen, edozein bazterretan baizik.

Hor dago gakoa: kudeaketa arazo baten aurrean gaude.

Itsasoak bakarrik jakingo du egun hauetan zenbat milaka kilo hondakin jasotzen ari den, gure ibaiek garraiatuta.

Txirrinkaren azken bira

AITOR UGALDE

OÑATI

Txirrinkak birak emateari utzi dio.

Badira 18 urte eguneroko joan-etorriak bizikletaz egin nahi eta horretarako zailtasunak topatzen genituen hainbat herritar elkartu eta Txirrinka sortu genuela, egoerari aurre egin nahian, taldeari izena emateko Oñatin gurpila esateko erabiltzen den hitza hartuz.

Orduan hasi zen gure txirrinka bueltak ematen, eta gaur arterainoko bidea egin du.

Ibilbide horretan egindakoen zerrenda aipatu genezake: bidegorriak eskatzeko protestak, bizikleta erabiltzen dutenak saritzeko gosariak, hitzaldiak, mahai-inguruak, hainbat leku ezagutzeko irteerak Natur Eskolako lagunen jakintzarekin aberastuak, bultzada eta animoa eman diguten bazkide talde ederra ere izan dugu.

Horrekin guztiarekin, gauzak asko aldatu dira taldea sortu zenetik gaur egunera arte, onerako: bizikletaren erabilera asko handitu da eta oso jende desberdinak erabiltzen du, bidegorriak dauzkagu, kirola egiteko tresna izateaz gain herri barruko mugimenduetarako tresna moduan ere hartzen da orain bizikleta, bizikleta mota desberdinak ere ikusten dira,

argidunak, euritarako prestatuak...

Baina Txirrinkak ez du bere bidea amaitu hori dena lortu delako.

Orain ere zeregin asko ikusten ditugu: bizikletaren erabilera egokia bilatzea –abiadura, oinezkoen lekuak errespetatzea...–, oinezkoen, bizikletadunen eta autoen arteko elkarbizitza hobetzea, ibilgailu motordunek bizikletentzako bideak hartzen dituztenean salatzea, bizikleta bide berriak sortzea eta agintariei gogoraraztea ez dela nahikoa orain arte egindakoarekin, eta badagoela zer hobetu eta aurrerantzean ere hobetu eta zaindu beharreko kontua izango dela.

Zeregina badago, baina gure txirrinka geratu egin da, bueltak emanezko behar den indarra agortu zaigulako.

Penarekin egiteke geratu denagatik, baina egindakoarekin pozik.

Gure Txirrinka honaino heldu da, ibilbide bat egin du eta hor geratzen da, inor bera berriro bueltaka jartzeko gogoarekin agertu daitekeen esperantza txikiarekin, eta egindakoaz harro.

Hotz Oñati taldiak Oñatiko herrixari...

XABI GESALAGA URIARTE

HOTZ OÑATI TALDEAREN IZENEAN
OÑATI

2018ko abenduaren hasieran, Oñatiko Hotz taldiak Katillu

Solidarioak kanpaiñari ekin otsan, gobernuz kanpoko talde batzuen biharrei erantzuna emuteko asmuagaz.

Katillu horreik Ines eta Fran artisauak egindakoak dira, eta Greziako errefuxiatu kanpamentuetako umiak egindako marrazkixak ebalizituain horretarako.

1.500 katillu saldu ziran Oñatin.

Marka ikaragarria!

Katillu horreik emundako etekiña SMH (Itsas Salbamendu Humanitarioa) eta Red SOS Refugiados gobernuz kanpoko erakundia bialdu xate oso-osorik.

Aurrerantzian, Katillu Solidarioak kanpaiñak jarraituko dau, eta katilluak eskuragarri izango dituzue Errekaldeko dendan, Txokolateixan, Turismo Buleguan eta Kale Barria 54an.

Honenbestez, gure eskerrik zintzo eta beruenak emun gura dostegu Oñatiko herritarrai, kanpaiña honi eskeiñi xauen babes eta pultzakada indartsuagatik, baita enpresa desberdinetan salmenta erraztu doskuen pertsona guztixei.

Horrelako erantzunak, aurrera begira, lanian jarraitetako inddarra eta gogua emuten doskue eta!

Hotz Oñatiko partaidien aldetik, milla esker Oñati, lagunketan lagunketiagatik!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





dks'18

DEBAGOIENEN
KIROL SARIAK

Udal bakoitzak bere herriko kirolari, elkarte edo ekimena sarituko du.



ARETXABALETA SARIA

Odilo Vazquez Alvarez



BERGARA SARIA

Mikel Linazisoro



LEINTZ GATZAGA SARIA

Dorletako Ama
Txirindulari Elkarte



OÑATI SARIA

Oñatiko Espeleologia Taldea



ESKORIATZA SARIA

Martin Perez



ARAMAIO SARIA

Ione Oyanguren
Lopez de Bergara



ANTZUOLA SARIA

Alaitz Urkiola Lizundia



ELGETA SARIA

Iratxe Alonso



ARRASATE SARIA

Iñaki Uribeetxeberria



GOIENA SARIA

Kirol ibilbideari emango diote saria, eta ekitaldian bertan jakinaraziko dute.

SARI NAGUSIEN BABESLEAK:

Babestutako sarien irabazleak ekitaldian bertan jakinaraziko dira.

ekidegroup

KIROLARI ONENAREN SARIA


Obra Social "la Caixa"

SARI BEREZIA

goiena
seguru bizi



TALDE ONENAREN SARIA



CHAPIME TAILERRAK

TXAPIME AUTOAK

PUBLIKOAREN SARIA

Oharra: Ekitaldia otsailaren 13an egingo da Arrasateko Amaia antzokian, 19:00etan, eta gonbidapena beharrezkoa izango da bertan zuzenean jarraitu ahal izateko.

**GOIENA TELEBISTAK ZUZENEAN EMANGO DU EKITALDIA HERRITAR GUZTIONDAKO ETA
STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS WEBGUNEAN ERE JARRAITU AHAL IZANGO DA.**



Udalbatzako zinegotziak, otsaileko osoko bilkurako puntu baten botoa ematen. XABI GOROSTIDI

Eztabaida udaltzainburua hautatzeko eta akordioa Kulturola zaharberritzeko

Kultur taldeen eta Udal Euskaltegiaren estalpea berritzeko lanak Moyua enpresari esleitzea onartu zuten otsaileko osoko bilkuran. Goi kargudun udaltzainak hautatzeko prozesua EAeko administrazio osora zabaltzea ere onartu zuten EAJK eta PSE-EEK

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azkenaldiko laburrena izan zen martitzenean egindako otsaileko osoko bilkura –49 minutu–, hein handi batean, PSE-EEK, EH Bilduk eta Irabazik mozio bana erretiratu zutelako.

Eguneko lehen puntu garrantzitsua Kulturola eraikina zaharberritzeko lanak esleitzea izan zen, eta azpimarratu beharra dago alderdi guztien aldeko botoarekin onartua izan zela; aho batez. Moyua Construcciones enpresari esleitu zizkieten zaharberritze lanak, hain zuzen ere, 6.149.160,18 euroren truke –BEZa barne–.

Alderdien irakurketak

Maria Ubarretxena alkatearen arabera, herriko kultur eragileen eta Udal Euskaltegiaren estalpe izango dena berritzeko lanak udan hasia eta 2021. urte ha-

sieran bukatzea da aurreikuspena. Alderdi guztiek alde botatu zuten arren, EH Bilduk ñabardura bat egin zuen, Urki Larrea Kultura batzordeko kidearen ahotan. "Baiezkoa ematen diogu, baina proiektuaren arima landu gabe dago. Bagarak txosten bat egin zuen, bertan egongo diren elkarteekin egin beharreko lanketari buruz; baina ez da landu, eta, guretzako, hori eraikina bera bezain garrantzitsua da".

Irabaziko Juan Luis Merinok ere kezka antzerakoa azaldu zuen, batez ere, etorkizunean

KULTUROLA ERAIKINA BERRITZEKO LANAK UDAN HASIKO DIRA ETA 16 HILABETEAN AMAITZEA DA ASMOA

sor daitezkeen eragile berriek bertara sartzeko izango lituzketen aukeren inguruan.

EAJKo bozeramaile Anuska Ezkurrak eta Maria Ubarretxena alkateak hartu zuten hitza jarraian. Ezkurrak adierazi zuen taldeekin egin beharreko lan-keta erronka handia dela, eta gainontzeko alderdien lankidetzara espero duela hori ondo egiteko. Zaharberritze lanak egiteko gaur egun eraikinean dauden kultur taldeek behin-behineko lokalak beharko dituzte. Horren harira, aurreratu zuen Goikobalu, adibidez, Gaztelupera lekuak datuko dela, eta badabiltzala lanean gainontzeko elkarteetara leku bat bilatzeko. Ostean, alkateak adierazi zuen "%100ean" daudela ados Bagararen txostenarekin, eta lanek iraungo duten bi urteko epea nahikoa izango dela lanketa hori egiteko.

Udaltzainen %15ek, erretiroa

Urtarrilaren 2an indarrean sartu den 1449/2018 errege dekretuak ahalbidetzen du udaltzainek 60 urterekin erretiroa hartzea –beste baldintza batzuk ere bete behar dira–, eta horrek eragin du Arrasateko kasuan bost udaltzainek –lantaldearen



Iñaki Arriaga udaltzainburua, . GOIENA

osoaren ia %15– urtarrilean erretiroa eskatu izana. Horietako bat Iñaki Arriaga udaltzainburua da, eta beste goi kargu bat ere badago, lehen udaltzain bat. Gainontzeko hiru udaltzainek kargu normalak dituzte. Une honetan, bi erretiro estali dira, baina beste hirurentzako erreleboa ezin da gauzatu, lan-poltsak –Eudelena eta Udalarena– hutsik daudelako. Arriaga udaltzainburuaren kasuan, martxoan hartuko du erretiroa, baina maiatzera arte geratzeko konpromisoa azaldu du, orduan helduko baita bere kargua hartuko duen udaltzainburu berria. Arriagak ez zuen postua propietatean, zerbitzu eginkizunetan baizik. Postuaren jabea Jose Luis Etxeberria *Porru* zen, baina hura urtarrilean erretiratu da. Postua hutsik geratzen denez, lehiaketa publikoa egin behar du Udalak.

Udaltzainen kontratazio politika

Udaltzainak kontratatze politikaren aldaketa bat ezarri zuen Udal Gobernuak 2017ko martxoan. Ordura arte, udaltzain postu finkoak betetzeko Udaleko lan-poltsa bat erabiltzen zen. Baina Udal Gobernuak poltsa horretako hautagai kopurua handitu ahal izateko, Eudelek Arkauterekin duen lan-poltsa bateratura jotzea erabaki zuen. Aipatu behar da Udaleko enpresa batzordea eta oposizioa neurriaren aurka agertu, eta udal lan-poltsarekin jarraitzearen alde lerratu zirela.



Hainbat herritako udaltzainak. EHAA

Udaltzain postu finkoak, eta behin-behinekoak

Gaur egun, Eudeleko lan-poltsara jotzen du Udalak udaltzain postu finkoak lehiaketa publiko bidez betetzeko. Behin-behineko ordezkapenak egiteko, udal lan-poltsa erabiltzen jarraitzen du.

Eudelen lan-poltsa eta Udalarena, hutsik


Udaltzain postu finkoak zein behin-behinekoak betetzeko lan-poltsak agortuta daude une honetan. Indarrean sartu berri den errege dekretuak EAEn erretiro asko eragin ditu, eta lehen nahiko arazo zituen Eudelen poltsan egoera zaildu egin du horrek. Bestalde, udal lan-poltsa ere hutsik dago. 2016ean egin zen hura elikatze azken deialdia, baina prozesua hutsik geratu zen. Zortzi lagunek eman zuten izena, baina lanerako aukerak sortu zirenean horietako inork ez zuen baiezkoarekin erantzun. Hala, datorren astean beste deialdi bat egingo dute udal lan-poltsa osatzeko.

Goi-kargudun udaltzainak, EAeko administratziotik

Udaltzain gabezia ikusita, goi kargudun udaltzainen hautaketa prozesua –udaltzainburuarena, udaltzainburu ordearena eta lehen udaltzainena– EAeko administrazio osora zabaltzea onartu du Udal Gobernuak. Orain arte, EAeko Udaletan egin zezakeen bilaketa, eta, LPZn egindako aldaketa horrekin, Udaletako, Aldundietako eta Jaurilaritzako funtzionarioek har dezakete parte, tartean baita ertzainek ere –Guardia Zibilek eta Polizia Nazionalek, ez–.

Udaltzain eredu, eztabaida iturri


Udaltzainen goi-karguak aukeratzeko Udaleko LPZn – lanpostuen zerrenda – txertatutako aldaketak eztabaida eragin zuen otsaileko osoko bilkuran. Aldaketa zergatik egin duten galdetuta, zera adierazi zuen Maria Ubarretxenak Goienako



EAJko Anuska Ezkurra. X.G.

mikrofonoen aurrean: "Era honetan, jende gehiagok izango du lehiaketa publiko horretan parte hartzeko aukera. Zergatik egin dugun? Urtarrilaren 2an martxan jarri den errege dekretuak eragin du EAeko udaltzain askok bat-batean erretiroa hartzea. Udallerri askok dugu udaltzain berrien premia, eta aukera irekitze honek

balioko digu jende gehiago erakarri ahal izateko". Baleike izan zen aurkakotasuna azaltzen lehena. "EAJ eta Alderdi Sozialista jakitun dira erabaki honek duen sakontasunarekin, eta horregatik erabaki dute azken orduan, ez udaltzainei, ez alderdiei informatu gabe, atzetik, isilpean eta ilunean



Baleikeko Igor Urziar. X.G.

aurrera eramatea. Arrasateko Udaltzaingoan Ertzaintza eredu inposatu nahi duzue".

EH Bilduk ere ertzain profila sartzearen aurka egin zuen, eta proposamena baztertzeko eskatu zion Gobernuari, eztabaida ahalbidetzeko. "Gure ustez, ertzain bat udaltzainburu izatea ez da konponbidea. Bai, ordea, udaltzain ereduari buruz eztabaidatzea, eta lehenbailehen ordezkatzea hutsik dauden udaltzain postuak. Nahiago dugu udaltzain eredu hurbilago, inplikatuago eta komunitarioago bat, Iruñekoa edo Laudiokoa bezalakoa. Horretaz gain, hauteskondeen ataritan, ez da momentu aproposa horrelako erabaki estrategiko bat hartzeko".

EAJko bozeramaile Anuska Ezkurrak erantzun zien aldaketa horrek ez duela zuzenean ertzain bat jarriko udaltzainburu karguan. "Ertzain bat izan daiteke, edo, agian, ez. Hori lehiaketa egin ostean ikusiko da. Guk ahalik eta zerbitzu hobereana nahi dugu, eta egin duguna da hautagaien zerrenda zabaldu. Gure ustez, hautagai gehiago lehiatzea profesionaltasuna areagotuko du".



EH Bilduko Eneko Barberena. X.G.

Udaltzainen ordezkaritza sindikala

Udaleko enpresa batzordeak "kezka" bizi du Udaltzaingoan dagoen "giza baliabideen falta", eta ondorengo bi egoerak salatu dituzte: urte hasieran egondako lau erretiratze betetzeko neurririk ez hartzea eta gaueko txandetan gutxieneko udaltzain kopurua ez errespetatzea –batzuetan bi agente bakarrik egon direla diote–. "Momentu honetan, lau erretiratze eta bi iraupen luzeko gaixotasun ditugu. Lau erretiratzeetatik bi estalita daude. Baina beste biak, eta bi gaixotasun bajak, estali gabe daude une honetan, Eudeleko lan-poltsa agortuta dagoelako. Eudelen poltsa hori ez da uztaile arte handituko, eta gaur-gaurkoz ez dute lan-poltsa hori handitzeko deialdirik egin". Goi-kargudun udaltzainen hautaketa prozesua EAeko administratzailea zabaltea ere kritikatu zuten.



1936an Arrasaten egindako manifestazio bat Portalaira gerturatzen. INTXORTA 1937

36ko gerrak Arrasaten izandako eragina, liburu batean bilduta

Intxorta 1937 Elkarteak egin du bilduma, Memoriaren Mahaiak eskatuta, eta asteazkenean aurkeztuko dute

X.G. ARRASATE

2017ko irailean, Arrasateko Udalean ordezkaritza politikoa duten alderdi guztiek osaturiko Memoria eta Bizikidetzeta Mahaiak udalerrian 1936-1956 garaian gertatutakoaren memoria lan-keta egiteko enkargua egin zion Intxorta 1937 Elkarteari. Azken hilabete hauetan egindako lana *Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956. Gerra, Erresistentzia eta Frankismoa* izeneko liburuan jaso da.

Liburu honek Intxorta 1937 Elkarteak hamarkadatan egindako lanketak, ikerketak eta

bestelako liburuak izan ditu oinarri, udal artxiboetan, probintzietako eta artxibo militarretan jasotako informazio zehatzak baliatuz. Horrez gain, Arrasateko 43 emakumeren eta 61 gizonen testigantzak ere batzen dira bertan.

Aurkezpena, asteazkenean

Hilaren 13an aurkeztuko dute lana, Kulturaten, 18:00etan. Bertan, hain zuzen ere, Miren Al-tunak eta Juan Ramon Garaik hartuko dute hitza, eta, amaieran, liburua eskuratzeko aukera izango da.

Udalak margolari, igeltsero eta peoi bana kontratatu ditu

Hiru lanpostu horien iraupena bost hilabetekoa izango da, eta ezinbesteko baldintza izango da azken sei hilabeteetan Arrasaten erroldatuta egotea eta langabezia egotea. Margolaria hiri altzari-seinalazioa eta udal eraikinen bat margotzeko nahi dute, eta bost hilabeterako kontratua eskaintzen dute. Igeltseroaren eta peoiaren zeregina herriko espaloiak konpontzea izango da. Informazio gehigarria eta baldintza zehatzak *Arrasate.eus* webgunean daude.

Bestalde, gogorarazi beharra dago datorren astean udaltzaintzako udal-poltsara deialdi berria egingo duela Arrasateko Udalak.

Emakume ekintzaileei buruzko mahai ingurua, 15ean

Otsailaren 15ean, hiru emakume ekintzaile igoko dira Kulturateko oholtza gainera. Hitzordua 18:00etan hasiko da, eta ondorengo hiru emakumeek hartuko dute parte: Najia Lofti, Paloma Martinez eta Joana Manzidor.

Loftik marokoar jatorriko ekonomialaria da, eta bertako parlamentaria ere bada. Manzidor hainbat elkartetan sartuta dagoen margolaria da, eta Martinez berdintasunarekin eta aniztasunarekin lotutako hainbat ekimenetan dago murgilduta. IMME elkarteak antolatutako saioa da, eta Gipuzkoako Aldundiaren, Udalaren, IK4 Ikerlanen, Fagor Ederlanen eta Lagun Aroren babesa du.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Soka

Muga, kontrabandoa, 36ko gerra, ihesa, deserria. Eta familia. Korapilo bat ezdarrian. Orain bi aste joan nintzen *Jainkoak ez dit barkatzen* dokumentala ikustera; eta horrek poztu ninduen. Korapilo horri ere heldu izanak. Mugalaria zen Lezo Urreiztieta; eta independentista, itsasgizona eta katolikoa, besteak beste. Aita zen Lezo Urreiztieta; eta aitona eta bikotekidea, besteak beste. Eta jaso genuen filma ikustera joan ginenok askotan kontaktzen ez den historiaren zati hori ere, Lezo zenaren biloben ahotik.

Familia. Eta deserria, ihesa, 36ko gerra, kontrabandoa, muga. Hiru, lau, bost korapilo ezdarrian. Nekez hitz egiten dugu memoriaren sokan gertu samar ditugun korapiloek: "Orain hasi dira batzuk hizketan", amamak eta aitaitak euren etxeko sukaldean. "Duela 80 urtekoak bizi izan zituztenen ahotik ezingo ditugu entzun bestela", nik.

Entzun ditut kontuak sukaldean; galdetu, gutxiago. Kosta egiten zaigu hain gertuko ez zaigun garaia gertuko zaizkigunengandik jasotzea. Baina behar, biak behar ditugu sokari helduko badiogu. Geureen korapiloak –eta beraz geureak– eta korapilo handiak –eta kontaktzen ez diren zatiak–.

Gazte txokoaren eskutik Valdezcarayn eskiatzeko aukera

Eskia edo snowboarda egitea maite duten 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoentzako eski irteera antolatu du gazte txokoak hilaren 23rako, zapatua. Izen emateak gazte txokoetan egin beharko dira hilaren 17a baino lehen. Materiala alokatu behar dutenentzat, 50 euroko prezioa izango du eta jada badutenentzat, aldiz, 30 eurokoa.



Oscar Garcia, Pacoren semea, hileta zibilean aitari buruz hitz egiten. TXOMIN MADINA

Azken agurra Paco Garciari

Astelehen iluntzean hileta zibil jendetsua egin zuten haren omenez Aldain. Familia sozialistako ordezkari zabala izan zen bertan: Idoia Mendia, Jesus Egiguren eta Patxi Lopez, besteak beste; agur beroa eman zioten 28 urtez zinegotzi izandakoari

Xabi Gorostidi ARRASATE

Zazpi agintalditan herriko zinegotzi sozialista izan zen Paco Garciari agur jendetsua eman zioten astelehen iluntzean Aldai parkean egindako hileta zibilean. Herritar ugari batu zen bertan, baita PSE-EEko ordezkari zabala ere. Han izan ziren, besteak beste, PSE-EEko idazkari orokor Idoia Mendia; Patxi Lopez lehendakari ohia; Gipuzkoako PSE-EEren idazkari nagusi Eneko Andueza; PSE-EEren lehendakari ohi Jesus Egiguren; Eusko Jaurlaritzako sailburu Iñaki Arriola; Denis Itxaso foru diputatua; eta Espainiako gobernuaren EAeko ordezkari Jesus Loza.

Herriko hainbat alderdikide ere egon ziren Garciaren agurrean; esaterako, harekin batera zinegotzi izandako Aritz Arrieta eta Miren Lorea Lana.

Maria Ubarretxena alkate jeltzalea eta Gogora Memoriaren Institutuko Aintzane Ezenarro ere izan ziren ekitaldian.

Jesus Egigurenek egin zuen berba ekitaldi hasieran, eta haren ibilbidea eta izaera hartu zituen hizpide. Hildakoaren seme Oscar Garciak hartu zuen hitza ostean. Aita eta harekin bizi izandako zenbait pasarte gogoan izan zituen; *Internazionala* abes-tuz bukatu zen ekitaldia.

Ibilbide mardula politikagintzan 1987tik 2015era Alderdi Sozialistako zinegotzi izan zen Paco

ARRASATEKO UDALBATZAN ZINEGOTZI GISA URTE GEHIEN EGIN DITUENA DA PACO GARCIA


Garcia Arrasateko Udalean. Batzar Nagusietan ere egon zen, 2003tik 2009ra, eta baita Legebiltzarrean, 2009tik 2012ra bitartean. 2017ko urriaren 29an utzi zuen politika aktiboa, Arrasateko PSE-EE alderdiko idazkari nagusi kargua utzita.

30 urte politikako arduetan murgilduta pasa zituen Garciak, bere ibilbidea amaitutzat ematea erabaki zuenean. "Zinegotzi izan aurretik, Alderdi Sozialistako kide nintzen, eta bizitza osoan politika usaindu izan dut nire familia eta lagun artean. Baina maila publiko horretara saltoa egiteko arrazoia Enrique Casasen heriotza izan zen. Era horretako gertakariak ez gertatzeko zerbait egin behar nuela sumatu nuen", adierazi zuen Paco Garciak GOIENAK egindako elkarrizketan, 2017ko azaroan.



JESUS EGIGUREN
PSE-EEKO BURU OHIA

"Oso pertsona gogorra zen Paco bere ideiak defenditzeko orduan. Beldurrik ez zuen, ezta konplexurik ere, eta nahiz eta ez zen erreza Arrasateko sozialisten burua izatea, ongi eraman zuen bere kargua. Horrez gain, pertsona alai zen, gizatasun handikoa".




AINTZANE EZENARRO
GOGORA INSTITUTUA

"Denen lagun izateko gaitasuna zuen, nahiz eta bere ideia politikoak tinkotasunez defenditzen zituen. Irakasgai hori utzi digu Pacok: zein garrantzitsua den norbere ideiak defendatzea, lasai, baina, beti-beti, ahaztu gabe, horren gainetik pertsonak daudela".



JUAN KARLOS GARITANO
ARRASATEKO EAJ

"Zer esango dut Pacori buruz... 24 urte egin ditugu elkarren alboan. Kontzeptuak oso garbi eta sakon zituen pertsona zen. Beti mantentzen zen irmo bere printzipioetan. Nahiz eta ezberdin pentsatu askotan, akordioetara heldu naiz berarekin, eta horrela gogoratuko dut".



PATXI LOPEZ
LEHENDAKARI OHIA

"Bene-benetako sozialista zen, berdintasunaren, askatasunaren eta justizia sozialaren alde konpromiso sendoa zuena. Pertsonak duin egiten dituzten printzipioak defendatu zituen beti. Jesus Egigurenek esan duen bezala, erresistente bat izan zen Paco".



ENEKO ANDUEZA
GIPUZKOAKO PSE-EE

"Lan bikaina egin du Udal honetan, herritarrengandik eta auzokideengandik gertu lan egiten, beti euren bizi baldintzak hobetu nahian. Gogor eutsi dio, Arrasaten, denbora luze, ez baita erraza izan politika egitea. Aldundian eta Legebiltzarrean ere lan bikaina eginikoa da".



ARITZ ARRIETA
PSE-EE-KO ALKATEGAI OHIA

"Beti izan da erreferentzia bat niretzako eta herriko sozialistetzako, eta hori galtzen duzunean, beti igartzen duzu faltan. Kanpora joan izan garenean, eta han egonda *Arrasateko sozialistak* berbak aipatuz gero, beti ateratzen zen Paco Garciaren izena".

"1939koa erbesteratuen exodo handiena izan zen"

JOSU CHUECA HISTORIALARIA

'Etorkizuna alambre artean' izeneko argazki erakusketan, azalpenak eman ditu 36ko gerraren erruz Kataluniatik Frantziara joan behar izan zuten errefuxiatuek

Xabi Gorostidi ARRASATE

Intxorta 1937 Elkarateak *La retirada* izenarekin gogoratzen den ihesaldiari buruzko argazki erakusketa eta dokumentala eskaini zituen atzo Kulturaten, eta horri buruzko xehetasunak emateko gonbidatu zuten Josu Chueca historialari nafarra. **La retirada Kataluniatik Frantziara egin zen. Baina, lehenik eta behin, nola heldu ziren euskaldun haiek guztiak Kataluniara?**

Euskaldunak une ezberdinetan heldu ziren Kataluniara. Bertara iristen lehenak gerraren lehen konpasetan Irun aldetik Frantziara joan zirenak izan ziren. Ostean, mugimendu handi bat gertatu zen 1937an Bizkaitik, ipar frontea frankistek hartu zutenean. Batez ere, milizianoak eta gudariak ziren. Erbesteratuen mugimendu handiena izan zen 39an gertatutako hura. Batutako dokumentu historikoen arabera, 500.000 pertsona inguru izan ziren. Eta ez ziren soilik milizianoak izan: herritarrak, haurrak... denetarik zegoen.

Nondik datorkio *La retirada* izenburua?

Frantziarrek jarri zioten. Aurten 80 urte betetzen direnez, hainbat ekitaldi egiten ari dira hura gogoratzeko: Frantzian, Euskal Herrian, Espainian... baina, be-



Josu Chueca, Kulturaten. X.G.

reziki, Frantzian eta Euskal Herrian, esango nuke.

Zenbat euskaldun zeuden exodo haren barruan?

Garaiko dokumentuek jasotzen dutenez, Gurseko kontzentrazio esparruan 6.000tik gora gizonezko euskaldun zeuden hasieran. Ostean, gehiago batu zitzaizkien. Eta haiei gehitu behar dizkiegu gainontzeko kontzentrazio eremuetan zeuden euskaldunak. Bram-en, adibidez, 1.000 euskaldun zeuden, eta haiei gehitu behar zaizkie aterpetxeetan eta etxeetan zeuden emakume eta haur eus-

kaldun guztiak. Hala, aise esan dezakegu 12.000-15.000 euskaldun inguru joan zirela Frantziara *La retirada*-n. Haiek guztiak, 36an eta 37an Frantziara joan zirenak kontuan izan gabe.

Behin Kataluniatik Frantziara joanda, erbesteratuta zegoen Eusko Jaurlaritzak euskaldun guztiak batzeko ahalegina egin zuen, ezta?

Eusko Jaurlaritzak abantaila potolo bat zuen 39an Frantziara joan zen Gobernu errepublikanoarekiko; 1937tik, jada, erbeste zegoela. Horrek askoz errazago egiten zituen antolaketa lanak. Horren adibide da, esaterako, 1937a ezkerko euskal eskolak zeudela Ipar Euskal Herrian; Donibane Garazin, adibidez. Han 500 haur euskaldun egon ziren. Hala, Telesforo Monzon, Ander Bereziartua eta konpainia Perpinya-ra joan ziren (Perpignan), eta bertatik euskaldun guztiei leku berean batzeko agindua eman zieten, la guntza errazago eman ahal izateko. Hala, kolektibo handiena Gurs-en pilatzea lortu zuten.

Arrasateko komunista bat izan zen bertako arduradun, ezta?

Gurseko euskaldunen zelaiko lehen arduraduna Martin Solerzangitu altsasuarra izan zen, eta honen ostean, aldiz, Celestino Uriarte arrasatearra.



Torturaren aurkako astearen aurkezpeneko partaideak asteazkenean. IMANOL BELOKI

Torturaren aurkako astea hiru ekitaldirekin osatu du EH Bilduk

Horien artean, Muñecas Guardia Zibileko kapitainak eragindako kalteei buruzko mahai-ingurua antolatu dute

X.G. ARRASATE

Otsailaren 13a da Torturaren Aurkako Eguna, eta, horren baitan, Torturaren Astea izeneko egitaraua antolatu du Arrasateko EH Bilduk.

"Tortura, hamarkada luzez Euskal Herriaren zorritzarreko parte izan den errealitatea da. Kolore guztietako uniformedun poliziek praktikan jarria; fisiko eta psikiko. Baina komisarietan egin bada ere, boterearen estamentu guztien konplizitatez gauzatu da. Horrez gain, hamarkadetan, torturatuek ez dute merezitako errekonozimendurik izan. Baina errekonozimendu ofizialak etorri badatoz eta horren adibide da Argituz elkarteak Udalaren enkarguz egindako txostena".

Muñecas eta Paco Etxeberria

Antolatu dituzten ekintzen artean, Jesus Muñecas guardia zibilak

eragindako kalteei buruzko mahai-ingurua dago. Bertan, Paco Etxeberria mediku forentse ezagunak parte hartuko du, gertutik ezagutzen baititu Muñecas-en eskuetan pairatutako tortura kasuak; tartean, Jose Javier Arrieta arrasatearra.

Egitaraua

- **Otsailak 11** 'Pedro y el Capitan' antzezlan. Kulturateko Jokin Zaitegin (18:30).
- **Otsailak 13** Torturaren aurkako eguna dela eta, informazioa kalean.
- **Otsailak 14** 'Muñecas kapitain torturatzailea' mahai-ingurua, Kulturateko aretoa nagusian (19:00).

arbolapeta

arrasate

beinke

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Laguntza eskolarrak

Arreta goztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

"Fisikoki inoiz baino hobeto sentitzen naiz"

MAIALEN AXPE PERTIKA-JAUZILARIA

4,40 metroko jauzia eginda, arrasatearra onena izan da Donostian jokatu duten Erreginaren Kopan; gaur, Madrilen izango da, munduko jauzilari onenekin batera

Eneko Azurmendi ARRASATE

Pista estalian daukan markarik onena berdindu zuen Maialen Axpek (Arrasate, 1993) Donostian -aire librean 4,45eko marka egin zuen iaz-. Asteburu honetan, Madrilen hitzordu garrantzitsua dauka, eta otsailaren 16an eta 17an Espainiako Txapelketa absolutua jokatu du Antequeran (Malaga).

Taldekako kopa izan arren, zuk egin zenuen markarik onena.

Bai. Erreginaren Kopa urtero egiten da, eta Espainia mailako talderik onenak elkartzen dira. Horretarako, aurrez, sailkatu egin behar da taldea [Atletico San Sebastian da bere taldea]. Pertsonalki, nire markarik onetik oso gertu ibili nintzen. Europako Txapelketarako sailkatzeko 4,50 metroko marka eskatzen dute, eta horren bila ibili nintzen. Ez nuen lortu, baina pozik geratu nintzen egindako lanarekin.

Zer moduz doa denboraldia?

Sorbaldako lesio batetik irten berri naiz, eta fisikoki oso ondo sentitzen naiz orain. Pista estaliko hiruzpalau txapelketa geratzen zaizkigu eta denbora laburrean, gainera. Hala ere, momentu onean nago.

Gaur, egubakoitza, Madrildo Nazioarteko Meeting-ean ariko zara, pista estalian. Ze helbururekin zoaz?

Hala da. Mundu mailako pertika jauzilaririk onenak izango dira eta Estatu mailako bi jauzilari egongo gara, Monica Clemente eta biok [19:30ean hasiko da lehiatzen]. Oso interesgarria eta aberasgarria izango da guretzat. 4,90 metroko marka daukan jauzilari bat egongo da, baita 4,70 edota 4,65ko marka duten batzuk ere. Beraz, disfrutatzen joango naiz, eta ea maila txukuna emateko gai naizen. **Eta, bide batez, Espainiako Txapelketa prestatzeko balioko dizu.**

Bai, hori da. Hor jauzilari guztiak egongo gara eta lehia estua



Maialen Axpe. XABI URZELAI

"TEKNIKOKI HAINBAT GAUZA HOBETZEAZ GAIN, PSIKOLOGIA ERE LANDU DUT; HORREK ASKO LAGUNDU DIT"

egongo da. Kopan, adibidez, Monika ez zen egon, eta hori nabaritzen da.

Azken urtean gorakada nabarmena egin duzu, hainbat marka hautsita. Hala sentitzen duzu zuk ere?

Egia esan, bai. Teknika aldetik gauza batzuk hobetzea lortu dut eta alde psikologikoa ere landu dut. Azken batean, guztia batera doa eta pauso bat aurrera eman dut, egonkortasun bat lortu dut lehen iristea kostatzen zitzaidan marka horietan. Hori pauso garrantzitsua izan da, marka altuagoak egiteko aukera izan dezadan.

Esan daiteke inoizko momenturik onenean zaudela gaur egun?

Baietz esango nuke, bai fisikoki eta baita emaitzei dagokienez ere. Esan moduan, egonkortasun hori lortu dut eta fisikoki ere inoiz baino hobeto sentitzen naiz. Halako momentuak apro-

betxatu egin behar dira, eta horretan saiatzen ari naiz.

Hori kontuan izanda, marka berririk jarri duzu helburu moduan?

Orain erronka nagusia da Glasgow (Eskozia) martxoan jokatu den pista estaliko Europako Txapelketarako sailkatzea, eta horretarako 4,50 metroko marka eskatzen dute, lehen esan moduan. Ondoren, aire libreko Munduko Txapelketa Dohan (Qatar) izango da, azaroan, eta harako sailkatzeko 4,55 metro gainditu beharko ditut. Baina ezin naiz marka horiekin obsesionatu, horrek ez didalako lagunduko nire errendimenduan.

Aire librea ala pista estalia?

Egia esan, biak gustatzen zaizkit, eta bietan sentitzen naiz eroso. Pista estaliko denboraldia laburragoa da eta denbora gutxiago izaten dugu entrenamenduak egiteko. Beraz, normalean, aire libreko markak hobeak izaten dira. Izan ere, hobeto entrenatuta iristen gara. Eguraldiari dagokionez, pista estalian ez daukazu haizerik, eta baldintza onak izaten dira. Kanpoan, haizea kontra baduzu, kalte egiten dizu, baina alde badaukazu, lagundu egin zaitzake.

La Unica RT hartuko du etxean Kanpanzar ARTk zapatuan

Bi partidu izango dira: lehenik, bi taldeetako beteranoek jokatu dute elkarren aurka, eta ondoren, seniorrek

E.A. ARRASATE

Bihar, zapatua, La Unica RT etorriko da Mojategira. Izen handiko taldea da, nahiz eta aurten ez den bere maila ematen ari, Igor Isasi Kanpanzar ARTko entrenatzailearen esanetan. "Han jendez justu geunden, eta, 60 minutuz eutsi genion arren, bukaera luze egin zitzaigun eta galdu egin genuen. Bihar, ordea, irabaztera joango gara. Badakigu daukagun onena emanez gero garaipena eskuratzeko aukerak izango ditugula. Hala ere, aurkari gogorra izango dugu gurean", adierazi du.

Dinamika onean dira arrasatearrak. Azken partiduan, galdu arren, itxura ona eskaini zuten, Gernikan. Aste honetan, gainera, Borja Malabe jokalaria batu da taldera, "esperientzia handiko" jokalaria eta taldeari "ekarpen handia" egingo diona. "17



Kanpanzar ARTko jokalaria bat. I.S.

jokalaria bakarrik ditugu aste honetarako, baina guztiak maila onekoak", dio Isasik.

Asteburu honetan, gainera, beste partidu bat ere izango da Mojategin: beteranoena. Hori 15:15ean izango da, eta ostean jokatu dute seniorrek, 16:45ean.

Soloarteren aurka jokatu du Mondratek bihar, zapatua

Sailkapenean azken aurreko postuan dagoen Soloarte taldearen etxean jokatu du bihar, zapatua, Mondratek. 18:15ean izango da partidua, Basaurin.

Pasa den astean liderraren aurka etxean galdu ostean, irabazi egin gura dute arrasatearrek. "Liderraren aurka 0-4 galdu arren, partidu ona egin genuen. Atsedendaldira 0-2 joan ginen,

baina guk ere aukera garbiak izan genituen. Gero, bi jokalaririk lesionatu zitzaizkigun, eta horrek eragina izan zuen azken emaitzan", adierazi du Jonathan Raso taldeko kideak.

Biharkoari begira, irabazteko gogoz azaldu da Raso. "Egia da behean dagoen taldea dela, baina kategoria honetan ez dago partidu errazik. Hiruzpalau jokalaririk min hartuta daude, eta zalantzak ditugu jokatzeko moduan egongo diren. Hala ere, guztia emango dugu kantxan".

350 parte-hartzaile izango ditu aurten ere Arrasate-Udalatxek

Apirilaren 14an egingo dute Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren bosgarren edizioa, eta dagoeneko plaza guztiak agortuta daude. Izan ere, pasa den egubakoitzean zabaldu zuten izen-ematea antolatzaileek, Mondraitx Kirol Klubeko kideek, eta lau ordu baino gutxiagotan agortu ziren plaza guztiak, elkarteko kide Ganix Lasaren esanetan.

350 parte-hartzaile izango ditu, beraz, aurtengo lasterketak ere. "Mantendu egin dugu iazko kopurua. Neurria hartu diogu, eta kopuru hori da egokien ikusten duguna", dio Lasak.

Bestalde, itzarote-zerrenda ere jarri dute. "Beti egoten da bajaran bat azken momentuan, eta horien lekua betetzeko aukera ere eman diegu korrikalariei, itzarote-zerrendaren bidez". Hala ere, zerrendako 60 plazak ere segidan agortu dira. Arrakasta bermatuta dago, beraz.

Nerabeekin sexualitatea lantzeko mahai-jolasa

Nerabezaroan sexualitatea lantzeko beharra zegoela ikusita, eta hori euskaraz lantzeko tresnarik ez zegoela kontuan hartuta, 2013an sortutako proba pilotu batetik sortu dute Txatxilipurdikoek 'Mihi-bero' mahai-jolasa; 12 urtetik gorakoei zuzendua

Amaia Zabala ARRASATE

Mihi-bero izeneko mahai-jolasa aurkeztu du Arrasateko Txatxilipurdi Elkartek, sexualitatea berdintasunaren ikuspegitik lantzeko helburuarekin, eta, noski, euskaraz.

Nerabezaroan sexualitatea lantzeko beharra zegoela ikusi zuen elkartek, eta, 2013an sortutako proba pilotu baten ostean, dagoeneko eskuragai dago mahai-jolasa. Hauxe adierazi du elkarteko gazte saileko kide Leire San Vicentek: "2013an hasi ginen hutsune hori sumatzen, ez genuen aurkitzen gazteek sexualitatea modu ludiko batean lantzeko tresnarik, eta hortik sortu zen *Mihi-bero*".

Jolasteko erraza

12 urtetik gorakoei dago zuzenduta, eta, sexualitatea oinarri hartuta, hainbat gai landu nahi izan dituzte mahai-jolasean. Honelaxe azaldu du elkarteko haur saileko koordinatzaile



Itsaso Gallastegi eta Leire San Vicente, *Mihi-bero* aurkezten. AMAIA TXINTXURRETA

Itsaso Gallastegik: "*Mihi-bero* jolasarekin, sexualitatea, berdintasuna eta feminismoa landu ditugu. Tabuak apurto nahi izan ditugu, eduki desberdinak eta askotariko harremanak ukitzen dituen mahai-jolasarekin. Erreminta moduan ere erabil daiteke gai horiek lantzeko".

Taldeka jolastea proposatzen dute egileek eta *Trivial* jokoa- ren antzerako funtzionamendua dauka: "Mahai-jolas honek taula bat dauka eta hainbat laukitan jar daiteke parte-hartzailea: imintzioka edo mimika laukia dago, baita marrazkiarena ere, galderena, eta, azkenik, hitz ezkutuarena", esan du Itsaso Gallastegik.

Dagoeneko salgai

Mahai-jokoaren gaineko informazio gehiago jasotzeko, web-

gune bat egin dute Txatxilipurdikoek: www.mihibero.wordpress.com. Hain zuzen, bertan irakur daitezke jolasaren nondik norakoak, aholkuak edota beste-lako xehetasunak.

Dagoeneko eskuragarri dago *Mihi-bero* mahai-jokoa; izan ere, 25 euroren truke salgai jarri dute Txatxilipurdiko egoitzan.

Horretaz gain, Internet bitartez eurekin harremanetan jarrita ere eros daiteke, eta, oraingoz, baita Arrasateko Zerkaosteta kaleko Olgeta jostailu dendan.

TABUAK HAUTSI ETA SEXUALITATEA, BERDINTASUNA ETA FEMINISMOA LANTZEN DITUEN MAHAI-JOKOA



Mihi-bero mahai-jokoko kartak. TXATXILIPURDI

'Üda batez' Zuberoako ballet garaikidea Amaia antzokian

Otsailaren 9an izango da emanaldia, eta Hego Euskal Herrian egingo duten bakarra izango da Arrasatekoa

Amaia Zabala ARRASATE

Kompany Beritza kultur elkartek eta Zuberoako Ikastolak elkarlanean *Üda batez* Zuberoako ballet garaikidearen emanaldia sortu dute. Zuberoako artistak dira ikuskizuneko protagonistak, dantza eskola askotariko 25 dantzari, zehazki.

Emanaldian, euskal dantzak eta dantza neoklasikoak uztartuko dituzte eta Hego Euskal Herrian egingo duten emanaldi bakarra izango da Arrasatekoa. "Pribilegio hutsa,

beraz, eskainiko digutena", diote Arrasateko antolatzaileek.

Arrasate Euskaldun Dezagun, Portaloia, Lore Gazteak, Arrostitz eta Geike taldeak izan dira ekimen horren bultzatzaileak eta Arrasateko Udaren laguntza izan dute.

Iparraldeko bira arrakastaz ari dira egiten, dagoeneko sei eskaini baitituzte; adibidez, Arrasatekoa eskainiko dute, eta bira amaitzeko, berriz, Maulen, Zuberoko hiriburuan, martxoaren 18an.

Zuberoako euskalgintza helburu Kompany Beritza elkartearen helburuetako bat Zuberoaren eta, oro har, Euskal Herriaren sustapenean laguntzea da, eta ikuskizunarekin jasotzen duten diruaren zati bat Zuberoako euskalgintzara bideratuko du: "Arrasateko eta Zuberoako euskaltzaleek aspalditik daukaten hartu-emanari esker sortu zaigu ikuskizun paregabeaz gozatzeko aukera. Jarrai dezagun, bada, Hego-Ipar zubiak eraikitzen, euskaratik eta elkartasunetik", diote antolatzaileek.

Kompany Beritza

PierPol Berzaitz eta Jean-Dominique Espil zuberotarrek 1998an sortutako interes orokorreko kultura elkartea Kompany Beritza, eta euskal kultura bultzatzea du helburu.

Maravillasi laguntzeko jaieguna antolatu dute gaztetxean

Iruñeko alde zaharreko gaztetxea itxi izanagatik eta mobilizazioetatik etor daitezkeen auzipezteengatik, elkartasun jaialdia antolatu du AGAKOk otsailaren 9rako. Bertara, Maravillasko, Errekaleorko eta Kijerako kideak etorriko dira, eta okupazioaren gaurkotasunaz eta autogestio ereduaz jardungo dute, jai-giroa baztertu gabe.

11:30ean hasiko dute eguna, mahai-inguru batekin, eta arratsaldean euren aldarrikapenak plazaratzeko karro-poteoa egingo dute.

22:00etan hiru talde hauek joko dute gaztetxean zuzenean: Iruñeko Streetwise, Herdoil nafarrak eta Algortako Erasoka taldea.

OHARRAK

Doke, Gasteizen

Doke Antzerki Taldeak *Hamaika amaren seme-alaba (alaba)* emanaldia eskainiko du Gasteizko Felix Petite antzokian, otsailaren 16an, 19:30ean. Sarrerak lortzeko, helbide honetara idatzi behar da: dokeantzerkitaldea@gmail.com.

Never Surrender

Taldeak bere Twitter kontuan jakinarazi du bueltan dela eta *Hemen gaude* abestiaren lotura batekin osatu du tuita.

Liburu aurkezpena

Nacionalismo Nacionalismos liburuaren aurkezpena izango da otsailaren 11n, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.



Senegalgo laguna gidari, eta ikasle, irakasle eta gurasoak dantzan. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Senegalgo koplaren arrastoa

'Uda bat Senegalen' liburuaren bueltan egin dute eskolan aurtengo 'Ir a kurrin kurrin' ekimenaren neguko edizioa. Kantuan eta dantzan amaitu zuten festa, eta hain izan zen arrakastatsua ikasleen artean, Santa Ageda bezperara arte luzatu zen oihartzuna

Julen Iriondo ARAMAIO

"Ikasleei geratu zaien sentsazioa da oso benetakoa izan zela; esperientzia bat izan zen", dio eskolako irakasle Nekane Arrondok *Ir a kurrin kurrin* ekimenaren oraingo edizioaz: "Astelehenean santa-eskean ibili ginen, eta etxe batetik besterako bidean Senegalgo kantuak abesten ibili ziren jo eta su; gero baserri aurrera iritsi eta: *Santa Ageda bezpera dugu...* kar, kar, kar".

Benetakoa, bai; izan ere, Bergarako senegaldarren konpainia izan zuten eskolako irakasle, ikasle eta gurasoek. Aurrez irakurrita eraman behar zuten Lur Gallastegi eta Susanna Martinen *Uda bat Senegalen* liburuaren komentatuz hasi zuten eguneko ekintza sorta. Talde txikietan jardun zuten, eta liburuak sentimenduez eta ere badiharduenez, jolas moduko bat ere egin zuten

ondoren, adimen emozionalaren arloa landuz.

Afaltzeko mahaian jartzeko garaia iritsi zen horrela; oilaskoa eta arropa oinarri izan zituen otordua, eta eskuekin egin zuten, Senegalgo erara, sardexka edo koilararik gabe: "Nagusi batzuei ere kosta zitzaion erparoak gainditzea, baina sartu ginen harian eta, azkeneko, ondo".

Jaiaren azken zatia falta zen; jaitik gehien zuena, hain justu, nolabait; euren perkusio instrumentu eta berezko gorputz adierazpen aberats eta guzti etorri

**IRAKURZALETASUNA
ETA BIZIKIDETZA DITU
HELBURU URTEAN
BITAN ESKOLAN
EGITEN DUTEN FESTAK**

baitziren Aramaiora Bergarako afrikarrak. Jo zituzten hango doinuak, euren kantuak abestu, eta Senegalgo azoka bat bailitzan atondutako aretoan bildutakoei abesti haiek irakatsi eta dantzarako jarraibide batzuk eman. Eta erabat lortu zuten publikoak inplikatzeko –izan zen hango bizimoduari buruzko galde-erantzunetarako tarterik ere–.

Ikaslearen onurarako, edozein moduz; baina sarri egin behar legez hartzen direnak gozamenaz nahasten badira, eraginkorrago bihurtzen direla gauza frogatua da. Aramaioko eskolan neska mutikoen irakurzaletasuna lortzeko beste pauso bat eman dute oraingoan ere; irakurzaletasuna, eta bizikidetza, hori baita *Ir a kurrin kurrin* –izena ikasleek proposatu eta bozketaz onartutakoa da– ekimenaren beste helburua.



Liburuaren komentatzeko saioa.



Sentimenduei buruzko jolas modukoa.



Afaria, senegaldar erara egindakoa.



Senegaldarrak, perkusioa jotzen eta abesten.

Oso 'aramaioarra' izan daitekeen txapelketa

Bihar hasiko da Arabako bertsolari dema, eta, aurre-kanporaketetan hala erabakita, hemezortzi parte-hartzailetik herena herrikoak izango dira; Aitor Ugartek –txapelketako gazteena; aurten estreinatuko da– hiruzpalau ikusten ditu finalerako aukerarekin

Julen Iriondo ARAMAIO

Bihar –zapatua– Araian jokatu-ko den final laurdenarekin –17:30ean hasita, Andra Mari aretoan– hasiko da 2019ko Arabako Bertsolari Txapelketa. Bertan ariko dira Manex Agirre eta Paula Amilburu, Iñaki Viñaspre, Felipe Zelaieta, Jon Ruiz de Pinedo eta Rikardo Gonzalez de Duranarekin batera.

Astebete geroago izango da Aitor Ugarteren txanda, Zigotian; txapelketaren gaztetze eta berritzearen erakusleetako bat –lehen txapelketa duten bost bertsolarietako bat da, Aroa Arrizubieta, Beñat Garaio, Manu Bendala eta Unai Andarekin

batera–, denetan gazteena da, 17 urterekin. Iaz Arabako Eskolartekoa irabazitakoa, "gogotsu" dago maila nagusikoan parte hartzeko: "Urrian hasi ginen aurre-kanporaketekin, eta badaramatzagu hilabete batzuk prestatzen. Prestakuntza ondo joan da, gogotsu nago eta lasai, presiorik gabe, lehenengo aldia da, niretik kantatuko dut eta,

HIRUGARREN FINAL-LAUDENA ARAMAION JOKATUKO DA, OTSAILAREN 23AN KULTURA ETXEAN

ahal bada, saio txukun bat egin". Hori da, behintzat, nahi lukeena, ze aitortzen du urduritasunak gaintitzea izango duela bere buruarekiko erronketako bat: "Aurre-kanporaketan oso urdu-ri atera nintzen, ez nuen oso gustura kantatu; eta oso inportantea da, presio apur batekin, baina lasai irtetea".

Finaleko leku bat 'libre'

Final-laurdenetan herriko bertso-kiderik izango ez duen aramaioar bakarra da Ugarte –Xabi Igoa, Manu Bendala, Unai Anda, Beñat Garaio, Peru Abarrategi eta Andere Arriolabengoa ariko dira hirugarrenean, Aramaion



Aitor Ugarte, bertsoan. GOIENA

bertan, gainera–; ez dio horri inportantzia gehiegi ematen. Finalerdietan eta aurrerago finalean izango luke bertso eskolako lagunekin kantatzeko aukera. 2017ko finala aintzat hartuz gero, sei lekuetako bat libre dago, Asier Otamendi ez baita aurten aurkeztu, eta azken saio horretan hiruzpalau aramaioar egoteko aukera ikusten du Ugartek –aurrekoan bi izan ziren,

Manex Agirre eta Xabi Igoa–: "Neure burua ez dut ikusten, oraindik goizegi iruditzen zait". Baina besteak ondo omen daude: "Lan nahikotxo ari dira egiten, eta gauzak ondo eginez gero gertatu daiteke".

Hemezortzi bertsolarietatik puntu gehien lortzen duten hamabiak sailkatuko dira finalerdietarako. Finala martxoaren 30ean izango da, Gasteizen.



PERU ABARRATEGI

"Motibatuta nago txapelketarako. Finalerako lau hautagai nahikoa argi ikusten ditut, eta borroka polita egongo da beste bietarako. Helburua izateko handiegia da, baina zergatik ez amets egin?"



XABI IGOA

"Ilusioz nago txapelketagatik, bertso eskola modura dugun presentziagatik, jende berriagatik. Txapelketa oso bat egin nahi dut; unereren batean joan egin izan zait aurrekoetan".



ANDERE ARRIOLABENGOA

"Batez ere, gozatu egin nahi dut lagunekin oholtzan. Aramaioar asko gaude eta ilusio berezia egiten dit beraiekin kantatzeak. Politia litzateke Printzipala aramaioarrez beteta ikustea".



PAULA AMILBURU

"Aurre-kanporaketan arantza geratu zitzaidan, nahikoa behean geratu nintzen eta. Oraingoan lan ona egingo dudana sentzioa da. Txapelketan jende askori ikusten dizkion aukera asko".



MANEX AGIRRE

"Bakarkakoetan daukat arantza, eta nahi nuke hor zerbait polita egin. Hor asmatuz gero eta finalerako aukera badago, primeran; eta bai, inoiz txapela jantzi duenak faltan igartzen du".

Santa Ageda bezpera

San Martin eskolako ikasle eta irakasleek aurten ere bete dute Santa Ageda bezperako tradizioa.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutilek, denek irten zuten astelehenean santa-eskera. Ibarrako kaleetan eta auzoetako baserrietan ibili ziren, koplak abesten.

Argazkian, Lehen Hezkuntzako ikasle batzuk, atari batean.



SAN MARTIN ESKOLA

OHARRAK

Argi mozketa hilaren 14an

Gureian eta Goiko eta Beheko Induspen, 09:00etatik 11:30era.

Feminismoari buruzko tailerra bihar

Aramaio talde feministak antolatu du, eta 10:00etatik 13:00etara izango da, liburutegian. Ez da izenik eman behar.

Go!rbeia gazteentzako lehiaketarako izena

12 eta 16 urte artekoek eman dezakete, hilaren 15era arte –go.ginkana@gmail.com–. Bonuetan 600 euro daude saritan.

Itur-Zuriren batzarra hilaren 15ean, 18:30ean

Kultura etxeko eskulanen gelan izango da batzar orokorra.

Hamar milioi euro azken urterako

Udalak 10.015.516 euroko aurrekontua izango du 2019rako, iazkoarekin alderatuta %3,4 handiagoa, eta inbertsioetara 849.188 euro bideratu dituzte; Udal Gobernuaren botoekin onartu dute eta EH Bildu abstenitu egin da



Udalbatza elkartuta joan den egunean, ohiko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

Mirari Altube ARETXABALETA

Udalbatzak 2019ko udal aurrekontua onartu zuen joan den eguen iluntzean, jeltzaleen eta Alderdi Sozialistako zinegotziaren aldeko botoekin (zazpi) eta EH Bilduko zinegotzian abstentzioarekin (lau); alderdirik ez duen -Irabazi alderdia uztea erabaki ondoren- Luis Mariano Gomez zinegotzia, ostera, ez zen egon bilkura horretan. Agintaldiko aurrekontu handiena da, eta inbertsioetarako 849.188 euro izango dituzte.

Inbertsio handiena, bidegorria

Inbertsiorik garrantzitsuenak hiru izango dira: Santa Kurtz kaleko bidegorriaren lanak (200.000); mojen komentuko aretoa txukuntzea (100.000 euro) eta Herriko Plazatik Santa Kurtz kalera igotzeko eskaileretan arrapala jartzea (71.315 euro). Ibarra kiroldegian berritze lan txo batzuk egiteko beste bi partida ere gorde dituzte: fitness gela handitzeko (70.000 euro) eta kantxako lurra babesteko (40.000 euro). Horrez gain, hainbat ur-

banizatzeko lan egingo dituzte (50.000 euro); kaleak asfaltatu, besteak beste.

Bestetik, kreditu globalean ohi baino diru gehiago utzi dute, 160.000 euro inguru, proiekturen batek diru gehiago beharko balu bideratu ahal izateko eta Deba ibai alboko pasealekuren lanak egiteko: "Lanak hasi, hasi ziren, baina enpresak utzi egin zituen eta kontratua eten genuen. Bigarrenez lehiaketa deitu eta balio ez duen bakarren bat aurkeztu da. Aste pare batean ja-

kingo dugu inor prest dagoen lan horiei heltzeko, eta, bestela, berriz lizitatuko ditugu. Horixe da dudan arantzatzkoa, baina badut bideratuko diren esperantza", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak.

Gainerako partidei dagokienez, igoera nabarmenik ez dagoela aipatu zuen; aldaketa da berdintasun partida bat sartu izana sail guztietan "zeharkakotasuna bermatzeko". Eta berdintasun teknikariaren postua laster beteko dela aurreratu zuen.

EH Bildu abstenitu

EH Bilduk, ostera, ez zuen aurrekontuaren gaineko proposamenik aurkeztu eta abstenitu egin zen bozketan. Oraingoan ere, EAJren -PSE-EERI eskerduen gehiengo absolutuak baldintzatu duela aurrekontua aipatu zuen Ion Albizu bozeramaileak: "Gure botoak ez dira beharrezkoak izan ez lehen, ezta oraingoan ere. Bereziki, apurren inguruan eman dira negoziaketak", eta gaineratu zuen: "Herriarren parte-hartzera ere ez

"Berdintasun partida bat sartu da sail guztietan, ekintzetarako"

UNAI ELKORO ALKATEA

Agintaldiko azken aurrekontuaren nondik norakoak berri eman du.

Zein ezaugarri ditu?

Agintaldiko handiena da, hamar milioi pasatxo eta inbertsioetarako dirutxo dugu, hain zuzen ere, iaztik hasi ezinik geratutako hainbat proiekturi heltzeko; Santa Kurtz kaleko bidegorriari, adibidez. Horrez gain, kreditu globalean ohi baino diru gehiago utzi dugu, 160.000 euro inguru; hori izango da diru beharra egonez gero erabiltzeko edo Deba ibai alboko pasealekuko lanak egiteko. Agintaldia bukatzeko eta lanerako lau hilabete eskas geratu arren, aurrekontu polita da Aretxabaletarako. Gainera, iazko gerakinetik dirutxo bat geratuko da hurrengo agintaldian sartzen direnendako. **Proiektu batzuk bukatu barik geratuko dira...**



M.A.

Bai, plazako arrapala bukatuko da, baina pasealekuarena, ikusi egin behar... Futbol zelai berria abian jarrita egongo da. Ez bukatzea gutxienezkoa da; izan ere, guztiok begi onez ikusten ditugun proiektuak dira aurten abian jarriko direnak, eta hauteskunde aurretik bukatu barik egoteak ez nau kezkatzen. **Inbertsioak ez diren partidetan aldaketa aipagarriak izan da?** Ez, igoera nabarmenik ez dago; herriko merkataritzaren

azterketa egiteko 15.000 euro jarri ditugu eta gazteria barruan ekintzetarako aurreko urteetan baino diru gehiago sartu dugu. Bestetik, berdintasun partida bat sartu da sail guztietan bakoitzak bere ekintzak garatzeko.

Orain arte egindako lanarekin gustura...

Bai; atzera begirata bide beretik joango ginatkeela uste dut. Beste munduko gauza handiak egin beharrean xumeagoak eginda, herritarrek eskatzen dituztenak eta nabari direnak gero. Bide beretik jarraituko dugu.

Herritarrei aurrekontuan parte hartzeko aukerarik ez diezuela eman dio EH Bilduk.

Parte hartze horren gainean hausnartu beharra dago. Dirutxo bat jartzea, 40.000 euro, adibidez, huskeria da; zer eska dezakete horrekin? Lau urtean ibili dira eskatzen eta aholkuak ematen herritarrek, eta horiei kasu eginda hainbat erabaki hartzen dira, inbertsio edo irizpide batzuk zehazteko gero. Eguneroko zerbait izan behar da parte hartzea, eta ez ekintza puntual bat.



Elkarlana eraikitza behartuta

ION ALBIZU EH BILDU

Aurtengo aurrekontuak hobeto ulertzeko, agintaldiko begirada orokorra beharrezkoa dela uste dugu. EAJK gehiengo absolutuarekin gobernatu du Udala, lau urte hauetan PSEekin duen hitzarmenari esker; berez, ez du inoiz gure botoen beharrik izan. Logika horren barruan kokatu behar dira aurrekontu guztien negoziaketak, beti apurren inguruan hitz egiteko borondatearik besterik ez dutelako erakutsi. Nahiz eta gure proposamen gutxi batzuk onartu, horietako hainbat ez dira gero gauzatu. Berez, ulertu dezakegu onarpen horiek Gobernuaren burua leuntzeko izan zirela. Gainera, agintaldi honetan ez da inongo parte-hartzerik bultzatu herritarren ekarpenak aurrekontuetan txertatu ahal izateko.

Aurtengo aurrekontuetako hainbat proiektu begi onez ikusten ditugu eta konplexurik gabe %100ean babesten ditugu. Beste batzuk guk proposatutakoak dira: bidegorrian komunak jartzea, sexologia aholkularitza eta merkataritza bultzatzeko plana. Besteetan, gure ekarpenak utzi ditugu: Kurtzbarriko bidegorrian eta Loramendiko asfaltatze lanetan, besteak beste. Bestalde, iazko proiektu handienak Udal Gobernuak atzeratu ditu hauteskunde aurretik egin ahal izateko. Gu joko horretan ez gara sartuko.

Aurrean aipatutako arrazoiengatik ez dugu uste baldintza nahikorik ematen direnik gure proposamenak aurkezteko. Ez du zentzurik testuinguru eta jokaldi honetan proposamenik egin edota aurrekontuak onartzea. Apurren inguruan baino elkarlanean oinarritu beharko genituzke aurrekontuen negoziatioak. Ez badira kapazak beste alderdien ekarpenak beste modu batean kontuan hartzeko, zelan zabalduko diegu prozesu hori herritarrei? Behartuta gaude elkarlana eraikitzeko, eta, horretarako, konplizitateak eraikitzea ezinbestekoa da.

Udal aurrekontua

Partidak kapituluka	Euroak
Ohiko gastuak	5.164.346
Pertsonal gastuak	1.953.875
Inbertsioak	849.188
Kreditu globala	119.111
Kreditu amortizazioak	826.565
Guztira	10.015.516

ITURRIA: UDALA

dira zabaldu aurrekontuak agintaldi honetan".

Proiektu interesgarri batzuk egon badaudela onartu zuen, eta eurek ere proposatu dituztela hainbat. Proiektu handienak, baina, azken lau hilabeteetan egiteko "atzeratu dituela Udal Gobernuak" uste du EH Bilduk: "Gu joko horretan ez gara sartuko eta erabaki dugu proposamenik ez egitea. Negoziaketa eskematik lankidetzara pasatu behar da, eta konplizitateak landu; horretan gabilza gu".

Athlon-ekin kontratua berretsi

Bestetik, Ibarra kiroldegian kirol jardueren ardura duen Athlonekin beste bi urtez jarraitzeko erabakia hartu zuen udalbatzak: "Oso pozik gaude orain arte eskaini duen zerbitzuarekin, eta kiroldegia dagoen lekura iritsi bada Athlonek lan oso ona egin duelako da", adierazi zuen Mikel Uribebarria Kirol zinegotziak. EH Bilduko kideak bat etorri ziren esandakoarekin eta aho batez onartu zuten kontratuaren luzapena.

Aurrekontu oso ona



MIREN LOREA LANA
PSE-EE

lazkoarekin alderatuta %6 igo dela kontuan hartuta, aurrekontu oso ona da. 2018an aurreikusitako hainbat inbertsio egingo dira, hobekuntzak eginda, gainera: bidegorria, Herriko Plazako arrapala, askotariko erabilera izango duen mojen komentuko aretoa...

Hortaz, inbertsioen partidan igoera izan da eta gainerakoetan, beherakadarik ez; nabarmentzekoa da familia esku-hartzean eta berdintasunean izandako igoerak. Ondorioz, pozik nago eta gustura, orain arte egiterik izan diren proiektuak garatu ahal izango direlako.

Negoziatzeko aukera barik



LUIS MARIANO GOMEZ
INDEPENDENTEA

Jeltzaleen Gobernuak hartu duen jarrerak –aurretik izan duenarekin guztiz bestelakoa– penatu eta arduratu egiten gaitu, negoziaketari uko egin diolako, eta, duen gehiengoari esker, betiko banaketa duen aurrekontua onartu duelako. 2015etik daude garatu beharreko proiektuak: bidegorria, biribilguneak, Santa Kurtz kaleko kanalizazioak, irisgarritasuna... Eta horiei heltzeko denbora askorik ez da geratzen. Herritarren parte hartzea ere ez da jarri abian. Ondorioz, ez ginen izan osoko bilkura horretan, ez gaituztelako ezertarako kontuan hartu.

Herriko kintoak dantzan hasi dira dagoeneko

Santa Ageda bezpera eta eguna ospatu zuten 2000. urtean jaiotako neska-mutilek, astelehenean auzoetan zehar koplak abestuz eta hurrengo egunean Herriko Plazan dantzatzuz, kaleetan abestu eta gero. Aratusteak arte, domekero dantzatzuko dute

Aitor Zuazabeitia ARETXABALETA

Kintoen festak astelehenean egin zuen eztanda eta Aratuste-domeka arte iraungo du. Izan ere, domeka guztietan egingo dute dantzan Herriko Plazan (19:00) ordura arte.

Astelehenean, otsailak 4, ekin zieten XXI. mendeko lehen belaunaldiko aretxabaletarrek Santa Ageda bezperako ospakizunei. Aurten, eguraldia aldeko, giro ezin hobean gozatu zuten herritar guztiak batera. Aurreko egunetako euriteek eragindako lokatz artean, baserriz baserri aritu ziren Udalak erraztutako ibilbidea jarraituz, jendea egongo zen baserrietara zihoazela ziurtatzeko. Honela, goizean, Oro, Arkarazo, eta Areantza auzoetan banatu ziren eguerdia arte. Arratsaldean, berriz, Galartza eta Isurieta auzoetara igo ziren, eta, guztiak animatu ez baziren ere, kinto batzuk atez ate joan ziren falta ziren baserrietara. Azken horiek gutxiatik lortu zuten beraien helburua, Etxezuri baserrira iritsi orduko zerua iluntzear baitzegoen. Hala ere, ibilbidea amaitu zuten eta gauean tabernak bete zituzten.

Martitzenean, hilak 5, Santa Ageda egunean, kintoak herrian aritu ziren betiko koplak abesten. Oraingoan ere, taldeetan banatu ziren lasaiago ibili ahal izateko. Esan daiteke herri guztiak entzun zituela, kalean abesteaz aparte, Kurtzebarri Eskolan, Ikus-entzuzko eta Komunikazio Fakultatean, udaletxean eta, batzuen harridurarako, Udal Liburutegian ere abestu baitzuten.

Ondo antolatutako taldea

Eguna jai giroan gora eta behera igaro ostean, iluntzean Herriko Plazan elkartu ziren, herritarren aurrean urteroko dantzak egiteko. Orokorrean, beraz, oso ondo antolatutako taldea izan da.



Kintoak Galartzarantz.



Herriko Plazan dantzan.



Kintoetako batzuk Herriko Plazan. ARGAZKIAK: AITOR ZUAZABEITIA

Jou Díaz
Karakiua

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Hogei urte karatearen bueltan lanean

Karateka eta entrenatzailea da, baita epailea eta 'coach'-a ere. Edonork egiteko kirola dela dio, eta 200 neska-mutikotik gora pasatu dira haren eskolatik; gaur egun dauden 24 lagunek gogor dihardute lanean aurrez aurre dituzten txapelketei begira

Mirari Altube ARETXABALETA

Karatea eta Odilo Vazquez (Ourense, 1963) bat dira Aretxabaletan. Dio berandu barneratu zela kirol horretan, 18 urterekin, baina bete-betean murgildu zen gero. Karateka eta entrenatzaile denak Debagoieneko Kirol Sarien barruan Aretxabaleta Udalaren saria jasoko du otsailaren 13an, Arrasaten: "Asko poztu nau. Urte askoan egindako lanaren saria dela uste dut, eta egindako lan hori aintzat hartzea beti da polita".

2007a ezkerro UDA barruan

"Kirolaren bueltan elkartzen ginen lagun talde batek karate erakustaldi bat ikusi genuen Herriko Plazan, eta izena eman. Gero, neuk bakarrik jarraitu nuen", dio Vazquezek. Gerriko beltza du -3. Dan maila-, entrenatzaile izendapena, eta epaile lanetan dihardu 2005az geroztik; karate *coach*-a ere bada iaztik.

Hogei urte pasa daramatza entrenatzaile lanetan herrian: "1998an hasi nintzen Aretxabaletan zegoen eskaerari erantzunez, eta lehen urteak gogorrak izan ziren egoitza faltagatik. Kirol etxean elkartu ginen 2005a arte, eta gero, Kurtzebarri Eskolako gimnasioan". 2007az geroztik Aretxabaleta Kirol Elkarte barruan dago taldea: "Baberako aterkia da, eta beti dago hor behar dugun edozertarako".

Hogei urtean 200 neska-mutiko

Hogei urtean 200 neska-mutiko inguru hezi eta hazi ditu karatearen bueltan; besteak beste, bi semeak: "Ez pentsa, ez ditut nik bultzatu. Nagusienak, Odeik, behartu ninduen herrian entrenatzen hastera. Oxelek, oster, futbolearen jardun du karatearekin batera, eta orain, karatean bakarrik dabil". Gaur egun 24 lagunekin dihardu lanean, eta gogor dabilzala entrenatzen dio: "Otsailean eta martxoan ditugun



Odilo Vazquez, entrenamendu saio batean. ODILO VAZQUEZ

txapelketei begira, batetik, eta gerrikoak lortzeko, bestetik". Edonork egiteko moduko kirola dela gaineratu du, ez delako aparteko ezaugarri behar; eta beste kirol batzuekin "guztiz bateragarria" da.

Jasoko duen saria Aretxabaletan karatearen motor lanak egiteagatik dela dio: "Izan ere, Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketak gurera ekarri izan ditugu, eta kanpora jokatzera joanda herriaren berri ematen dugu".



Eneko Calvo; Oxel, Odei eta Odilo Vazquez; eta Joanna Perez. ODILO VAZQUEZ

Emaitza dotoreak Azkoitian

Gipuzkoako txapelketan, kumite modalitatean, lehen postuak eskuratu zituzten Oxel Vazquezek (67 kiloz azpikoak) eta Odei Vazquezek (75 kiloz azpikoak) eta hirugarrena Eneko Calvok (84 kiloz azpikoak). Kata modalitatean lehen postuan geratu zen Joanna Perez.



Bidelaguna erakusketa Arkupeko aretoan. M.A.

Gu Haziak Gara elkarteak egindako lanak ikusgai Arkupen

'Bidelaguna' erakusketarekin, iaz jasotako emaitzak erakutsi gura dizkiete herritarrei otsail guztian

M.A. ARETXABALETA

Iaz egindako lanaren berri eman gura diete aretxabaletarrei Gu Haziak Gara elkarteak kideek, eta horretarako antolatu dute *Bidelaguna* erakusketa. "Helburua da herritarrei jakinaraztea zertan ibili garen 2018an", dio Paloma Martinezek, taldeko kideetako batek.

Batetik, erakutsi gura dituzte herrian margotutako muralak: feminista taldearekin batera egindakoa Herriko Plazan, eta edoskitzearen gainekoa, Errekabarren kalean. Horiekin batera, Kurtzebarri Eskolako au-

rrealdea margotzeko emandako pausoen berri jaso dute.

Bestetik, joskintza ardatz duen atala nabarmendu gura izan dute: "Joskintzaren proiektu ekonomikoa, hau da, *Haziak* proiektuaren berri dago, eta gure produktu batzuk zintzilik". Antolatutako tailerren gaineko irudiak ere jaso dituzte, baita kakorraz lantaldeak egindakoak eta ortuaren gaineko kontuak ere. Hori eta gehiago ikusteko aukera izango da hilabete bukaera arte; kakorraz lantaldea, gainera, bertan elkartuko dela hainbat egunetan adierazi dute.

Otsailaren 13an elkartuko da Korrika Batzordea

Korrika Batzordeak lanean dihardu azken asteotan, eta apirilaren 14rako motorrak berotzeko hainbat ekitaldi zehaztu dituzte dagoeneko; besteak beste, mendi irteera, bertso afaria eta kantu poteoa. Horiez gain, eguna bera girotzeko asmoa ere badago; kontzertu bidez, esaterako.

Horiekin baino lehen, otsailean bertan, materiala salgai jarriko dute kalean. Eta Korrika Laguna egiteko bideak ere dagoeneko zabalik daude; *Korrika.eus* webgunearen bitartez edo Loramendi elkartera jota. Korrika Batzordearen hurrengo bilera eguaztenean izango da, otsailaren 13an, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

OHARRAK

Maskara tailerra

Atzera utzitako materiala erabilia maskarak egiten ikasteko saioa egingo du gaur, egubakoitza, Gu Haziak Gara Elkarteak, Iralabarri plazako egoitzan, 17:00etan.

Odol ateratzea

Odola emateko dei egin dute Arabako odol emailleen elkarteak kideek, eta autobusa joango da Durana kalera, astelehenean (16:45-20:00).

'Erraiak' filma

Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendutako *Erraiak* filma emango dute hilaren 19an eta 20an, Arkupen (19:00). Sarrerak dagoeneko salgai dituzte Arkupen bertan (3 euro).



Torrebaso eta Fagor-Ederlan artean lanak egiten ari dira. IMANOL BELOKI

Torrebaso eta Ederlan arteko lanak, martxan

Zirkulazioa baretzeko eta segurtasuna bermatzeko helburuarekin, bi autobus geltoki eta semaforo bidezko zebra bidea egingo dituzte bertan. 153.000 eurotan adjudikatutako lanak zortzi aste irautea aurreikusten dute. Horrez gain, komun publikoak jarriko dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urrian, Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren diputatuak Eskoriatzako osoko bilkura aretoan adierazi zuen moduan, hasi dituzte Torrebaso industrialdearen eta Fagor Ederlan arteko lanak.

Proiektuaren helburua inguru horretako zirkulazioa baretzea eta segurtasuna bermatzea da. Hori horrela, noranzko bakoitzean autobus geltoki bana egingo dute, eta semaforo bidezko zebra bidea. 153.000 eurotan adjudikatu dituzte lanok, eta Excavaciones y Obras de Diego arduratuko da horiek egiteaz. Aurreikuspenen arabera, zortzi aste iraungo dute obrek. Hala, egiten ari diren lanen arabera, zirkulazioa txandaka bideratuko dute.

Komun publikoak parke ondoan

Lan horiekin batera, komun publikoak ere jarriko dituzte, Aretxabaletako eta Eskoriatza-

ko udalek ordainduta; 50.000 euroko kostua izango dute lanek. Honela adierazi du Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak: "Aretxabaletako Udalarekin adostuta dago hitzarmena, eta otsaileko osoko bilkuran onartuko dugu. Asmoa da otsail bukaeran lizitazioa martxan jartzea. Beraz, dena ondo badoa, hilabete pare batean jarrita egongo dira. Hori horrela, Torrebasoko parke ondoan, Eskoriatzatik hurbilago jarriko ditugu, alde horretan zerbitzuak konektatzeko errazagoa baita".

EH Bilduk kezka agertu du

Lanak hasi bezain pronto, Eskoriatza EH Bildu kezkatuta agertu da. Hain zuzen ere, horren

GUZTIRA, ZORTZI ASTE IRAUNGO DUTE TORREBASO ETA EDERLAN ARTEKO LANEK

arrazoia da duela hogeit urte industrialdea egin zenean eremu berde baten aldeko apustua egin zela, eta zati bat babestu. Orain, lan horiek Udalaren zaintzapean egitea eskatu dute.

"Kontua da kanalizazioak egiteko makineria astuna erabili dutela eta zuhaitzen sustraiak dezente kaltetu dituztela; zuhaitz horien etorkizuna kolokan jarri dute. Udalak obra horren gainean egon beharko luke, parkea babesteko. Izan ere, eremu historikoa izan da. Garai batean, bainuetxea, eskola bat, eta abar egon ziren, eta, utzita egon bazen ere hainbat urtez, Udalak hartu zituen lurra industrialdea egiteko, eta lortu zen gunea parke egitea. Orain dela hogeit urte, Diputazioak adituak bidali zituen, eta babestu beharreko zuhaitzak zirela adostu zuten. Bertan, besteak beste, sekuoia gorria eta izei greziarra daude, eta babestu beharrekoak dira. Uste dugu beste modu batean egin daitezkeela lanok".



Dorleta auzoko errepidea, urez gainezka. GOIENA



Aingeru Guardan, saihebiderearen eta bidegorriaren artean lurra eta harriak. GOIENA

Eguraldi petralak eraginak izan ditu herriko hainbat txokotan

Dorleta auzoa urez beteta eta lur eta harri arrastoak saihebiderearen eta bidegorriaren artean

I.B ESKORIATZA

Euri kopuru handia izan da egunotan, eta horrek herriko hainbat lekutan lur-jausi txikiak gertatzea eragin du.

Dorleta auzoko errepidea, esaterako, urez bete zen urtarrilaren 31n, bidegorrian behera jausitako ur kopuru handiagatik. Hala, estolda trabatu egin zen, eta ura ezin pasa geratu zen.

Harri txikiak eta lurra errepedean

Saihebiderearen eta bidegorriaren artean, Aingeru Guardan ere, ur kantitate handiaren eraginez, errepidea pasa eta bidegorriraino iritsi ziren tontoretik eroritako lur eta harriak. Edozelan ere, ez zuen traba handirik eragin, eta bertatik pasatzeko ez dago arazorik.



Plaza txiki geratu arren, dantzan ederto egin dute

Martitzenean egin zituzten dantzak aurtengo Santa Ageda neska-mutilek. Horrez gain, hainbat egunez kantu-eskean eta parrandan aritu dira, eta domeka honetan Fernando Eskoriatza plazan 19:00etan egingo dituzten dantzekin amaituko dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Pasa den zapatuan hasi ziren motorrak berotzen 2001ean jaiotako eskoriatzarrak. Izan ere, Kinttaden Eguna izan zen, eta parrandatxoia egiteko aprobetxatu zuten, Eskoriatzako beste hainbat kintadarekin batera. Hala, egun ederra pasatzeaz batera, 19:00etan Santa Ageda egunerako dantzak entseatzeko ere aprobetxatu zuten batzuek. Izan ere, adin askotariko herritarrek dantza egin zuten kontzejupean, txistulariek lagunduta, eta aurtengo Santa Ageda neska-mutilak ere animatu ziren dantzatzerara.

Hala ere, aste honetan izan dituzte festa eguna handiak. Astelehenean, Santa Ageda bezperan, elizateetan aritu ziren baserri kantu-eskean, eta, horretarako, bi taldetan banatu ziren. Martitzenean, Santa Ageda egunean, aldiz, herriko kaleetan aritu ziren: ikastetxeetan, enpresetan... Horrekin batera, urtero lez, dantzak izan zituzten Fernando Eskoriatza plazan, eta domeka honetan berriz egingo dituzte, 19:00etan.

Dantzak, emozioz beteta

Plazan batu ziren kinto guztiek banakoa egin ostean, Gorka Zubillagak eta Alaitz Ortuetak egin



Martitzenean, kintoak dantzan Fernando Eskoriatza plazan. I.B

zuten aureskua plazan. Zubillagak ama atera zuen plaza erdira eta Ortuetak, berriz, aitona. Emozioz betetako momentuak izan ziren ikusle askorentzat, eta protagonistentzat eurentzat; batez ere, aureskua amaitzean, musu eta besarkada eman ziotenean beraien familiarrei.

Eguaztenean ere, kantu-eskean

Egun gutxi ez, eta aurtengo kantu eta parranda egunak amaitu barik, eguaztenean ere kantu-eskean aritzeko aprobetxatu

zuten hainbat kintok. Izan ere, etxe guztietatik pasatzeko astirik ez, eta hainbat auzotakoei kantatzeko asmoz, berriz irtetea erabaki zuen zuri-gorritz.

Bertsoak, arrakastatsuak

Aurtengo berrikuntza izan da Oihana eta Haizea Arana ahizpek santa-eskean aritzeko bi bertso berri eta bakarria agur moduan asmatu dituztela.

Gaur egunera egokitutako bertsoak, kinto guztien oneparekin, gustura ikasi eta kantatzen aritu dira egunotan.

Korrika Batzordea, zapatu iluntzea eta gaua alaitu nahian

Korrikaren harira, hurrengo bilera otsailaren 20an izango da, 18:00etan, kultura etxean

I.B ESKORIATZA

Apirilaren 14an, domekan, 05:19 bueltan pasako denez Korrika Eskoriatzatik, zapatu iluntzea eta gaua girotzea izan zuten hizpide Korrika Batzordearen bigarren bileran.

Bertan, elkarte eta eragile askotariko hamahiru kide batu ziren, eta honako ideiak ateratu ziren Korrika iritsi aurretik Eskoriatzan antolatzeko: "19:00 aldera, dantza herrikoiak egitea pentsatu dugu; gero, kantu kalejira antolatzea; eta gauean, plazan kontzertuak egitea. Hala

ere, ez dago ezer zehaztuta, baina horren aldeko apustua egin dugu. Lan banaketa eginda, horrekin ari gara lanean, uste dugulako zerbait antolatu beharra dagoela", adierazi dute Korrika Batzordeko kideek.

Otsailaren 20an, hurrengo bilera

Hurrengo hitzordua otsailaren 20an izango da, 18:00etan, kultura etxean. Hori horrela, interesdunei bertaratzeko dei egin diete batzordekideek, elkarte guztien ideiak batuz egun ederra antolatzeko.

Panticosara eskiatzera joateko deialdia ireki dute

Urtero moduan, Panticosara irteera antolatu du Eskoriatza kirol elkarteak. Irteera otsailaren 16ko eta 17ko aste bukaeran izango da. Aurreikuspenen arabera, elurra egingo du aste bukaera horretan, eta eskiatzera joateko deialdia egin du elkarteak. Bertara joan nahi duenak 130 euro ordaindu beharko ditu eta izena Namaste belar-dendan eman

beharko du. Informazio gehiago nahi duenak, aldiz, 943 71 43 27 telefonora deitu dezake.

Irteerara joateko 50 pertsonarendako muga jarri dute antolatzaileek, eta aldaketak izan daitezkeela adierazi dute. "Panticosara joan gara urtero, baina baliteke Candanchura joatea. Izan ere, ez gara inoiz bertan izan, eta lotan geratzeko leku gehiago eta merkeagoak daude. Izena ematen dutenekin erabakiko dugu hori...", adierazi du Garbiñe Uribe antolatzaileak.

2001ean jaiotakoen talde argazkia

Urte dezente dira urte berean jaiotako hainbeste neska-mutil batzen ez zirela. Kantu-eskean aritzeko ondo etorri zaie asko izatea, baina dantzarako, aldiz, txiki geratu zaie herriko plaza.

Martitzeneko argazkia

Kantu-eskean bai, baina oroitzapen gisa gordetzeko argazki ugari ere atera dituzte egunotan.



Luis Ezeiza herri eskolako patioan. HAIZEA ARANA



I.B

Aranburuzabala kalean espaloia

Aranburuzabala kaleko 42. atariaren alboan, Edurne estetika zentroaren ondoan, espaloia zatia jartzen ari dira egunotan.

Lehen, asfaltoa bakarrik zegoen gune horretan, zebra bide batekin, eta orain, espaloia jarrita, oinezkoek behar bezala pasatzeko aukera izango dute.

Laugarren postura heldu eta mantentzeko nahian

Sei jardunaldiren faltan, bosgarren postuan daude Eskoriatzako areto futbol taldeko neskek, eta bigarren postuan dagoen Lauburu taldearen aurka jokatuko dute etxean, 16:30ean, zapatuan. Hala, garaipena lortu nahi dute goiko postuetara hurbiltzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Sei partidu geratzen zaizkie denboraldi honi amaiera emateko Eskoriatzako areto futbolako senior mailako emakumezkoiei. Helburua sailkapeneko lehen lau postuetan geratzea dela adierazi du Ander Romero entrenatzaileak: "Taldea ondo ari da jokatzeko. Azken partiduan, liderraren etxean jokatu eta hutsegite bakarria izan genuen. Hori aprobetxatu, eta gola sartuta irabazi ziguten. Horrenbestez, esan daiteke ondo jokatzeko ari garela. Hala ere, bosgarren postuan gaude, eta gure helburuak izan behar du laugarren postura heltzea eta, behintzat, hor mantentzea".



Eskoriatzakoak jokoan. IMANOL SORIANO

Etxean, bigarrenaren aurka

Lauburu taldearen aurka jokatu dute zapatu honetan, 16:30ean, Manuel Muñozen, eta ahalegin guztiak egingo dituzte irabazteko. Hain zuzen, zaleen animoak ere eskatu nahi izan

ditu entrenatzaileak: "Ondetorriak izaten dira zaleen animoak, eta horren beharra beti izaten da. Hori horrela, zapatu arratsaldean kiroldegira joan daitezeko eskatu nahi diet zaleei; izan ere, partidu hori irabazten

badugu, pauso handia eman dezakegu".

Aurreko asteburuan, atsedenaldia izan zuten, eta etxeko lanak ganoraz egiten aritu dira adierazi du Romerok: "Ondo prestatzen aritu gara astebururako. Jokalari bakarraren falta izango dugu, baina beste guztiak sasoiaren eta irabazteko prest daude".

Emakume faltan

Talde sendoa izan arren, jokalariei gehiagoren beharra ere badute, eta areto futbol probatzeko dei egin du Ander Romerok: "Astelehenean 21:30ean eta eguenetan 19:45ean entrenatzen gara, Manuel Muñozen. Orduetgia ez da onena, baina areto futbol ezagutu nahi duen edonor gonbidatuta dago bertara etorri eta probatzera. Hurrengo denboraldiari begira, ederto etorriko litzaiguke jokalariei berriak izatea taldean; horrenbestez, animatu!".



Kanpandorre azpian Nafarroako bandera. GATZA CITY CREW

Kontzientzia historikoaren garrantzia azpimarratuko dute

Martin Ttipia elkarteko Iñigo Larramendik hitzaldia eskainiko du astelehenean, 19:00etan, liburutegian

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Nafarroari buruzko zikloaren barruan, *Nafarroa euskal estatua. Baina... zer dela eta, Erdi Aroko kontu bat 2019an* izeneko hitzaldia eskainiko du astelehenean, 19:00etan, Martin Ttipia Elkarteko Iñigo Larramendik, herri liburutegian.

Asmoa, galderak planteatzea

"Hitzaldian, historia baino gehiago, kontzientzia historikoa mintzatuko gara; erantzunak eman baino gehiago, galderak pizten saiatuko gara", adierazi du Larramendik. "Gogoeta ba-

retik abiatuko gara, munduko estatu eta nazio ezberdinek erren kontzientzia historikoa bizi eta erakusten duten moduaren inguruan, eta honek zer adierazten duen. Jarraian, euskal subjektu politikoa deitu dugunaren bilakaera historikoa jorratzen saiatuko gara. Amaitzeko, errealitate historiko honen ezagutzarik eza dela eta, egunero eztabaida politiko nahiz sozialean erabiltzen ditugun hainbat kontzepturen manipulazioaz eta agerizko faltsutzeaz jardungo dugu. Asmoa da hauek identifikatzea eta kontzientziatzea.

GORA ETA BEHERA



MIREIA BIKUNA

Zorua hondoratuta dago museora bidean

Gatzagako bizilagun batek adierazi duenez, denbora dezente darama Gatz Museoko bideko zorua hondoratuta. Ezbeharririk gertatu aurretik konpontzeko eskatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



I.B

Zale ugari bizikleta-desafioan

Iker Eskibel eta Ekaitz Oñate eskoriatzarrek desafioa izan zuten pasa den egubakoitzean. Apustua Arlabango mendatean egin zuten, Aingeru Guardatik hasi eta Dorletako Ama Birjina pareraino. Eskibelek hanka bakarrean igo zuten —hanka aldatzeko

aukerarekin— eta Oñatek biak erabilia igo zuten. Gutxiatik izan zen Oñate garaile, baina horrek ez zuen garrantzi handirik izan zaleentzat. Izan ere, ikusle ugari izan ziren biak animatzen, eta, amaitzean, talde argazkia ere atera zuten Dorletako Ama Birjina parean.



Efemeride batek erein zuen hazia herritarrek loratu izanarekin "pozik"

750. urteurrena "oso aberatsa, oparoa eta emankorra" izan da, Udal Gobernuaren ustez, eta urte osoan herritarrek egindako "lan handiak" etorkizunerako bideak ireki dituela dio; 2017. eta 2018. urteen artean Udalak 161.968 euro gastatu ditu ekimenean

Jokin Bereziartua BERGARA

Askorako eman du Bergarak hiri-gutuna jaso zuela gogora ekartzeko 750. urteurrenak. Elena Lete alkatearen arabera, "oso aberatsa, oparoa eta emankorra" izan da urte osorako ekimena: "2018ak 365 egun izan ditu, baina gehiago bizi izan ditugula dirudi. Herritarren inplikazioa handia izan da, lan asko egin da, ilusioz. Eskerrak eman beharrean nago". Herritarren inplikazio horren adibide gisa urteurrenaren bueltan sortu ziren batzordeak kokatzen ditu Letek: mahai historiko-zientifikoa, garapeneko, hezkuntzako, kulturako eta kirolakoa.

Herritarrek "ureztatutako" hazia

30 ekitalditik edota ekimenetik gora jasotzen duen zerrenda ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko: irailaren 29ko San Martin plazako kontzertua izan zen ekitaldi jendetsuena, ikuskizun "errepikaezin" horretan modu zuzenean 350 bat herritarrek hartuz zuten-eta parte. Bide batez, Udalak gogora ekarri du kontzertu hori jasotzen duen DVDaren -2.000 kopia atera zi-



Moñux, Arin, Mellado, Lete, Gonzalez Chirlaque, Unamuno eta Baskaran, martitzenean. J.B.

ren- ale batzuk oraindik liburutegian jaso daitezkeela.

Gotzon Arzelus bergararrak erein zuen hazia, baina, Arzelusek berak azpimarratu duenez, herritarren inplikazioari esker izan da posible: "Hazi bat erein nuen, bai. Baina fruituak eman baditu izan da beste batzuk landatu eta ureztatu dutelako hazi hori". Arzelus oso pozik dago urteurrenak herri barrura begira eman duenarekin, eta hor herritarren partaidetza nabarmentzen du, baina aran-

tzatxo bat geratu zaio kanpora begirako zabalkundearekin. Uste du helburu hori "hankamotz" geratu dela, hein batean. Hain zuzen, Bergarak *Historic Site* izendapena jaso izana izan zen kanpora begirako ekitaldirik aipagarriena.

Herri barrura etorrira, kirol arlotik eta gizarte parekide bat jomuga, Bergara Hiria txapelketek aipamen berezia merezi dute. Pilotan, hockeyean, txirrindularitzan, futboleak, eskubaloian eta saskibaloian ema-

"Sozioekonomikoki eta kulturalki bultzada bat ematea zen helburua"

GOTZON ARZELUS URTEURRENA ANTOLATZEAREN IDEIA IZAN ZUENA

2012an "ekintza-plan posible bat" aurkeztu zuen Udalean eta 2018an gauzatu zen 750. urteurrenaren hazia izango zena.

Nola sortu zitzaizun ideia? 2011n batzar bat izan nuen abizenez Bergara zen Kolonbiako Gobernuko goi-kargu batekin. Batzarra bukatu ostean, aukera baliatu nuen bergararra nintzela esan eta nire jaioterriaren gaineko informazioa emateko. Erabat hunkituta, esan zidan ezin zela hil Bergara bisitatu gabe. Krisi ekonomiko betean geunden orduan, eta pentsatu nuen kanpotar hauek guztiak gure herrira hurbilduko balira eta diru apur bat utzi... Hari horri tiraka, konturatu nintzen 2018an Bergararen sorrerak 750 urte betetzen zituela; horregatik, 2012an Udalean aurkeztu nuen Bergara abizena zuten pertsonak herrira erakartzeko ekintza-plan posible bat.



GOIENA

Hiri-gutunaren efemeridea aitzakia bat izan da orduan?

Bai. Helburua hasieratik izan zen sozioekonomikoki eta kulturalki herriari bultzada bat ematea. **Eta? Pozik emaitzarekin?** Nork bere ikuspegia izango du, nork bere espektatibak izango zituen. Oso pozik nago, ekimen parte-hartzailea izan delako. Betirako geratuko den materiala sortu da, eta horregatik ere oso pozik nago. Hori bai, pena daukat, kanporako zabalkundea hankamotz geratu delako.

kumeen lana bistartzeko antolatzen diren txapelketa horiek datozen lau urteetan ere antolatuko dira; izan ere, Udalak hitzarmen bat sinatu zuen kirol klubekin.

Ikerketa sozioekonomiko berria

Iraganeko efemeride batetik abiatutako ekimen erraldoi honen, balorazioa egiteko agerraldian azaldu zuten, etorkizunera begirako "hainbat erronka" utzi ditu ondorio moduan. Erronka horien artean, garapen mahai-

tik eratorritako ikerketa sozioekonomiko berria dago. Hain justu, 2019rako aurrekontuan 29.000 euroko partida bideratu du Udalak eta azterketa hori ze enpresak egingo duen jakiteko adjudikazio prozesuan dago proiektua. Izan ere, 1970eko hamarkadan egin zen diagnostikoa eguneratu beharra dagoela uste du Udal Gobernuak.


Belaunaldi berriei begirako lana

Etorkizunerako asmoen artean dago, era berean, Herri Curri-



VALEN MOÑUX IRAILAREN 29KO KONTZERTUKO ESZENA ZUZENDARIA

"Oroitzapen polita gordeko dut betirako eta uste dut partaideek zein ikusleek ere hala egingo dutela. *Errepikaezina* izatearen eslogana ez zitzaidan larregi gustatu; uste dut aukerak egongo direla errepikatzen".




PILI ARIN ATLETISMOAREN GAINEKO ERAKUSKETAREN EGILEA

"Erakusketarako lan zailena duela 50 urteko jendea identifikatzea izan zen. Eta ederrena izan zen 50 urteren ondoren berriz elkartzea: zelako laztanak, besarkadak, anekdotak... Egun zoragarria pasatu genuen, bai horixe".



MARIAN MELLADO BERGARA KIROL ELKARTEKO SASKIBALOI SAILA

"Gure erronka da kadete mailaz harago neskek jarraitzea. Eta horretarako oso garrantzitsua da IDK eta Logroño Promete moduko taldeak etortzea, erreferenteak direlako. Egun oso polita izan zen".



MIREN JOSUNE BASKARAN BURDINOLA IRRISTAKETA ELKARTEA

"Arreta eta laguntza handia jaso genituen. Batzuk jakin-minez etorri ziren eta beste batzuk, parte hartzeri. Hau hasi besterik ez da egin; hockeya oso ezezaguna da hemen, baina gure asmoa da lanean jarraitzea".

750. urteurrena eurotan

Gastuen zerrenda	EURO
Irailaren 29ko kontzertua	34.860,00
Laboratoriumeko erakusketa	26.525,17
Komunikazio kanpaina	19.039,59
Bergarako historiaren sintesia	15.353,75
Bergara Hiria txapelketak	14.577,30
Egutegia eta poltsak banatzea	13.939,20
Bergarako erraldioen ipuina	11.680,00
Wolfram goxoaren ekimena	7.397,63
Aritzeta ikerketa arkeologikoa	3.846,00
Musika bandaren disko berria	3.087,58
Kirol argazki zaharren erakusketa	3.000,00
Reala-Osasuna futbol partidua	3.000,00
Pintxo lehiaketa	2.000,00
Historiako hitzaldi sorta	1.750,00
Euskal wikilarien elkarte	1.270,00
Herribusean errotulua jartzea	641,30
Guztira	161.967,52

OHARRA: GASTUEN ZERRENDA 2017. ETA 2018. URTEEI DAGOKIE

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

culuma lantzearena: "Gutaz eta herriaz dakiguna belaunaldi berriei zabaltzea da asmoa". Herri Curriculumaren barruan, besteak beste, unitate didaktikoa sortzea aurreikusten dute; 21.000 euroko partida bideratu du Udalak 2019an helburu horretarako. Bestalde, mahai-jolas bat sortzea eta Wikipedia elikatzea ere badago belaunaldi berriei begirako asmoen artean.

Horrez gain, etorkizunerako beste proiektu batzuk ere badiu Udalak: herriko historiaren gaineko hitzaldi programa berri bat antolatzea; diasporan Bergararekiko interesa dutenekin harreman estuagoa izateko *Ver-Bergara* ekimena indartzea; eta *Historic Site* izendapenari sona emateko erremintak lantzea.

Zabala fatxadarendako lekua

Bestalde, hainbat urtez gordeta daroatzen Zabala fatxada neoklasikoa albiste izango da aurtun. Gogora ekarri behar da Elhuyar anaiek 1783an wolframa isolatu zutela Bidekurutzeta kalean zegoen antzinako Zabala etxean, eta Jose Antonio Zabala alkateak eskatu zuela

fatxada Bergarara itzultzea, 1919tik desmuntatuta eta gordeta zegoelako Donostian. "Garapen mahaian oso garrantzitsua zen elementua dela ondorioztatzen eta baita aprobetxatu beharra dagoela oso ondo zainduta dagoelako. Balio historiko eta arkitektoniko handiko elementua da eta ondo pentsatu behar da non muntatu behar den. Behin erabakita non joango den, muntaketa lanetarako proiektua garatuko dugu, 2019an zehar", aurreratu du Letek.

Bergarako euskara lantzeko aukera, Udal Euskaltegiaren eskutik

Bergarako euskara lantzeko aukera egongo da otsailaren 25etik martxoaren 8ra arte. Helburuak bi dira, nagusiki: batetik, guraso, zaintzaile, begirale, entrenatzaile, eta abarrei euren hizkuntza-akatsak zuzentzen laguntzea; eta, bestetik, umeen akatsak zuzentzeko helduek erabil ditzaketen estrategia lagungarriak eskaintzea. 16 urtetik gorako edozein herritarrek har dezake parte, baina aurrez eman behar da izena, otsailaren 11tik 15era.

Izena emateko agiriak Irizar jauregian dagoen Udal Euskaltegian jaso daitezke (943 76 44 53 / berg.zuzendaria@euskalnet.net). Ikastaroa hamar ordukoa da eta prezioa, 15 euro.

Valdezcarayra eski irteera egingo dugu, DBHko gazteei begira

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten gazteei begira, eski irteera antolatu dugu otsailaren 23rako, zapatua. Goizeko zazpitan irtengo gara autobus geltoki nagusitik eta egunean bertan bueltatuko gara, 20:00etarako. Otsailaren 18ra arte eman daiteke izena eta interesatuak Jardunen bulegora etorri beharko dute (943 76 36 61 / 605 71 24 69). Izan ere, gazteek behar duten materialaren araberakoa izango da irteeratik ordaindu beharrekoa. Ez galdu aukera paregabe hau eta animatu elurraz gozatzera!

GORA ETA BEHERA



O.E.

Farol guztiak piztuta ere, argi gutxi oraindik



Bi faroletik bat piztuta egon da denbora batez Labegarrietan; orain, guztiak daude piztuta, baina argi gutxi ematen dute. Bidearen bestaldean dauden argi zuriak jartzeko eskatu du auzotar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

OHARRAK

Pol-Pol: irteera bihar eta batzarra hilaren 18an

Bergara eta Eibar arteko goizeko ibilbidea egingo dute bihar. 08:00etan elkartuko dira, frontoian. Bestalde, otsailaren 18an batzar orokorra egingo dute San Pedro kaleko egoitzan (19:00).

Domeka Azoka etzi, seminarioko patioan

Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko azoka etzi egingo da, seminarioko patioan, 11:00etatik 14:30era. Bigarren eskuko produktuek eta bertako artisauek dute lehentasuna.

Uberako zozketako irabazlea, hilaren 15era arte

Saria da Tartufon bi lagunendako bi bazkari, eta zenbaki saritua da 151. Otsailaren 15era arteko epea dago; zenbakiaren jabeak gorkaburuaga@gmail.com-era idatz dezala. Ordezko zenbakia: 955.

Mariaren Lagundia: gurasoendako hitzaldia

Otsailaren 19an eta 26an elkartuko dira, 17:30etik 19:30era, gurasoekin askotariko lanketak egiteko. Izena eman daiteke gaur hasi eta hilaren 15era bitartean: 943 76 25 41.

Orain Presoak: batzarra otsailaren 20an

Irizarren (18:30) elkartuko dira 2019rako erronkak zehazteko.

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



2017ko urtarrilaren 16an mugitu zen mendi-hegala egonkortzeko lanak hiru fasetan egingo dira, "lehenbailehen" hasita. B.U.

Malda egonkortzeko, hiru fase eta 612.315 euro

Duela bi urte mugitu zen Boluko mendi-hegalaren azpian pantaila metaliko bat jartzeko lanak "lehenbailehen" hasiko dira, eta udan helduko diete hegala bera egonkortzeko lanei; hirugarren fasean, epe luzera begira, mugitutako eremuaren gainean hasiko dira lanean

Jokin Bereziartua BERGARA

Boluko malda egonkortzeko lanean ari da Udala, 2017ko urtarrilaren 16an mendi zati bat behera etorri zenetik. Ingek SLP enpresak gunearen azterketa geologikoa eta geoteknikoa egin zuen, edozein interbentzioren aurrean izan zitezkeen arriskuak neurtzeko. Gero, 2018ko martxoan, Udalak Ingek eta Sestra enpresei mendi-hegala egonkortzeko proiektuaren idazketa esleitu zien.

Lehena, pantaila metaliko bat

Lanon helburua da mugitutako mendi-hegala egonkortzea, bi eremutan –mugitu zena eta haren gainekoa– segurtasun neurriak areagotzea eta bidegorri-pasabidearen plataforma egokitzea. Horretarako, hiru fase aurreikusten dira: lehen fasean, mugitutako hegala parean dagoen pasabidearen platforman segurtasunerako pantaila metaliko bat ezarriko dute; 3S Geotech enpresa kontratatu dute horretarako

eta "lehenbailehen" hasiko dira lanean (33.380 euro). Bigarren fasean, mugitutako hegala egonkortuko dute, eta lanak uda partean hastea dago aurreikusita; mikropiloteak sartuko dira eta ura bideratzeko kanal bat sortu, besteak beste (456.201 euro). Gainera eremua egonkortzeko lanak epe luzera begira daude aurreikusita (122.734 euro). Hiru faseen aurrekontua 612.315 euro da.

Elena Lete alkateak atzoko agerraldian esan zuen hasieratik ingurune horren gainean egon direla: "Etengabeko jarraipena egin diogu, edozein mugimendu gertatuz gero, berehala erantzuteko. Sare dinamikoa ere ezarri genuen, eta sare horrekin segurtasuna %100ean bermatzea lortu".

**AZKEN LUR-JAUSIA
URTARRILAREN 31N
GERTATU ZEN; HAMAR
METRO KUBIKO
INGURU ERORI ZIREN**

Azkena, urtarrilaren 31 gauean

Azken lur-jausia urtarrilaren 31tik otsailaren 1erako gauean gertatu zen; hamar metro kubiko inguru behera etorri ziren. "Eguen arratsaldean eremua ondo zegoen, baina 19:00etatik 00:00etara euri mordo egin zuenez, uste dugu horrek eragin zuela lur-jausia. Zorionez, sareak bete zuen bere funtzioa; egubakoitzean hasi ginen hamar metro kubiko horiek kentzen eta, espero baino askoz gehiago kostatu arren, iluntzerako garbitu genuen guztia", adierazi du Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik.

Gobernuaren arabera, obrak hasteko moduan daude dagoneko: "Eremuari behin betiko soluzioa eman ahalko diogu. Lur-jabeekin hitzarmena sinatzeraz goaz eta zabalduko dira eremu horri bestelako erabilera emateko aukerak". Horien artean, Gobernuak erabilera publikorako ortu batzuk egokitzeko du aurreikusita.



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Sanchezen politika, hilobira

Venezuelako gertakariak mundu guztia dar-dar jarri dute eta entzuten ari garen hitz-jario lotsagarriak, beldurra eta nazka sortu ere bai. Hauteskundeak ez omen ziren fidagarriak izan. Horra Rodrigo Zapateroren erantzuna: "Garbiak ez direla izan esaten dutenak arduragabeak dira, aurreiritziak eragindako dogmatikoak. Ondorio beldurgarriak gerta daitezke. Lotsagarria eta injustua da...". Komunikabideak mutu. Estatu Batuetako presidentek, Venezuelako Maduro bota edo seko hil, eta Guaido, Ipar Amerikako Inteligentzia Zerbitzuak hezi eta ipinitako figura karguan ezarri du. Europan, eta Espainiako Sanchez prozesioan lehena, Trump jaunaren turutari erantzunaz tropelean sartu dira Venezuelako Maduro hankaz gora jaurti nahian. Hipokrita guztiak jendarmearen batuta azpian.

Herriak bozkatu ez duen Sanchez presidentek Guaido Venezuelako presidente izendatu du, Zapaterori entzungor eginaz. P(SO)E, ahula bazegoen, orain lurrean hobia egiten ari da. Sanchezen karrera politikoa amaitu da. Pena ematen didate, sozialisten artean, SO sigla maite eta bizi dutenek.

Greba feminista antolatzeko Martxanteren deia hilaren 11rako

Egun osoko grebarako bidea "elkarrekin" egiteko, bilera antolatu dute; Irizar jauregian elkartuko dira, 19:00etan

J.B. BERGARA

Martxantere deituta, Martxoaren 8ko egun osoko greba feminista antolatzeko bilera egingo dute hurrengo martitzenean, hilak 11, Irizarren (19:00): "Elkarrekin egingo dugu greba feministarako bidea!". Debagoieneko feministak –Eibarkoekin eta Soralezuekoekin batera– elkartzen ari dira, iaz moduan, "ekintza bateraturen bat" egiteko. Hala ere, otsailaren 11ko saioa herrira begira dago bereziki bideratuta: "Bergarako egitaraua zehaztea eta lanak

banatzea izango da helburu nagusia". Lau lantalde sortu dituzte: komunikazioa, logistika, egitaraua eta koordinazioa.

Emakume berriak erakarri

Martxantere emakume berriak erakarri gura dituzte: "Bileretara ohituta dauden emakumez gain, beste batzuekin ere kontaktu nahi dugu. Gaia mugitu nahi dugu, bereziki kalean; ama batzuk, akaso, ezingo dira bilera etorri, baina, igual, guk joan behar dugu guraso elkarrekin, adibidez".

Urteaga kaleko sarrera itxita bihar arte, autobideko lanengatik

Bergara eta Antzuola arteko autobideko lanak direla-eta Diputazioak jakinarazi du herri-rako sarrera itxita egongo dela Urteaga kaletik. Hau da, GI-632 errepidea itxi egingo dute gaur, egubakoitza, 09:30ean, eta bihar, zapatua, 18:00etan irekitzea da asmoa. Hala, Bergarara sartzeko, GI-632ko hegoaldeko sarbidea erabili beharko da.

Gorka Artola alkategai moduan aurkeztuko du gaur EH Bilduk

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako alkategai izango duen Gorka Artola bergararra herritarren aurrean aurkezteko ekitaldia egingo du gaur EH Bilduk, Irala kalean gaur bertan irekiko duten EH Bilgunean (20:00). Musika, jatekoa eta edatekoa egongo dela aurreratu dute. Artolak 29 urte ditu eta zinegotzi da Udalean 2015etik.



Aitor Zabaleta, aste barruan, Bergaran duen tailerlean. JOKIN BEREZIARTUA

"Pozoia edo... zaletasun hau barruan daramagu"

Aitor Zabaletak Federazioaren eskutik Euskadiko Mendiko Txapelketako irabazlearen garaikurra jaso zuen joan den astean Gernikan. 2019an ere errepidean izango da, eta Lola BMW autoari motor handiagoa jartzekotan dabil, lehiakorrago izateko

Xabier Urzelai BERGARA

Aitor Zabaletak berak ere ez du jakingo zenbatetan irabazi duen Euskadiko Mendiko saria -30 urte daramatza gaur egungo autoarekin lehian-. Lola BMW autok ez du kontrariorik, gaur egun ez da eta halako barketarik ikusten inguruan, baina CM autoak geroago eta gertuago ditu, eta ez pentsa bergararrak borroka hori galdu gura duenik: "Araudian auto horien aldeko berrikuntzak sartzen dabilta, eta auto horiek dituztenek geroago eta motor handiagoak erabil ditzakete, pisu gutxiago dute... Geroago eta azkarragoak dira, labor esanda. Aurten, oso borroka estua izan dut eurekin, eta lehiakor izaten jarraitzeko ni ere banabil pentsatzen zer egin dezakedan, motor handiagoa jarri edo... ikusiko dugu".

Zabaletarena moduko autoen urrezko garaiak 90eko hamarkadan bizi izan zituzten -igoerretakoak, orokorrean-, baina Bergarako beteranoak aurten

hainbatetan erakutsi du lasterketetara ez doala paseatzera. Hain zuzen, Udanako eta Jaizkibelgo errekorrak ondu ditu aurtengo denboraldian: "Asfaltoaren egoerak zeresan handia izaten du, aspaldian pinua atera eta errepidea zikin utzi duten, zuloak ote dauden... Autoa ez da aldatu, eta ni ere geroago eta zaharragoa naiz, baina eusten ahalegintzen gara".

Mendate batzuk, txarto

Errepideen egoerari dagokionez, pena ematen dio Gorla, egun, horren txarto ikusteak: "Lursailen jabeek pinua atera behar dutela? Nik hori ulertzen dut, baina gero, utzi dezatela errepidea lehen zegoen moduan".

"FUTBOLEAN BALOIAK ZERESAN GUTXI DU, BAINA KIROL HONETAN AUTO ONA EZINBESTEKOA DA"

Dena dela, asfaltoaren zikintasunarekin batera, Gorlak arazo gehiago ditu: zuloak, asfalto gastatua... "Eta pena da, mendate ederra delako. Zer esango dut, etxekoa izanda, baina oso igoera konpletoa da: tramu azkarrak, motzak, zati teknikoak, paellak, bihurtuak bai eskumatara eta bai ezkerretara...".

Belaunetik errekeratzen

Orain, belaunean egindako ebakuntza txiki batetik errekeratzen dabil bergararra, baina horrek ez dio 2019an buruhausterik sortuko: "Meniskoa nuen apurtuta, baina oso ondo errekeratzen nabil, eta ilusioa dugun bitartean hor jarraituko dugu. Autoa gurea da, ez diogu inori ezer zor eta mantentzea ere guk egiten diogu. Babesleak ere iristen dira poliki-poliki eta autoko gastuak mantentzen laguntzen digute; horrenbestez... Ez dakit *pozoia* den berba egokiena, baina kirol hau odolean daramagu".

Ruiz de Larramendi eta Zubizarreta ere finalerdietan

Martitzenean, Soralue Lau eta Erdiko kanporaketako bi partiduetan parean egon ziren indarrak

X.U. BERGARA

Soraluce Lau eta Erdiko txapelketa finalerdietan dago jada, eta martitzeneko kanporaketan Ander Ruiz de Larramendi eta Iraitz Zubizarretak egin zuten aurrera.

Lehenengo partiduan, Ruiz de Larramendik Ander Etxaniz bergararra izan zuen aurrean (22-18). Lazkaoko pilotariari erregulartasuna falta izan zitzaion; berez, Bergarakoak baino huts gehiago egin zituen -8, guztira-, baina tantoak egiten ere asmatu zuen -12, guztira-. "Ruiz de Larramendik indar handiko pilotaria dela erakutsi zuen, eta horri esker nagusitu zen. Etxanizek, kontrara, partidu hasieran ondo eutsi zion lazkaotarrari, baina luzea egin zitzaion norgehiagoka, nekatu egin zen sentsazioa eman zuen eta ezin izan zion kontrarioari

eutsi. Dena dela, ofizio handiko pilotaria dela erakutsi zuen", adierazi du BKEko ordezkari Julen Aranburuk.

Bigarrena, partidu bizia

Arratsaldeko bigarren norgehiagokan, Iraitz Zubizarreta eta Aitor Etxebarria izan ziren zein baino zein gehiago: "Partidu bizia izan zen, eta ikusteko polita. Joan-etorri handiko norgehiagoka izan zen, eta esanenez gipuzkoarraren ofizioa eta bizkaitarraren indarra egon zirela aurrez aurre". Hala, oraingoan, ofizioak irabazi zuen. Iraitz Zubizarretak 15 tanto egin zituen eta haren kontrario Etxebarriak, 13; gainontzeko tantoak kontrarioaren hutsete bidez etorri ziren.

Hain zuzen, emaitza horiekin, txapelketa fase erabakigarrian sartuko da datorren astean.

Otsailaren 18rako ezohiko batzarra deitu du Pol-Polek

Bergarako mendi taldearen lokalean egingo dute ezohiko batzarra hilaren 18an (19:00). Batzarrean landuko den gai zerrendan daude estatutuak eguneratzea eta barne araudiaren gaineko proposamenak aztertzea. Horren harira, zuzendaritzak jakinarazi du informazio osoa Pol-Poleko webgunean egongo dela zintzilik, *Pol-pol.net* helbidean.

Saskibaloian bosgarren garaipena gura dute jarraian

Gipuzkoako bigarren mailan diharduen Bergara Soralue taldeak Easo hartuko du zapatu arratsaldean Labegaraietan (18:00). Donostiarrak aurretik daude sailkapenean, baina Bergarakoak atzetik aurrera datoz, eta zelan, gainera. Izan ere, azken lau partidua jarraian irabazi dituzte mahoneroek, eta bosgarrena gura dute.

Eskubaloiko taldeak hiru puntura dagoen Donibane hartuko du

Joan den astean, Soralue BKE taldeko mutilek gol bateko aldeagatik irabazi zioten Egiari (25-26). Hala, garaipen horrek ematen duen hauspoarekin hartuko dute, bihar, sailkapenean postu bat atzerago dagoen Donibane (16:00, Labegaraieta): "Donibane talde oso fisikoa da eta defentsako lanean egongo da garaipeneko gakoa".

Galarra kobara irteera prestatu dute martxoaren 2rako

Otsailaren 25etik martxoaren 2ra egingo den Mendi Astearren barruan, Galarra kobara irteera prestatu du Pol-Polek. Koba hori Arrasateko Meatzerreka auzoan dago -ordu eta erdiko buelta izango da-. Lokatzetan ibiltzeko arropak, kaskoa -bizikletakoak balio du- eta argi fokua eraman behar dira: *pol-pol.menditaldea@hotmail.com*.



Amaia Santamaria artista Bearteko lokalean, sortzen. GOIENA

Eskulturaren ertz guztiak ezagutzeko tailerra

Amaia Santamaria artistak eskainiko du 'Eskultura eremu hedatuan' ikastaroa. Bi hilabete eta erdi iraungo du eta egubakoitzetan izango da, 17:30etik 20:30era bitartean. "Gustuko dutenarekin disfrutatzeko aukera" eskaini nahi du

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Beartek antolatuta, *Sorkuntza artistikoa* ikastaroa egiten dabiltza ikasturtean zehar; hala, ikastaro horren baitan, *Eskultura eremu hedatuan* atala hasi behar dute datorren barikuan, hilaren 15ean. Amaia Santamaria izango da irakaslea, eta eskultura gainontzeko diziplinekin erlazioan jarri nahi dutela dio: "Eskultura beste diziplinekin erlazioan dugu, ez dugu isolatuta ikasiko".

Hainbat teknika landuko dituztela dio, "ikasleek aukera guztiak ikus" ditzaten eta "gustuko dutenarekin disfrutatzeko aukera" izan dezaten.

Nori zuzendutako tailerra

Sorkuntza artistikoa tailerrarekin hasi zirenean, pintura arloa landu zuten lehenengo: "Zortzi laguneko taldea dugu, eta denetarik dago: erretiratuak, eta baita 17 urtekoak ere", dio, eta gaineratu du ez dela aurretiko esperientziarik behar: "Denetik

dago: interesa dutenak, baina aurretik inon ibili ez direnak; eta baita esperientzia handia dutenak, baina pintura klasikoan bakarrik".

Eskulturari buruzko tailer hori helduei zuzendutakoa izango da eta edonork parte har dezake. Interesa duenak beartelkarte@gmail.com helbidera mezua idatz dezake, edo Santamariari deitu, 690 25 14 50 telefono zenbakira.

Tailer horrek bi hilabete eta erdi iraungo du eta ondoren beste diziplina batzuekin hasiko dira: "Argazkigintza eta bideo-sorkuntza tailerrak egingo ditugu ondoren, denak erlazioan jartzeko", azaldu du Santamariak.

IKASLEAK PROZESUAN KOKATZEA NAHI DU, ETA SOR DAITEZKEEN EMAITZEI ZABALIK EGON DAITEZELA

Egingo dituzten saioak

Santamariak dio "zaila" izaten dela eskultura bat hutsetik hastea. Horregatik, ariketa bat planteatuko du, eta ikasleek sorkuntza prozesua aktibatzen saiatuko dela: "Libre utziko diet, sorkuntza prozesu horretan koka daitezten". Izan ere, Santamariaren esanetan: "Askotan, emaitzara aurreratu egiten gara".

Irakasleak nahi duena da: "Ikasleak prozesu horretan koka daitezela, eta ez daitezela aurreratu emaitzari. Zabalik egon behar dute ezusteko emaitzei".

Etiketetik zerbait eroateko eskatuko die: "Paper ezberdinak, oihal zatiak, kateak... ikusiko dugu zer sor dezakegun horrekin". Horrez gain, collageak egingo dituzte; alginato materialarekin gorputzeko moldeak egingo dituzte; argizariarekin, materialei forma eman eta gogortu egingo dituzte... Eskultura bere osotasunean ezagutzeko aukera izango dute, eta gainontzeko diziplinekin erlazioan.

Amodiozko 266 esaldi jaso dituzte, inoiz baino gehiago

Jardunek antolatutako lehiaketaren sari banaketa ekitaldia otsailaren 14an egingo dute, Irizar jauregian

A.E. BERGARA

Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketa iritsi da amaierara. Lanak bidaltzeko epea amaitu da; eta, horren ondorioz, datorren astean, otsailaren 14an, egingo dute sari banaketa ekitaldia.

Esaldien lehiaketa hirugarren aldiz antolatu dute aurten, eta inoiz baino esaldi gehiago jaso dituzte Jardunen: "266 jaso ditugu, kopuru polita. Iazko edizioan 176 izan ziren eta lehenengoan, 41", azaldu du Jarduneko kide Maitane Arizabaletak. Batxilergoko ikasleek osatutako

epaimahaiak aukeratuko du zein izango den esaldi onena, eta 100 euroko saria jasoko du.

Gutunen kasuan, 91 lan jaso dituzte Jardunen. Horiek Euskal Herriko hainbat txokotatik bidalitakoak dira; bailarakoak 30 dira eta Bergarakoak, 23. Gutunen sailean, sariak izango dira: lehenengoak 500 euro, bigarrenak 250 euro, bergarar onenak 150 euro eta 26 urtetik beherakoen saria 150 euro. Sari banaketa ekitaldia eguenean izango da, otsailaren 14an, 19:00etan, Irizar jauregian.

'Azpijokoa' duten filmak

Dynamo zineklubak *azpijokoa* gaia aukeratu du otsaileko emanaldietarako. Hilaren 13an, *Los tres días del Condor* filma eskainiko dute, Robert Reford eta Faye Dunaway aktoreena; hilaren 20an, *Dark City*—Rufus Sewell—; eta hilaren 27an, *Dos buenos tipos*, Russel Crowlerena. Emanaldiak 21:00etan izango dira, kartzela zaharrean.



FILMAFFINITY



ANDONI GOITI

Bergarako erraldoiak, Castellon

Borriana—Castello— herriko kiliki eta erraldoien topaketan parte hartu dute Bergarako erraldoiek asteburuan: lau erraldoi handirekin, ertain batekin eta *Felixin*-ekin eta *Guti*-rekin joan ziren Valentzia aldera. Horiez gain, Bergarako trikitalariak eta Arrasateko dultzaineroak ere joan ziren; 25 lagun, denera. "Oso txalotuak" izan ziren Bergarako erraldoiak.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoziuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Industrializazioaren hazia, herriko larrugintza

Antzuolako larrugintzaren sektorea herriak egun duen kultura ondare nagusienetako bat da. Hori azaleratzeko eta ondarearen transmisioan eragiteko, otsailaren 16an, 09:30etik 12:30era, antzuolarrekin hausnarketa saioa egingo dute, Oларanen

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bi mendez Antzuolako motor ekonomikoa larrugintza izan zen. "Hemengo aurre-industrializazioa larrugintzarekin lotuta dago. XVIII. mende bukaeratik 1990era arte bizirik egon den jarduera bizi eta garrantzitsua izan da", azaldu du Iñigo Ramirez de Okariz historialariak.

Industrializazioaren eragina

Garai oparoenean, lau larru fabrika egon ziren. Baina industrializazioak ekarri zuen haien itxiera. "Nekazaritzaren beherakadak eta plastikoaren sorrerak ekarri zuen larrugintzaren desagertzea. Metal arloko enpresak ere sortu ziren herrian".

Larrua ontzen

Jose Angel Arbuluk eta Basilio Ormazabalak larrua ontzen jardun dute, familiako tradizioari eutsita. Lan gogorra dela aitortu dute: "Meritu galanta zuten. Gogoratzen dugu beti gaixo zeudela. Oso lan gogorra eta umela zen eta bronkitisa harapatzen zuten. Lehenengo, larrua tratatzen eta garbitzen zen. Haragi zatiak kendu, eta, ondoren, haragi hori kola egiteko erabiltzen zuten kola-fabriket". Bigarren fasean, ondutako larruari forma ematen zioten. "Tellerian



Larrugintzaren ondarea transmititzen diharduten zenbait eragile. MAIDER ARREGI

egiten zuten eta emakumezkoak aritzen ziren josi eta josi. Ganaduarendako edo zalditeriarendako uhalak, eskolarako motxilak... Batez ere, gerra saoirako material asko egin zen hemen".

Kulturaren transmisioa

Herriko kultura ondarea da transmititu gura dutena eta larrugintzarekin hasiko direla aitortu du Ramirez de Okarizek: "Larrua ontzeko tradizioa ahaztuta dago. Larrugintzaren garaiak argazkiak eta Telleria fabri-

kako materiala badauzkagu. Herritarrekin pentsatu gura dugu horrekin guztiarekin zer egin behar dugun orain. Zurrategira goazenean, han dagoen irudiak zer adierazten duen jakinarazi gura dugu". Usoa Agirre Kultura zinegotziak hausnarketa saioa otsailaren 16an egingo dutela adierazi du: "Antzuolan, industrializazioaren hazi bat izan zen larrugintza. Horren berri eman eta erakusteko moduak topatu gura ditugu; herritarrekin hausnarketa saioa egin eta euren ideiak jasoz".



JABI ETXANIZ

Eztarriak sano santa-eskean

Urteroko ohiturari eutsiz, antzuolarrek eztarriak sano dituztela erakutsi dute Santa Ageda bezperan egindako kantu saioan. Santa-eskean irten ziren Anelkarko eta Sagiriko kideak, herriko txistulari taldea eta abesbatza. 50 lagun inguru elkartu ziren eta 786 euro batu zituzten, saharar haurrak bailarara ekarri eta Arrasateko aterpe batean arreta emateko udan.



IMANOL SORIANO

Puntu bakarra etxean

Urolaren aurkako partiduan bana egin zuen pasa den zapatuan Antzuolak. Etzekoen gola Beñat Kortabarriak sartu zuen. Hala, 11 punturekin eta 25. postuan dago talde gorria. Bihar, Getariako taldearen aurka neurtuko ditu indarrak, Orion, 16:00etan. Antzuolarren helburua mailari eustea da eta zelaira gogotsu irtengo direla aitortu dute.

Kalebarrenean lehen larru fabrika

1790ean sortu zuen Balbino Bareñok larrua ontzeko lehen lantegia Kalebarrenean. 1880an sortu zen bigarrena, Santiago Lamariano eta Lizarralde *Lamariano y Cia* enpresa jarrita. Ondoren etorri ziren azken biak: *Galarza Hermanos y Arbulu* eta *Hijos de Jose Telleria*. Enpresa horiek, baina, desagertzen joan ziren 50eko hamarkadatik aurrera.



Bareño lantegiko langileak, 1915ean. 'ANTZUOLA.COM'

Abian da 'Irinmodo' blogeko otsaileko lehen zozketa

500. artikulua kaleratu du *Irinmodo* blogak eta Antzuolako historiaren gaineko lehen galdetegia prest du Iñigo Ramirez de Okariz historialariak. Hala, herritarrek parte hartzeko aukera dute otsailaren 9ra bitartean. Erantzun zuzenen artean, hamabi liburuz osatutako bilduma zozketatuko dute. Astero egingo dute zozketa, otsailean.

M8-ko greba antolatzeke batzarra egingo dute gaur

Antzuolako emakume talde bat Martxoaren 8ko greba antolatzeke elkartzeko da, bilera irekia eginda. Hurrengo batzarra gaur, otsailak 8, egingo dute, Oларan etxeko ekintza aretoan, beheko solairuan, 17:30ean. Ekintzak antolatzea da asmoa. "Denon beharra dugu; herriko emakume guztiak daude bileran parte hartzea gonbidatuta", azaldu dute.



Aintzane Oiarbide diputatua antzuolarrei argibideak ematen Olaranen. JOKIN BEREZIARTUA

Autobidearen gaineko kezkak eta zalantzak

Antzuolarren zalantzak eta kezkak argitzen izan da Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegitura diputatua. Besteak beste, autobideak bidesaria izango duen, errepide zaharra nola geratuko den eta kolektorea Bergararaino eramango den izan dira herritarren kezkak

Jokin B. / Maider A. ANTZUOLA

Jakin-min handia piztu zuen Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbideren bisitak urtarrilaren 31n, pasa den eguean. Bergara eta Antzuola lotuko dituen autobide zatia mar txo amaieran irekiko dute. "Errepideko lanak amaitzean, Antzuolako bizilagunek ongizate eta segurtasun handiagoa izango dute", argitu zuen Oiarbidek. Azalpenen ostean, askotariko galderak, kezkak eta zalantzak erakutsi zituzten antzuolarrek: autobide zatiak bidesaria izango duen edo ez, errepide zaharra nola geratuko den, goiko trenbideko bidegorria "behar den moduan" utziko ote duten, kolektorea egingo den...

Bidesaria, "bai"

Autobideak bidesaria izango duela berretsi zuen Oiarbidek, Batzar Nagusietako alderdi guztien adostasuna lortu zela eta eztabaida hori gaindituta dagoela esanez. Bidesari hori nola eta

nori aplikatuko den "aztertzeke" dago. Kolektorea Bergararaino eramatea eta errekarren birsorkuntzaren gaineko auzia, aldiz, Ura agentziaren eskumena dela azpimarratu zuen Oiarbidek.

Autobideak eragin duen "kalbarioa txikia" onartzeaz gain, obrak Antzuolako herriari bi abantaila nagusi eskainiko dizkiola zioen: errepide zaharreko zirkulazioa "nabarmen" jaitsiko dela eta lur-irristatze historikoa geldiarazi dutela. Izan ere, Oiarbideren arabera, errepide zaharreko zirkulazioa %90 murriztuko da eta Eztalako lur-irristatze historikoa geldiarazi egin dute, inguru horretan "oso gutxitan" ikusi den "meatzaritza teknika berritzaile" batzuei esker.

UDA PARTEAN ERREPIDE ZAHARRA ERABAT ASFALTATUKO DUTELA AURRERATU DU DIPUTAZIOAK

"Beharrezko" saioa

Antzuolako alkate Beñardo Kortabariak azaldu du saioa beharrezkoa zela, Diputazioak antzuolarren kezkak entzun ditzan eta erabaki ahalmena dutenek hausnarketa bat egin dezaten. Antzuolak asko sufritu duela aitortu du. Antzuolak galdu duen horren barruan baso naturala galdu izateak "bihotzeko mina" eragiten duela esan du.

Amaitzeko, herritarrek eskatu zuten, besteak beste, trenbide zaharraren ondoko bidegorria ondo utzi dezatela, Zupideko biribilgunean segurtasuna bermatzea eta autobidean zarrata xurgatzeko panelak jar ditzatela.

Diputazioak aurreratutako errepide zaharra erabat asfaltatzeko lanak, eta lan horiek milioi bat eta berrehun mila euroko aurrekontua izango dutela. Horrez gain, "hobekuntza nabarmenak" egingo dira Eztala futbol zelaian eta inguruetan.



OLALDE

Antzuolarrak, andre eta jabe

Antzuolak irabazi du Gipuzkoako eskolarteko banakako nesken pilota txapelketa. Alebin eta infantil mailetan nagusitu dira antzuolarrak, Zaldibian joan den asteburuan jokaturako finalean.

Hala, alebinetan, Olatz Insausti eta June Garaikoetxea bikoteak jantzi du txapela. Infantiletan, aldiz, Leire eta Nagore Galeano ahizpek.

OHARRAK

San Blas eguneko ospakizuna

Zapatuan, otsailaren 9an, San Blas eguna ospatuko dute antzuolarrek Basalde auzoko San Blas ermitan, eguerdian.

Erorketak prebenitzeko tailerra

Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Landatxope elkarteak eta Osakidetzak elkarlanean antolatu dute adineko pertsonen erorketak prebenitzeko tailerra. 64 urtetik gorako herritarrei eta euren senide edo zaintzaileei zuzendua dago tailerra. Otsailaren 12an eta 19an 16:30etik 18:00etara egingo dira Olaran etxean saio praktikoak. Aurrez izena eman daiteke, eta doan da. Izena emateko epea urtarrilaren 16tik otsailaren 11ra bitartean da, osasun etxean.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

"Saneamendu lanak egitea premiazkoa da"

IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA ELGETAKO ALKATEA

Berriz ere alkategai izango den galdetuta, ez du ezer aurreratu nahi izan Lazkanok, baina jakinarazi du lantaldean hasita daudela hauteskunde programa berria lantzen

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Harira saioan izan zen alkatea, martitzenean. Askotariko galdarak erantzun zituen. Saioa ikusgai dago *Goiena.eus* atarian. **1,5 milioi euro inguruko aurrekontua duzue 2019rako. Honako hau ere kalte-ordainek baldintzatutako aurrekontua dela esan duzue.**

250.000 euro inguru bideratu beharko ditugu kalte-ordainak ordaintzeko. Duela lau urte saio honetan bertan komentatu zuen lehengo alkateak jasotakoa baino zor txikiagoarekin uzten zutela Udala. 1,3 milioi euroko zorrarekin jaso zutela Udala, eta 700.000 euroko zorrarekin utziko zutela zortzi urteren ondoren. Bada, egoera guztiz bestelakoa izan da. Udalean sartu ginenean bagenekien kalte-ordain batzuk egongo zirela. Egia da Udalak banketxeekin zuen zorra 700.000 eurokoa zela, baina gero etorri diren kalte-ordainekin, guztira, 2,4 milioi euro ordaindu beharra eduki du Udalak 2015eko ekainetik. Ia-ia, bi urteko aurrekontu osoa. Agintaldi honetan milioi bat ordainduta lagako dugu, eta 2020tik aurrera ordaindu behar den kopurua dezentetxe txikiagoa da. Hau da, hurrengo agintaldian aginduko dutenek beste malgutasan bat edukiko dute. Azkenean, ehun bat mila euro gehiago izango dituzte –gehituta horrekin lor daitezkeen dirulaguntzak– non gastatu erabakitzeke. Guk eduki ez duguna.

Zein da aurten inbertsio nagusia?

Inbertsio oso garrantzitsua aurten –30.000 euro– Artekalean egitekoa duguna izango da. Ur zikinak eta euri urak batera doaz, eta bereiztea komeni da. Euri urak gure kompetentzia dira, eta lanen zati bat ordaindu beharra dugu. Baliatuko dugu aukera hor daude aparkaleku batzuk moldatzeko eta Eibarrean doan autobusari duin samar gelditzeko toki bat egiteko.



Elgetako alkate Iraitz Lazkano, martitzenean, *Harira* saioan. L.Z.L.

"ESPERO DUGU EPE MOTZEAN SANEAMENDU LANAK EGINDA LAGATZEA"

Ur zikinak aipatu dituzte, eta Elgetako ur zikinak nora doaz?

Bai industrialdekoak, bai herrikoak Sesto errekarara doaz. Eusko Jaurlaritzak 2007an hartu zuen saneamendu hori egiteko konpromisoa eta oraindik egiteko dago. Sarri eskatu dugu lan horiek egiteko eta jakin berri dugu 2021-2027 plangintzan barik 2019-2021 plangintzan sartu dutela. Hala, espero dugu epe motzean hori eginda lagatzea. **Zuntz optikoa ere iritsi da herrira. Sumatuko da aldea?**

Ez dago estaldurarik herri guztian oraindik, baina zatika-zatika badabilta, eta aldea igarri behar da. Uste dut, gainera, erabiltzaile partikularrendako baino garrantzitsuagoa izango dela datu asko behar dituztenendako: enpresak, planoak eta diseinuak bidaltzea behar duten freelanceak...

Etxebizitzaren gaia zelan dago Elgetan?

Egia da ez dagoela merkaturik alokairu librean. Ordenantza berri bat ere egin dugu etxepeak etxebizitza bihurtzeko aukera emateko, baina garbi azaldu genuen hauteskunde programan ez dugula etxe berriak egiteko beharrik ikusten. Eta promotoreek ere ez. Herrian hutsik dauden ia 120 etxebizitza egonda –bostetik bat–, zein punturaino konpontzen du arazoa berriak egiteak? Gazteak herrian gelditzeko alokairu soziala bultzatu behar da. Agintaldi honetan 980.000 euro ordaindu ditugu aurrekoek egindako zor kontzeptuan, eta hori baino diru gutxiagorekin gauza izango ginateke eraikin oso bat erosi eta alokairu sozialean emateko zortzi etxebizitza prestatzeko. Hori da gazteak herrian gelditzeko modu bat, baina horretarako gutxieneko diru sarrera batzuk behar dira, eta gaur egun Udal honek ez dauzka.

Alkategai izango zara berriz?

Oraintxe ari gara gaia lantzen, baina garrantzi berezia ematen ari gara programari. Gero joango gara zerrenda kontuak lotzen.

Erotismoak leku berezia izango du liburutegian, otsailean

'Xuxurlatu barrenera' esaldi lehiaketa eta Virginia Imazen ipuin kontaketa erotikoa daude iragarrita

L.Z.L. ELGETA

Prest da, liburutegian, *Bibliobero* izeneko interesgune berezia. Erotismoarekin lotutako argitalpenak elkartu ditu bertan Geaxi Ezpeleta liburuzainak. Apal berezitu daude ikusgai hilaren 22ra arte.

Erotismoak, gainera, presentzia berezia izango du egunotako ekintzetan. Atzo egindako literatura solasaldietan, Aitor Aranaren *Ipuin lizunak* liburuko hiru idazlan izan zituzten aztergai, eta hilaren 22rako Virginia Imaz ipuin kontalariaren *De miel y escalofrío...* ipuin kontaketa erotikoa dago iragarrita. Liburutegian egingo du, 22:30ean.

Horrekin batera, Elena Elkorro farmazialariak antisorgailuen gaineko saioa egingo du hilaren 13an, 18:30ean. Eta liburutegiak *Xuxurlatu barrenera* esaldi erotikoen lehiaketa egingo du. In-



Virginia Imaz. IMANOL BELOKI

teresatuek liburutegian aurkituko dituzte argibideak.

Kontalaritza tailerra, gaur

Aurreko programaziotik dator LH-1eko eta LH-2ko umeendako Mainer Galarzak gaur egitekoa duen tailerra, 17:00etan.

120 bat lagun espero dituzte Mendi Mendia jaiko bazkarirako

Pozik dira antolatzaileak; izan ere, jende kopuru polita elkartuko dute bihar egitekoa duten Mendi Mendia Racing jaietan. Adierazitakoaren arabera 110-120 bat lagun daude bazkarirako izena emanda.

Biharko ekitaldiak 11:00etan hasiko dira. Autoen erakusketarekin eta pintxo-poteoarekin hasiko dira. Aurreko urteetan

moduan, Mendizaleen plazan kokatuko dute elkargunea. Eta 13:30erako, talde argazkia ateratzeko dei egin dute. Plazan elkartuko dira, jarraitzaileekin eta lagunekin argazkia ateratzeko. Bazkaria, berriz, 14:00etan izango da, Espaloia kafe antzokian. Festa gauera arte luzatuko da; izan ere, 21:30ean hasiko dira zuzeneko musika emanaldiak antzokian. Bergarako Barne Guda eta Brigade Loco taldeak eta Kataluniako Demencials daude iragarrita.

Grafiti tailerra gaztelekuan

Bi eguneko grafiti tailerra iragarri du gazteleku zerbitzuak aste bukaerarako. Bihar, zapatua, erabiltzaileendako saioa izango da, 16:00etatik 20:00etara. Domekan, berriz, ate irekiak egingo dituzte LHko 5. mailatik gorako neska-mutikoendako. Eñaut Aiartzaguena grafitilariak gidatuko ditu saioak, eta helburua da gaztelekuko horma bat grafiti batekin apaintzea.



Ekainera bitarteko programazioa, Espaloian

Elgetako Udalak eta Kultur Hiru taldeko kideek kafe antzokiarekin lotutako hitzarmena berritu dute. Hurrengo hilabeteetarako, Toni Bright mago mentalista, 'Pinotxo' ikuskizuna, tributu jaialdi bat eta Anthony Blake iragarri dituzte, besteak beste

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Irailtik abendura bitartean, Karim eta Sun magoak, *Go!azen* ikuskizunaren bi emanaldi eta Gari&Maldanbera taldearen kontzertua izan dira Espaloia kafe antzokian Kultur Hiru taldearen eskutik.

Abenduaren 31n amaitu zen antzokiaren kudeaketarako Udalarekin sinatutako lehen hitzarmenaren epealdia. Atzo, berriz, alde biek beste hitzarmen bat sinatu zuten, ekainaren 30era arte. "Uste dugu lan nahiko txukuna egiteko gai izan garela lehenengo hiruhilekoan. Asmoa poliki joatea zen, denok pixka bat elkar ezagutzeko eta aretoa bera ere ezagutzeko. Uste dugu neurria hartu diogula. Lehenengo etapa era egokian gaintitu dugula esango genuke", adierazi dute Kultur Hiruko kideek.

Udalak ere ontzat jo du orain artekoa. "Uste dugu formula egokia topatu dugula Espaloia-aren kudeaketarako", esan zuen urtarrileko osoko bilkuran Kultura zinegotzi Janire Lazkanok. Nabarmendu zuen eraikinak Udalaren erabilerarako izaten jarraitzen duela eta noizean behin, gainera, Kultur Hiru taldeak antolatutako ekintzak daukela bertan. "Hitzarmen honek, azkenean, Kultur Hiruk hileroko



'Balio magikoak' ikuskizuna, aurreko domekan, Espaloian. IMANOL SORIANO

hileroko antolatutako ekintzak herrira ekartzeko aukera ematen digu, kendu barik guk egiten ditugunak".

Funtzionamendua, ikasturteka

Aurrerantzean, irailtik ekainera arteko dinamika ezartzea adostu dute alde biek, eta atzo, ekainera arteko hitzarmena sinatu zuten. "Hiru hilabeteko ezagutzarekin hainbat aldaketa egingo ditugu lehenagotik genuen hitzarmenean", azaldu du Lazkanok. Kultura zinegotziak esan du Kultur Hiruko kideek horre-

la eskatuta hitzarmen bana sinatuko dela aurrerantzean ekitaldi bakoitzeko, eta Udalak orain arteko espazioa lagako duela -barra, agertokia, soinu eta argi inguruak...-.

Koordinazioa, batzordeak

Aurrerantzean ere Kultura batzordeak egingo ditu agenda koordinazio lanak. "Kultur Hirukoek kultura batzordeari eman beharko diote egiten dituzten ekintzen berri, eta batzordean berba egin eta gero eta adostuztat eman eta gero jasoko dute

"Badirudi martxa hartu diogula lanari, eta aurrera begira gaude"

IBAN FERNANDEZ DE ARROIABE KULTUR HIRU

Kultur Hiru taldeko kideak pozik dira antzokian izandako hasierarekin. Etorkizuneko helburuak betetzeko gai izatea espero dute.

Zer moduz joan da hiru hilabeteko lehen etapa?

Alde biak gustura gaudela esango genuke. Horren emaitza zuzena hurrengo sei hilabeteetarako sinatu dugun akordioa izango litzateke. Programazio lanetarako erosago ibiltzen gara epealdi luzeagoetan; izan ere, bi eta hiru hilabete aurretik itxi behar izaten ditugu ikuskizunak.

Zer duzue itxita?

Badirudi martxa hartu diogula lanari eta hainbat talderekin hitz egiten dihardugu. Itxita ditugu otsailaren 23rako Toni Bright mago mentalista, martxoaren 16rako *Pinotxo* antzezlanaren eta martxoaren



GOIENA

22rako roc-and-roll tributu jaialdia -Extremoduro, Platero y Tu, Marea-; aurretik, Bergarako Black Lemon taldeak joko du. Maiatzaren 11n eta 12an, berriz, Anthony Blake mago mentalista izango dugu.

Antzokia, orduan, aro berri batean sartu da?

Elkarlanaren ondorioz eta jendearen erantzuna ikusirik, aurrera ilusioz begiratzea besterik ez zaigu geratzen, eta ozen esan genezake Espaloia aro berri batean murgildu dela.

dirulaguntza", esan du Janire Lazkanok. Zehaztu du 100 euroko dirulaguntza emango duela Udalak eguneko, eta euskaraz egindako ekintza bakoitzeko 50 euro, urteko hamar ekintzako mugarekin. "Hori, aurreikusita irailtik ekainera bitartean hilean ekintza bat egingo dela". Kultur Hiruk, berriz, 200 euroko bermea jarriko du, eta ekintza bakoitzeko 100 euroko alokairua ordainduko du. "Lehen moduan, gastuen arduraren izango du promozioan eta hedapenean, erantzukizun zibileko eta onda-

sunen arrisku guztien aseguruak indarrean edukiko ditu eta bere gain hartuko ditu garbiketa zein soinu eta argi teknikari gastuak. Baita ere ekitaldiari berari atxikitzen zaizkion bestelako gastuak -hotela, zamaranak...-".

IRAGARRITAKO IKUSKIZUN GEHIENETARAKO SARRERAK SALGAI DAUDE DAGOENEO

Eskolako ortuan, untxia

Akuri bat eta bi untxi ibili dira denbora luzez eskolako ortu inguruan, baina bakarria ageri da azken egunotan. Gelditzen denak jantoki egokia topatu du, antza, eskolako baratzean. Ilaje berezia du oso eta erraz ikus daiteke. Maskota moduan etxera eraman eta aspertutakoan kalera botatuko untxia ote da? Ematen du zer pentsatua.



L.Z.L

OHARRAK

M8 Plataformaren batzar irekia domekan

Elgetako M8 Plataformak domekan, hilak 10, egingo du hurrengo batzar irekia. Kultura etxean batuko dira, 11:00etan.

Iratxe Alonsori saria eguaztenean

Elgetako Udalak Iratxe Alonso sarituko du Debagoieneko Kirol Sarietan. Eguaztenean, otsailak 13, izango da ekitaldia, Arrasateko Amaia antzokian, 19:00etan.

Podologoa erretiratuendako, eguenean

Otsaileko kontsulta hilaren 14an izango da, eguena. Ohikoa den moduan, ezinbestekoa da aurrez txanda hartzea. Interesatuak deitu egin behar dute: 943 76 80 77 (Nati).



Elizaren aurreko eraikina egokituko dute ostatu izateko. O.E.

Araotzen ostatua egiteko beste pauso bat eman dute

Jaurlaritzaren dirua lortuta, proiektuarekin aurrera egitea erabaki dute Udalak eta auzotarrek, eta urtarrileko osoko bilkuran alde bi horien arteko hitzarmena onartu dute ideiarekin aurrera jarraitzeko. Lanak lizitatzea izango da hurrengo urratsa

Oihana Elortza OÑATI

Errepublikara garaian nesken eskola izandako eraikinean ostatua egin gura dute Araotzeko auzotarrek, eta asmoa bere bidea egiten ari da. Jaurlaritzak 147.000 euro eman ditu proiekturako eta beste erdia Udalak eta auzotarrek jarriko dute, erdi eta erdi. Hain zuzen, egitasmoarekin aurrera egiteko balioko duen Udalaren eta auzotarren arteko hitzarmena onartu zuen udalbatzak urtarrileko ohiko osoko bilkuran.

Ostatuaren bideragarritasuna

Bi fase izango ditu proiektuak eta hitzarmen hori lehen faseari dagokio. "Ikusten dugu auzoaren inplikazioa badagoela. Berriz dirua jartzeko konpromisoa hartu dute auzotarrek, Jaurlaritzatik ere lortu dugu dirua eta uste dut Udalak eskutik joan behar duela. Badaude elementu batzuk diotenak ostatu hori errealitate bihurtzeko saiakera bat egin behar dela

eskatzen dutenak", adierazi zuen Mikel Biain alkateak.

Alderdi jeltzaleak, baina, ez du Araotzeko ostatua bideragarri ikusten negozio moduan. Dio kalkulatu dutela ostatu hori %70ean egongo dela beteta, baina datuek erakusten dutela Gipuzkoan landetxeak %27 bakarrik betetzen direla. Jeltzaleen ustez, Aldundiak zuen Berpiztu programa aukera hobea da jendea Araotzera bizi izatera joateko. Arantzazu, Araotz eta Urrexolan landu zuten programa hori, jeltzaleak Udal Gobernuaren zeudenean, eta arau subsidiarioak ere aldatzeko prest zudela gogorarazi zuen Lourdes Idoiak, herritarrek erdigunetik auzotara bizi izatera joateko.

UDALBATZA OSATZEN DUTEN ALDERDI BIEK TXALOTU DUTE ARAOTZEKO AUZOTARREN LANA

ko. Asmo horrek ez zuen aurrera egin, baina egungo proiektuak ere ez dituela Araotzera auzotar gehiago erakarriko uste dute jeltzaleek, turistak bakarrik, eta, horregatik, abstenitu egin ziren. "Kontua ez da Araotzen etxe gehiago egitea, baina bai ahalbideratzea landagunerako estiloko etxeak egitea, zerbitzuak eta garraioa jarrita, adibidez", zioen EAJko bozeramaileak. Araoztarrek egindako lana alderdi biek txalotu zuten.

Eraikina egokitu

Hasierako fase honetan, lehen nesken eskola izandako eraikina ostatu izateko egokituko dute, eta, osoko bilkuran onartutako hitzarmenarekin, lanak lizitazioa egitea izango da hurrengo pausoa. Laster egingo dute hori, Mikel Biain alkatearen esanetan. "Auzotarrendako topalekua ere izango da. Turistendako eskaintza gehigarria izango da ostatua hartzen duenarendako", gaineratu zuen.



Udaletzeko sarreran dago makina, eskuinaldean dagoen bulegoan. O.E.

Dagoeneko erabilgarri dago bulego elektronikoa

Herritarren Arreta Zerbitzua egiten badabilta, baina dagoeneko makina erabilita atera daitezke agiri asko

O.E. OÑATI

Oñatiarren arreta zerbitzu bulegoa martxan jartzeko lanean dihardute udaletxean, eta bulego fisikoa martxoaren lehenengo astean egongo da zabalik. Bulego elektronikoa izango dena, baina, dagoeneko erabilgarri dago.

Erabiltzeko erraza

Udaletzeko sarreran jarri dute makina, sartu eta eskumara dagoen bulegoan. Eta udaletxea zabalik dagoen ordutegi barruan erabil daiteke. Egun arratsaldez harreraren eskatu daitezkeen baino agiri gehiago eskura daitezke makina horren bidez. Esaterako, errolda agiriak eta hainbat ziurtagiri.

Alondegitik izango du gero sarrera Herritarren Arreta Zerbitzuak, eta han egongo da makina. "Edonork erabiltzeko modukoa da. Oso erraza. Gertura-

tu eta pantailan agertzen diren mezuak aukeratu baino ez da egin behar. Ordenagailu bat da, udaletzeko zerbitzu batzuk eskaintzen dituen", azaldu du alkateak, Mikel Biainek.

Bulego fisikoa egongo den toki egokitzaren ari dira eta lanak martxa onean doaz. Hilabete barru zabalduko dute eta bulego edo espazio berrian egongo da makina hori, baina herritarrek erabiltzeko ordenagailu edo makina gehiago ere egongo dira gero. Esaterako, ordainketak egiteko makina. Gero, txartela sartuta, zuzenean egin ahal izango ditu ordainketak herritarrek; hango langileak ez dira diruarekin ibiliko. Makina hori ere hau besteko erraza izango da erabiltzeko. Udal arduradunek aurreratu dute herritarrek ez dutela inolako zailtasunik izango tramiteak egiteko ordenagai-luak erabiltzeko.

OHARRAK

Odol ateratzea gaur

Gaur, egubakoitza, egingo dute otsaileko odol ateratzea. 17:00etatik 19:00etara izango da, MUren Enpresagintza Fakultatean.

Martxoaren 8a: bilera

Datorren martitzenean, hilak 12, egingo dute Martxoaren 8a antolatzeko hurrengo bilera irekia. Eltziano topalekuan izango da, 18:00etan.

Aratusteetako zapatuetako entseguak, Larrañan

Aratusteetako zapatuetako entseguak Larrañako pilotalekuan egingo dituzte aste honetatik aurrera. Hurrengo hiru asteetan hantxe izango dira entseguak, zapatu eguerdietan, 12:00etan. Martitzenekoak, orain arte moduan, 20:00etan, Eltzian. Entsegu hauek irekiak dira eta Aratusteetan dantza egin gura duten herritarrek joan daitezke.

Gauaz eta geologiaz dira ingurumen jardunaldiak

Gai horietako hitzaldiez gain, Marcos Rodriguezena ere antolatu dute, hamahiru urtean Sierra Morenako mendi eta basoetan otsoekin eta beste hainbat animaliarekin bizi izan zen pertsona. Hilaren 15ean etorriko da kultura etxera, 19:00etan

Oihana Elortza OÑATI

Astelehen iluntzean zabalduko duten erakusketarekin hasiko dira Natur Eskolaren aurtengo ingurumen jardunaldiak. Erakusketa landua eta osatua izango da aurtengoa ere, eta baita erakargarria, ohi denez. Normalean baino argi gutxiago egongo da, baina, erakusketa gelan; iluntasuna ikusiko da. Izan ere, gaua da aurten landuko dute gaietako bat; geologia da bigarrena.

Antropozenoaren garaia

Gauaren ikuspegi astronomikoaz jardungo dute, batetik, eta baita gaueko biodibertsitateaz ere. "Konstelazioak, beste planetetan gauak nolakoak diren eta antzerako gaiak entzungo ditugu, batetik, eta animaliek gauera nola moldatzen edo nola moldatu behar izan duten, bestetik", dio Natur Eskolako Aimar Uribealgok. Hontzak eta saguzarrak ikusiko dira erakusketan, esaterako, baina baita argi kutsadura ere.

Landuko duten beste gaia geologia izango da, eta ez ote garen beste aro geologiko batean sartuta egongo eztabaidatuko da, adibidez, lurraren historiari erreparoa eginez. Hau da, antropozenoaren garaian bizi ote garen izango da gaia.

Hitzaldiak eta dokumentalak

Bi gai horien inguruko hitzaldiak eta ikus-entzunezkoak antolatu dituzte Natur Eskolako langileek. Baita urteroko zuhaitz azoka eta zuhaitz eguna ere. Baso kudeaketaren inguruko hitzaldia ere egingo da. Santa Anan izango den bakarria izango da, gainerako hitzordu guztiak kultura etxean izango dira-eta. Otso artean hezi zen Marcos Rodriguez andaluziarrarena barne. Bere esperientzia, bizitza, kontatzera etorriko da Oñatira, Natur Eskolakoek gonbidatuta.



Hontzak ikusiko dira, adibidez, erakusketan. MEJORIMAGEN.EU

Jardunaldietako egitaraua

- **Gaua ikuspuntu astronomikotik.** Hitzaldia. Esteban Esteban. (Durangoko astronomia taldea). Otsailaren 12an, 19:00etan.
- **Gaua, gauekoentzat.** Hitzaldia. Joxerra Aihartza, biologoa. (EHU). Otsailaren 13an, 19:00etan.
- **Marcos Rodriguez.** Hitzaldia. Otsailaren 15ean, 19:00etan.
- **Lurraren historian zeharreko aldaketa globala. Nora goaz?** Hitzaldia. Estibaliz Apellaniz, geologoa. 19an, 19:00etan.
- **Antropozenoa. Gizakia lehen mailako eragile geologikoa.** Hitzaldia. Jon Betanzos, geologoa. Hilaren 20an, 19:00etan.
- **Análisis de la realidad forestal y presentación de la propuesta de Kolore Guztiak Basoak.** Hitzaldia. Kenko Alonso, biologoa. Otsailaren 25ean, 19:00etan.
- **Aralar, mundua leku den lurra.** Dokumentala eta solasaldia zuzendariarekin. Otsailaren 26an, 19:00etan.
- **El secreto de la naturaleza.** Dokumentala eta solasaldia. Hizlaria: Juan Inazio Perez Iglesias, fisiologoa (EHU). Otsailaren 27an, 19:00etan.
- **Un día más con vida.** Filma, zineklubean. Zuzendaria: Raul de la Fuente eta Damian Nenow. Otsailaren 21ean, 20:00etan.
- **Caras y lugares.** Filma, zineklubean. Zuzendaria: Agnes Varda. Otsailaren 28an, 20:00etan.
- **Zuhaitz feria.** Martxoaren 2an, goizez, 09:00etatik aurrera, Foruen plazan.
- **Zuhaitz eguna.** Martxoaren 3an, goizez, 10:00etan, Foruen plazan.
- **Zuhaitz eguna Aloñako lagunekin.** Martxoaren 10ean, Unaimendin, 10:00etan.

Oharra: Gaua, gauekoentzat. Erakusketa. Otsailaren 11tik 27ra egongo da zabalik, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

"Definitu gabeko gai bati buruz aritzea denbora galtzea da"

JOSE ANTONIO VILLAR IDAZLEA

Kazetaritzan gaiak nola tratatzen diren kritikatzan du

O.E. OÑATI

Musikari eta antzezle moduan ezagunagoa bada ere, bizitza osoa eskaini dio Villarrek giza komunikazioa ikertzeari, modu ezkontuagoan. Bi tesi idatziak ditu eta liburu bat argitaratu du orain: *Nacionalismo. Nacionalismos. La acción comunicativa del periodismo actual.*

Zer dago liburu horren oinarrian?

Kazetaritzan gaiei –politika gaiei, batez ere– ematen zaien traterari egiten diot kritika eta salaketa. Ez zait gustatzen.

Diozu ezegokitzat jotzen duzula kazetaritza hori eta haserretu egiten zaituela.

Ezegoki izaera horren muina definizio gabetasunetik dator. Eztabaidak, esaldiak eta antzerakoak definiziorik gabe ematen dira eta definiziorik gabeko gaiei buruz aritzea denbora galtzea da. Horrek ez du emaitzarik ematen. Adibidez, bake konferentzia batean ni ez nintzateke inoiz buruz buru jarriko estatubatuar batekin. Bere bakearen definizioa da gerra bukatu ondorengo egoera, eta hori edonork daki ez dela bakea, galdu duenak ez du-eta baketzat onartuko egoera hori.



Jose Antonio Villar oñatiarra.

Zer dago definizio horren atzean, zure ustez?

Gogoeta falta. Eta hori botereak eta diruak bultzatzen du. Sentimendutik ekintzara zuzenean pasatzera bideratzen dute, eta sentimenduak arrazoitzen ez badituzu eta geroko ekintzen bideak ikusten ez badituzu, ez du emaitza onik ekarriko.

Kataluniako prozesuan traterak ere alarma piztu dizula diozu.

Ikusi nuen kazetari bat izugarriko irainak botatzen zergatia argudiatu gabe. Bestearen rola hartzen zuen; haserretu nintzen.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

Txalotu

Txalotzen dutenak txalotu nahi nituzke gaurkoan. Izan ere, denek gustatzen zaigu txaloak entzutea noizean behin. Eta horretarako, norbaitek txalota jo behar du. Bikaintasuna txalotzea da samurrena, emaitza onenak goraiatzeko joera baitaukagu gehienetan. Zailagoa dena zera da, emaitzak apalagoak, ez hain sonatuak direnean txaloen errekonozimendua ematea.

Txalotu nahi ditut bereziki esfortzua txalotzen dutenak: zailtasun gehiago eta laudorio gutxiago izan arren, beraien metak lortzeko lan izugarria egiten duten pertsonak animatzera doazen horiek. Adibidez, joan den astean Europa mailako notizia izan zen San Mames bete egin zela nesken partidu bat ikusteko; horretaz gain, gure bailaran pilotako emakumeen Master Cup-ak ere gero eta oihartzun handiagoa du.

Ez ditut ahaztu nahi gure inguruetan ditugun lasterketetako ikusleak. Lehenak pasatzerakoan ikusle mordoa egoten da; azkenak joaten garenean, berriz, ez dira horrenbeste izaten, baina haien txaloei bai ematen dutela indar berezia. Amaitzeko, txaloak zuri ere, lerro hauen amaierara iritsi zara eta.



Aloña Mendiren eta Elgoibarren arteko partiduan. IMANOL SORIANO

Bigarren itzuliko lehen garaipena lortzeko prest

Aloña Mendiko senior neskek bihar izango dute aukera, 17:45ean, Zubikoa kiroldegian eta Irauli Bostekoren aurka, bigarren itzuliko lehen garaipena lortzeko. Urrian bien artean jokaturako partiduan, oñatiarrek ezin izan zuten garaipena lortu

Maialen Regueiro OÑATI

Duela bi jardunaldi hasi zuten Aloña Mendiko senior neskek denboraldiko bigarren itzulia. Lehen partidua etxean jokatu zuten Elgoibarren aurka eta aurreko asteburuan, berriz, Jarrilleras taldea izan zuten aurkari. Bi jardunaldi horietan oñatiarrek ezin izan zuten garaipena lortu; beraz, bihar, beste aukera bat izango dute Ioritz Agirianoren neskek, 17:45ean hasita, Irauli Bostekoren aurka, bigarren itzuliko lehen garaipena lortzeko.

Lehen itzuliko emaitzak

Urri hasieran jokatu zuten senior neskek denboraldiko lehen nor-

gehiagoka. Lehen itzuliak, gutzira, hamaika partidu izan ditu; bost irabazi dituzte, bost galdu eta berdinketa bakarra lortu. Hala, lehen itzuliko balorazioa egite aldera, parekatua izan dela esan daiteke.

Bigarren itzulia, hasita

Apiril hasieran amaituko da 2018-2019 denboraldia, baina oraindik bederatziz norgehiagoka jokatu behar dituzte Aloña Mendiko senior neskek. Egingako lehenengo itzuli parekatuaren ostean, Agirianoren taldea gogotsu eta indarrarekin dago bigarren itzulian emaitza hobekak lortzeko. Saikapenean zortzigarren postuan dago taldea

gaur egun, Jarrilleras eta Ereitz taldeen emaitza eta puntu berekin.

Irauli Bosteko taldea

Talde donostiarra bederatzigarren postuan dago saikapenean, oñatiarrek baino puntu bat gutxiagorekin, hain zuzen ere. Bi taldeek lehen itzuliko partidua jokatu zuten urrian eta Donostiako taldeak lortu zuen garaipena (26-24). Bi taldeek ezagutzen dute elkar dagoeneko eta oñatiarrek biharko hitzorduari zukua atera nahi diote, lehen itzuliko emaitza hobetzeko asmoz. Partiduari 17:45ean emango diote hasiera, Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean.

Mendi sailak antolatuta, eski zeharkaldia eta mendi irteera

Mendi sailak antolatutako eski zeharkaldian izena emateko azken eguna otsailaren 12a izango da

M.R. OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak otsailaren 16rako eta 17rako antolatu du eski zeharkaldia egiteko irteera. Larunbat goizean irtengo dira Oñatitik eta egun horretarako ibilbidea izango da: Astun, Pic Peyreget, Portalet, Astun, Moines, Cabane de la Glere, Col de Liou, Pic Peyreget, hego korridorea jaitsi eta Portalet. Sallent-en edo Hoz de Jacan egingo dute lo. Iganderako, berriz, ibilbide hau aurrekusi dute: Sarrioso aparkalekua, Anayet tontorra, Canal Roya, Sarrios, Anayet, Espelunciecha, Espelunciecha ipar korridoretik, Ibones de Anayet, Anayet tontorra, Barranco de las Negras eta Canal Roya. Norbaitek materiala behar badu, alonamendi.mendi@gmail.com helbidera mezu bat bidali beharko du lehenbailehen.



2017an egindako irteera ALOÑA MENDI

Mendi-irteera otsailaren 17an

Otsailaren 17an mendi irteera egingo dute honako ibilbide honekin: Samaniego, Pico San Leon eta Urizaharra. Irteera horretan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du otsailaren 14a baino lehen.

Lehen postuari eusteko funtsezko bi puntu jokoan

Mekalki Aloña Mendi taldeko mutilek norgehiagoka garrantzitsua dute domekan, Donostian, eguerdiko hamabietan, Alde Zaharraren aurka. Saikapenean lehen postuari eusteko ezinbestekoak diren puntuak behar dituzte oñatiarrek, taulan bigarren dagoen Atletico San Sebastian euren gaitasunak puntu bakarra dute eta.

Aurrealdean segitzeko beste aukera bat igandean

Endika Ruizen mutilek igandean dute beste aukera bat saikapenean lehen postuetan jarraitzeko. Kasu honetan, Ikasberri taldearen bisita jasoko dute, 16:30ean, Azkoagain futbol zelaietan. Oñatiarrek ez dute partidurik galdu azken lau jardunaldietan. Azpeitiarrak, berriz, bederatzigarren postuan daude, 25 punturekin.

Errenteriara, bi puntuen bila

Aurreko jardunaldian Zubikoan lortutako garaipenaren ostean, Fagor Industrial Aloña Mendi taldeko mutilek Errenteriako Ereintza Beissier taldearen aurka jokatu dute. Etxetik kanpo jokaturako azkenengo bi partiduak ezin izan dituzte irabazi. Hala, Aranbururen mutilek zapatuan jokatu dute norgehiagoka, 17:30ean, Errenteriako Udal Kiroldegian.



Fagor Industrialen eta Corazonistasen arteko partidua. IMANOL SORIANO

TRX modalitateko tailerra hurrengo zapatara atzeratu da

Bihar Zubikoako fitness gelan eman behar zen TRX modalitateko indar entrenamenduen tailer teoriko-praktiko berezia hurrengo astera atzeratu dute. Tailerra hilaren 16an, zapatua, izango da, 10:00etatik 11:00ak bitartean. Abonatuentzat doakoa izango da, baina gainontzekoek hiru euro ordaindu beharko dute eta plaza mugatuak daude.

Seigarren garaipena jarraian lortu nahi du Albok taldeak

Herriko futbol txapelketa denboraldi erdira iritsi da dagoeneko. Albok taldeak jokaturako partidu guztiak irabazi ditu eta bihar, 17:30ean hasita, lehen postuari eusteko beste aukera bat izango du Auschwitz-en aurka. Jardunaldiko beste partidua Zalapartak eta Mazedoniak jokatu dute, 19:00etan. Txuskos da arduraduna aste honetan.



Joxe Mari Iturralde idazle eta irakaslea. Hura izango da idazketa lantegiko dinamizatzailea. GOIENA

Idazketa lantegia eratu dute Udal Liburutegian

Joxe Mari Iturraldek (Tolosa, 1951) dinamizatuko du taldea eta hamar saio izango ditu. Hamabost egunean behin, eguenetan, 18:00-20:00 Udal Liburutegian bilduko dira. Lehen saioa otsailaren 14an izango da eta izen-ematea zabalik dago oraindik

Amaia Igartua. OÑATI

Idazketarako zaletasuna duten herritarrei idaztearekin gozatzeko beharrezko baliabideak eskainiko dizkie lantegiak.

Herriko eskaintza kulturalaren hutsunea betetzeko asmoz sortutako ekimena da. "Liburutegiak hiru irakurketa talde ditu, baina idazketa lantzeko eskaintzarik ez dago Oñatin. Gure asmoa bailarako herritarrei beste ekintza desberdin bat eskaintzea da", aditzera eman du Arantzazu Ibarrondok, Udal Liburutegiko arduradunak.

Idazteko zaletasuna dutenei behar duten motibazioa, bultzada, formakuntza eta informazioa eskaintzea da idazketa lantegiaren asmoa. "Batzuek idazteko eskua izango dute eta beste batzuek, ez. Bertan, baliabide eta tresna batzuk ikasiko dira idatzitahi ahal izateko", azaldu du Ibarrondok.

Irakurketa lantegia ez da izango ekimen isolatua, urteroko bokazioa izango duen egitasmo

bat sortzea baita helburua. "Proposamen handiago baten hasiera da, ez da zerbait puntuala izango", esan du Ibarrondok.

Hain zuzen, 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena Udal Liburutegian, martxo amaiera arte. "Aurreikuspenak oso ondo bete dira eta oso pozik gaude jasotako erantzunekin, baina epea, oraingo, zabalik dago, martxora arte, taldearekin bat egin nahi duenarentzat", adierazi du Ibarrondok.

Joxe Mari Iturralde, irakasle

Idazlea izateaz gain, irakaskuntza alorrean aritutakoa ere bada Joxe Mari Iturralde. Hain zuzen, Euskara eta Euskal Literatura katedraduna izan zen irakasle

**PROPOSAMEN
HANDIAGO BATEN
HASIERA DA, EZ DA
ZERBAIT PUNTUALA
IZANGO**

kuntza ertainetan. Genero desberdinak landu ditu bere idazle bizitzan, haur eta gazte literaturan trebatu den arren.

Azkeneko urteotan, gazteei zuzendutako idazketa lantegiak dinamizatu izan ditu. "Gauza bat idazle ona edo txarra izatea da, baina erakusten jakin behar da, eta, hain zuzen ere, uste dugu oso aukera ona dela bera izatea Oñatiko idazketa lantegiaren dinamizatzailea", azaldu du Ibarrondok.

Izen-emateekin "harrituta"

"Orain arte izena eman duten gehienak gizakumeak izan dira; ostera, irakurle taldeetan, gehien-go emakumeak izaten gara. Arreta eman digun datua izan da", argitu du Ibarrondok.

Deialdi irekia

Hala ere, ez da soilik herritarrei zuzendutako ekimena. "Bailarako jendea ere parte hartzera gonbidatu nahi dugu", gaineratu du Ibarrondok.



Biaín, Basoli, Bastarrika eta Cazenave epaimahaikideak. ILUNPETAN.

Argi Arantzazu deialdiak baditu aurtengo edizioko bi sarituak

Aurtengo deialdian jasotako 164 proposamenetatik, Elisa Gallego eta Antonio Guerra izan dira sarituak

Amaia Igartua. OÑATI

Epaimahaiak hamahiru nazionaletatik jasotako 164 proposamenen artean hausnartu, eta aho batez onartu du Argi Arantzazu 2019 deialdiaren saridunak *Maqueta de un paisaje* –Elisa Gallego– eta *Comportamiento para un Simulacro* –Antonio Guerra– izatea.

Epaimahaiak egoki ikusi du David Inclan, Arguiñe Escandon, Marcon Goymil eta Oihana Garitanori aipamen berezia egitea.

"Oso zaila izan da lan guztiak banan-banan aztertzea. Lan asko jaso ditugu eta kalitate zein izen handiko proposamenak zeuden tartean. Egun osoko lana izan zen aukeraketa prozesua", azaldu du Itziar Bastarrika epaimahai kideak eta Argi Festibalaren zuzendari artistikoak.

Aukeraturako bi lanek *Paisaia eta identitatea* gaiarekiko duten koherentzia, bi proposamenen

arteko elkarrizketa ahalmena eta Arantzazuko testuinguruan duten garapenerako gaitasuna baloratu dute aukeraketa prozesuan.

"Azkenean, Elisa Gallego eta Antonio Guerra aukeratu ditugu. Argazkilaritza kontzeptuetik doazen bi artista dira, baina beraien lana guztiz txertagarria da Arantzazun eta ziur gaude egonaldi artistikoan beraien artean sortuko dena jostagarria izango dela eta oso emaitza erakargarria sortuko dutela", adierazi du Bastarririkak.

Egonaldia eta erakusketa

Egonaldi artistikoa martxoaren 15etik 29ra izango da eta erakusketak apirilaren 12an zabalduko ditu atea, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Argi Festibala 2019 irauten duen bitartean bisitatu ahal izango da erakusketa.

Manez eta Kobreak taldea etzi, domekan, gaztelekuan

Domekan, otsailak 10, 12:30ean, Manez eta Kobreak talde berriak kontzertua eskainiko du Oñatiko gaztelekuan. Sarrera bost euro izango da.


Thierry Bizkari ezkututzen da Manez izen artistikoaren atzean. Musikan ibilbide luzeko artista da Bizkari; Bolbora, Hegalka eta Kalakan taldeetan ibili ostean, bere abestiak aurkeztu ditu Ko-

break metal tresnen taldearekin batera grabatutako azken diskoan. "Kalakan utzi ostean, artistikoki zerbait mantendu nahi nuen, ni abeslaria naiz eta gogoko dut; beraz, nire abestiak aurkezten hasi nintzen", adierazi du Bizkarik.

Gaztelekuan aurkeztuko duen diskoaren letrak artistaren adiskide zein familiakoek kontatutako pasarteetan oinarritzen dira. "Ipar Euskal Herriko barnealdeko giroa kontatzen da abestietan", azaldu du Bizkarik.



Markel Uriarte. ARITZ GORDO



Maialen Axpe. FOTORUNNERS.ES



Mikel Linazisoro. CLIMBING.COM

Linazisoro, Uriarte ala Axpe izango da onena?

DKS'18 Epaimahaiak aditzera eman duenez, hiru horiek dira datorren eguazteneko, otsailak 13, ekitaldian Kirolari Onenaren Saria jasotzeko finalistak. Taldeka, berriz, Ointxe Araski saskibaloikoak eta Arrasate Dragoikoak dira bi finalistak

Xabier Urzelai ARRASATE
Debagoieneko kirolari onena izateko nahikoa meritu egin dute Maialen Axpek (Arrasate, 1993), Markel Uriartek (Aretxabaleta, 1991) eta Mikel Linazisorok (Bergara, 2000). Eta ez euren bakarrik, baita epaimahaiako kideek esku artean izan dituzten gainontzeko kirolariek

ere. Hala ere, onenak aukeratzeko ardua izan dutenek hiru horiek nabarmendu dituzte –kirol teknikariek eta kazetariek osatutako sei laguneko taldeak osatu du epaimahaia–.

Hain zuzen, eguaztenez, otsailaren 13an, Amaia antzokian egingo duten ekitaldian hiru horietako batendako izango da

kirolari onenaren garaikurra, nahiz eta aitortza hirurek jasoko duten.

Hamalau sari, guztira

Kirolari onenaren saria, baina, hamalau sarietako bat baino ez da izango. Ikusteko dago Publikoaren Saria norendako izango den; hor, herritarrek *Goiena.eus*

Azkenaldiko joera irauli gura dutenen arteko derbia domekan

FUTBOLA Txakalaldian murgilduta dauden Aretxabaleta eta Mondra izango dira aurrez aurre Ibarren (16:30)

X.U. ARRASATE

Bietako inor ez dago etxafuegoak botatzeko, ez Aretxabaleta (21 puntu), eta ez Mondra (30 puntu). Sailkapenari begiratuta egia da egoera ezberdinetan daudela bi talde horiek, UDAko mutilek larri egoteko motibo gehiago dituzte –jaisiera postuak hiru puntura dituzte–, baina azken bost partiduetatik lau galduta –azkena 0-6 Tolosaren kontra–, arrasatearrek ere erreakzionatu beharra dute.

Aretxabaletak ez du horrenbeste gorabehera izan. Txarto



Aurreko derbi bateko irudia. GOIENA

hasi zuten liga, taldean aldaketa handiekin, eta kosta egin zitzairen lehenengo garaipena eskuratzea –zazpi jardunaldi behar izan zituzten–. Gero, irail amaieran hasita, urrian aurregirik onena erakutsi zuen UDAk, baina azken bi hilabeteotan okertu egin dira berriro gauzak. Mondrak gorabehera handiagoak izan ditu. Lehenengo hamalau jardunalditan bi partidu baino ez zituzten galdu, nahiz eta berdinketek asko zigortu zuten. Urte hasiera, baina, txarra egin dute eta aurrean egoteko aukerak galdu dituzte.

Bergarak Real Union hartuko du Mahoneroak ez daude aretxabaletarrak baino askoz hobeto (24 puntu) eta bihar kontrario zuzen Real Union (24) izango da aurkari Agorrosinen (16:00).

BOLEIBOLA Arizmendik klubeko zazpi taldeak aurkeztuko ditu gaur

2012-13 denboraldian egin zituen lehenengo urratsak boleibolaz Arizmendi Kirol Elkartean. "Heziketa Fisikoko orduetan boleibola praktikatzeko zuten ikasle talde bat kirol honetaz maitemindu zen. Urtebete entrenatzen pasa ostean, 2013-14 denboraldian debuta egin zuten, eta laugarren sailkatu ziren", adierazi dute klubetik. "Baina urte zailak ere bizi izan ditugu. 2015-2016 ikasturtean boleibol saila desagertzean egon zen. GOIENAn publikatutako erreportaje bati esker jendea deika hasi zen eta egoerari buelta eman genion. Pentsa, gaur egun zazpi talde ditugu, eta jendaurrean aurkeztu gura ditugu".

ARETO FUTBOLA Etxean jokatuko du UDAk Scorpioren kontra

Euskadiko Txapelketako 15. jardunaldian, Aretxabaleta UDA da etxean jokatuko duen ibarreko ordezkaria. Kategoriako talde indartsuenetako baten kontra jokatuko dute, Scorpio bigarren postuan dago-eta, 25 puntu batura (zapatua, 09:00, Ibarra).

Eskoriatzakoek Bastidan jokatuko dute zapatuan (17:00), eta lehia polita izango dute bi talde horiek, bi puntuko aldea baino ez dute-eta eskoriatzarrek. Mondraterendako ere interesgarria da partidu horretan gertatzen dena, Mondratek eta Bastidak puntu kopuru berbera dute eta. Arrasatekoek Basaurin jokatuko dute bihar (18:30), So-lareren kontra.

Taldeka, Ointxe Araski edo Dragoi

DKSko beste sarietako bat talde onenarena izango da, eta hor bi finalista egongo dira: kadete mailako Klub Espainiako Saskibaloitza Txapelketan brontzea eskuratu zuen Ointxe Araski eta Espainiako Aerobik Txapelketan taldeka irabazi zuen Dragoi gimnasia taldeko hirukoa.

Saskibaloitza taldeak sekulako txapelketa egin zuen maiatzean Huelvan. Estatuko talde indartsuenak izan zituzten aurrean, eta txapelketako azken fasean Celta eta Bartzelona mendean hartuta brontzearekin bueltatu ziren. Bestetik, Arrasate Dragoi gimnasia taldekoek urrea jantzi zuten Sorian egindako Espainiako Aerobik Txapelketan. Izaskun Garciak, Nahia Irazolak eta Noah Berrocalek osatu zuten hirukoa.

atarian botoa emateko hamar hautagaien artean aukeratzeko aukera izan dute azken asteotan. Eta gaur, egubakoitza, da botoa emateko azken eguna; horren harira, antolatzaileek aditzera eman dutenez, hamar lagun horietako batek boto kopuru totalaren %30a jaso du –2.000 boto pasa espero dituzte antolatzaileek–. "Boto horien nondik norakoak ikusita, herritarrek euren herriko kirolarien alde egin izan dute, normalean, eta polita izan da ikustea klub batzuek zelako kanpaina egin duten sare sozialetan euren gogoko hautagaiaren alde", adierazi dute antolatzaileek.

Herriek euren sarituak dituzte Gogoratu behar da, bestalde, herri bakoitzak herrikide bat sarituko duela, eta joan den astean eman zituzten izen horiek

aditzera. Hala, saritu horiek izango dira Dorletako Ama Txirrindularitza Taldea (Leintz Gatzaga saria), Inaki Uribetxebarria (Arrasate saria), Odilo Vazquez (Aretxabaleta saria), Alaitz Urkiola (Antzuola saria), Iratxe Alonso (Elgeta saria), Martin Perez (Eskoriatza saria), Oñatiko Espeleologia taldea (Oñati saria) eta Ione Ojanguren (Aramaio saria).

Hortaz, dena dago gertu otsailaren 13an Amaian egingo duten ekitaldirako (19:00). *Goiena.eus* atarian zuzenean jarraitu ahal izango da ekitaldia.

OTSAILAREN 13KO DKS EKITALDIA ZUZENEAN JARRAITU AHAL IZANGO DA 'GOIENA.EUS' ATARIAN

"Debut eguna ez dut berehalakoan ahaztuko"

FUTBOLA Aitor Fernandez Abarisketak joan den zapatuan egin zuen Lehenengo Mailan debuta. Arrasatekoak Numantziatik Levantereko bidea hartu zuen udan, eta Kopan txukun jardun eta gero ligan eman diote aukera. 0-0 egin zuten Getafen

Xabier Urzelai ARRASATE

Aitor Fernandez Abarisketari (Arrasate, 1991) inork ez dio inoiz ezer oparitu. Athleticceko harrobiak ematen duen *berotasunari* muzin egin behar izan zion gaztetan, Baskonian eta Athletic B taldeetan jokatu eta gero, eta Vila-realeko bigarren taldearen aldeko apustua egin zuen elitera bidean beste geldialdi bat egiteko -futbolak ematen dituen bueltak, handik etorri zaio aurtan Levantera joateko aukera-.

Vila-realen ez zituen lehenengo taldeko atekari aurkitu. Lehenengo taldearen deialdian egon zen, baina ez zuen debutik egin, eta lau urtez ibili zen Bigarren B Mailan jokatzeko, atezain moduan formatzen (2012-2016). Hala, Mediterraneo aldean egindako azken urteak -39 partidu jokatu zituen- ireki zizkion Bigarren A Mailako atekari.

Heldutasuna, Sorian

Heldutasuna Sorian iritsi zitzaion. Han konturatu zen oraindik ez zegoela Lehenengo Mailan jokatzeko gertu, pausoak banan-banan eman behar direla, alegia. Eta zera aitortu zion GOIENARI, konturatzen zela Vila-realen zegoenean oraindik gazteegia zela orduan horrenbeste amesten zuen salto emateko: "Ez zen nire momentua, ez nengoen prest".

Hain zuzen, bi urte egin zituen Numantzian, 2016tik 2018ra. Lehenengo, Marokoko atezain titular Munirren itzalean, baina hari postua kendu eta Arrasatekoa iaz kategoriako atezain nabarmenetakoa izan zen, taldeko erreferenteetako bat bilakatuta -jardunaldiko atezain onena izendatu zuten zenbaitean-. Eta, hala, urte batzuk lehenago Vila-realeko harrobian entrenatzaile izan zuen Paco Lopezek eman dio orain Levanteren Lehenengo Mailan debuta



Aitor Fernandez Abarisketa, debutaren osteko lehen elkarrizketan. LEVANTE UD

"ESAN NUEN LEVANTEK ELITERA IRISTEKO AUKERA EMANGO ZIDALA, ETA HALA IZAN DA"

egiteko aukera: "Levantera etorri nintzenean esan nuen talde honek elitean jokatzeko aukera eman behar zidala, eta, zorionez, halaxe izan da".

Levanteren apustua sendoa

Arrasatearrak udan hartu zuen Soria utzi eta Levantera joateko erabakia. Tartean, Realak Asier Garitano fitxatu zuen, eta Rulliren etorkizuna ez zegoen baxtereko garbi. Talde txuri-urdina arrasatearraren atzetik ibil zitekeela ere zabaldu zen, baina inork ez zuen pauso erabakigarri eman, eta Fernandezek garbi ikusi zuen: "Hasieratik niregatik apustu sendoa egin duen taldera etorri izan gura dut".

Erabaki horretan pisu handia izango zuen Paco Lopezek Arrasatekoa gertutik ezagutu izanak -2014an egon ziren elkarrekin-

"Nire gaineko erreferentzia onak eman zituen klubean eta zerkusia izan zuen nire fitxaketan. Behin taldera iritsita, lehengo izaten jarraitzeko eskatu zidan, eta gogor lan egiteko".

Kopako lan onak saria izan du

Orain artean ligan Oier Olazabalek defendatu du Levanteren atea, baina, duela 15 egun Sevillaren kontra 5-0 galdu eta gero, entrenatzaileak orain artean Kopan oso txapelketa txukuna egin duen Aitor Fernandezi eman dio aukera: "Debut eguna ez dut berehalakoan ahaztuko. Uste dut partidu ona egin genuela Getaferen kontra, kontrario gogorra da, jokatzeko aukera handirik ematen ez duena, eta atea hutsean mantenduta puntua ona da guretako (0-0), helburua lortzeko pauso bat gehiago eman dugulako".

Datozen bi partiduak etxetik kanpora jokatu ditu Levantek, eta aurreikustekoa da entrenatzaileak jarraikortasuna emango diola arrasatearrari; Alavesen eta Celtaren kontra jokatu dute: "Burua Gasteizen dugu jada. Kontrario gogorra da, baina garaipenaren bila goaz".

ASTE BURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA

Aretxabaleta-Mondra

Domeka. 16:30. Ibarra.

Bergara-Real Union

Zapatua. 16:00. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

Mondra-Idiazabal

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Getariako-Antzuola

Zapatua. 16:00. Orio.

Aloña Mendi-Ikasberri

Domeka. 16:30. Azkoaga.

Ilintxa-Aretxabaleta

Domeka. 16:30. Legazpia

LEHEN ERREGIONALA

Arizmendi-Aloña Men.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Elgoibar-Aloña Mendi

Domeka. 12:30. Mintxeta.

Ostadar-Aretxabaleta

Zapatua. 17:15. Lasarte.

Billabona-Mondra

Zapatua. 15:30. Arratzain

Ordizia-Bergara

Zapatua. 18:30. Altamira.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Soloarte-Mondrate

Zapatua. 18:15. Basauri.

Mahastiak-Eskoriatza

Zapatua. 17:00. Labasti.

Aretxabaleta-Scorpio

Zapatua. 09:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Legorreta-Eskoriatza

Gaur. 20:30. Legorreta.

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Lauburu

Zapatua. 16:30. M. Muñoz

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ereintza-Fagor Indust.

Zapatua. 17:30. Errenteria

Txikipolit-Ford Mugarri

Zapatua. 19:30. Zarautz.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Aloña Mendi-Irauli B.

Zapatua. 17:45. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce B.-Donibane

Zapatua. 16:00. Labegar.

SASKIBALOA

EBA

La Flecha-MU

Zapatua. 18:30. Valladolid.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Mekalki Aloña-Alde Za.

Domeka. 12:00. Donosti.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara Soralu.-Easo

Zapatua. 18:00. Labegarai.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Grupo EME

Gaur. 20:15. M. Muñoz.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Kanpan. ART-La Unica

Zapatua. 16:45. Mojategi.

ESKUBALOA Fagor Industrial eta Ford Mugarri, kanpora

Euskadiko Txapelketako bi ordezkariak kanpoan jokatu dute asteburuan. Ford Mugarri Arrasatek, gainera, erronka gogorra izango du aurrean, Zarauzko Txikipoli taldea bigarren postuan dago eta sailkapenean. Oñatiko taldearen kontrario Ereintza ez da horren talde gogorra, hamazazpi partidutatik hamaika galdu dituzte eta.

PILOTA Aretxabaletan, Bergaran, Oñatin eta Arrasaten partiduak

Bailarako pilotari federatuek hainbat norgehiagoka jokatu dituzte oraingo asteburuetan ibarreko pilotalekuan. Partidu guztiak gaur, egubakoitza, jokatuko dituzte. Oñatin 18:15ean hasita sei partidu izango dira; Aretxabaletan bi partidu jokatuko dituzte 19:00etan hasita, Bergaran hiru 19:30ean hasita eta Arrasaten hiru 20:00etan.

ERRUGBIA Kanpanzar ARTk La Unica hartuko du Mojategin

Astebeteko etenaldiaren ostean, Euskal Liga abian da berriro. Hala, bihar (16:45), Kanpanzar ARTko seniorrek La Unicaren kontra neurtuko dituzte indarrak Mojategin. Sailkapenaren erdialdean badaude ere, iruindarrek talde gogorra dute. Isasiren mutilak mailari eusteko borrokan beste aurrerapauso bat ematen ahaleginduko dira.

AUTOMOBILISMOA Saria jaso dute hainbat debagoindarrek

Euskadiko Automobilismo Federazioak banatutako sarietan, eskualdeko hainbat lagun daude: Unai Arregi eta Sergio Gil lur gaineko rallyetan, Aitor Zabaleta eserleku bakarretakotan, Aingeru Castro eta Alaitz Urkiola errepide rallyetan. Gorka Idigoras eta Monika Muñoz bi klasean. Eta Xabi Fernandez txapeldunorde mendi igoeretan.

lazkotik ikasita, ekitaldi berriekin dator Beratu

Martxoaren 27tik 31ra bitartean egingo dute musikaren askotariko aurpegiak eta ikuspegiak erakutsi gura duten bigarren jaialdia; jardunaldian eta tailerretan parte hartzeko izena eman behar da aurrez, 'Beratujaialdia@gmail.com' helbidera idatzita

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

"Itxura eta filosofia berarekin", baina berrikuntzak izango dira "musikaren alde hurbila" erakutsi gura duen bigarren Beratu jaialdian.

Beratu elkarteak sortu dute

Jaialdia egiteko proposamenarekin joan zitzaizen iaz herritar bat udal ordezkari; ideiarekin bat egin zuten, eta Beratu antolatatu zuten, herriko eragileekin elkarlanean. Aurten, baina, Udalak beharrean, Beratu elkarteak antolatu duela dio Kultura zinegotzi Nerea Zubiak: "Lantalde bat sortu zen, eta urtebetean osatzen eta sendotzen joan da, eta elkarteak eratu dute orain; ateak zabalik daude interesaren duenarentzako".

Jaialdiko ekitaldietan edo aurreko prestaketa lanetan lagundu gura dutenei, Beratujaialdia@gmail.com helbidera idazteko proposatu die Zubiak: "Lan ezberdinak egoten dira, egunean egin beharrekoak asko, eta aurretik, askotarikoak; bakoitzak ahal duenaren araberrako konpromisoak hartzen ditu".

Aterpean eta kalean

Iaz moduan, herriko azpiegiturak eta tokiak balioan jarri nahi dituzte; hori horrela, ekitaldiak



Ainara LeGardon musikariak kontzertua eta tailerra egingo du. RAFA RODRIGO

Eltzian, gaztelekuan, gaztetxean eta kalean izango direla dio elkarteak Mattin Agirrebengoak: "Eguraldiak baldintzatuta, ezin izan genuen iaz Lazarraga lorategian kontzertua egin, eta aurten Mohama Sazen kontzertua udaletxe ondoko lorategian egiteko apustua egin dugu. Horrez gainera, ahaleginetan ari gara beste ekitaldiaren bat ermitaren baten antolatzeke".

Kontzertuak eta gehiago

Andrea Lopetegik, Izotz Barriok eta Usua Garinek zuzendu duten

Lou. Dantzan jo ta ke, oinak lehertu nahian dokumentalarekin estreinatuko dute egitaraua. 80ko hamarkadako musikariaren egoera erakusten du; bereziki, taularen gainean zeuden emakumeei eta euskaraz abesteko hautua egin zutenei begiratuta.

KONTZERTUEZ GAIN, JARDUNALDIA, TAILERRAK, ZINEMA EMANALDIA ETA HITZALDIA DAUDE

Egileak zinema aretoan izango dira eta emanaldiaren ostean solasaldia egingo dute.

Hurrengo egunean, egubakoi-tzean, *Music Fem* hitzaldia izango da toki berean; finkatu gabe dute zein formatutan egingo duten, hizlari bakarrarekin edo gehiagorekin.

Jardunaldia eta tailerrak

Zapatuak du egitarau zabalena. Goizean, *Musika eta kazetaritzaren erronka aro digitalean* izeneko jardunaldia egingo dute Eltzia eraikinean. "Arloko profesionalak, musika eragileak zein interesa duen edonor etor daiteke. Iaz moduan, *word-cafe* formatuan egingo dugu. Parte hartzea doakoa da eta martxoaren 15a aurretik eman behar da izena. Dagoeneko hainbat agerrikaririk etorriko direla esan digute: *Entzun.com*, *Badok.info* eta *Zarata-Mondosonoro* elkarte-koek", azaldu du elkarte kide Arkaitz Villarrek.

Toki berean, baina musikari-erentzako bakarrik, Ainara LeGardonek autoekoizpen tailerra gidatuko du. "Herriko musikariek lehenetsuna dute. Hamabost lagunentzako tokia dago, eta doan da, baina alde aurretik eman behar da izena. Horrez gain, *Beratu Txiki* gunea ere izango da Eltzian, goizean, hurrek ere musikarekin goza dezaten".

Usopop jaia

Helburuetako bat izan dute, hasieratik, beste musika jaialdiekin harremanak sendotzea, eta, Villarren esanetan, horretan ari dira: "Domeka arratsaldean egingo dugun Usopop jaia da horren adibide bat; horrez gainera, harremanetan gaude Beasaingo Jazpana Fest-ekoekin eta Gernikako Lekuek jaialdikoekin".

Egitaraua

MARTXOAK 27, EGUAZTENA

- **Zinema emanaldia** Musikaren inguruko dokumentala Kultura etxeko zinema aretoan.

MARTXOAK 29, EGUBAKOITZA

- **Musik Fem hitzaldia.**
- **Ainara LeGardon musikariaren kontzertua** Antixena gaztetxean, doan.

MARTXOAK 30, ZAPATUA

- **Musika eta kazetaritzaren erronkak arlo digitalean jardunaldia** Profesionalendako eta interesa dutenentzako topaketa egingo dute Eltzia eraikinean.
- **Musika autoekoizpen tailerra** Ainara LeGardon musikariaren eskutik, Eltzian.
- **Beratu Txiki** Haurrentzako gunea, Eltzian.
- **Kontzertua** Juan Valls trio eta Madeleine, tokia zehazteko.
- **Musika jaialdia** Elena Setien, Vulk eta Atom Rhumba taldeak gaztelekuan gauean.

MARTXOAK 31, DOMEKA

- **Kontzertua** Mohama Saz. Lazarraga lorategian, eguerdian.
- **Usopop jaialdia** Orbel eta Unama taldeak; tokia eta ordua, zehazteko.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

AITOR ETXEBARRIA MUSIKARIA,
LEIRE PALACIOSEK ELKARRIZKETATUTA
OTSAILAREN 8AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN

XABIER MADARIAGA KAZETARIA,
MAITE GOÑIK ELKARRIZKETATUTA
OTSAILAREN 13AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Zugastiren kantu zahar eta berriak Seminarixoan

'Ur goiena, ur barrena...' birako kontzertua eskainiko du Beasaingo musikariak bihar, zapatua, Bergaran, 19:00etan; alboan hiru musikari lagun dituela, bere ibilbidearen erreposoa egingo du, diskotik diskora salto eginda eta askotariko estilokoak batuta

A. Aranburuzabala BERGARA

8 urterekin hasi zen kantuan eta gitarra jotzen, eta 15 urte zituela harparen doinuarekin liluratu zen; harrezkero, hori da, bereziki, Olatz Zugastiren (Hernani, 1965) musika tresna kuttuna.

Eskarmentua du musikagintzan, oso gaztetatik ari da Benito Lertxundiren taldean, eta, paraleloan, bere kantuak sortu eta bost disko argitaratu ditu: *Kantu baten bila nabil* (1991); *Bulun Bulunka* (1999); *Elearen lainoa* (2002); *Gau hotzengan ere* (2010), eta *Ur goiena, ur barrena* (2015). Kantu horiek, baina, gutxitan abestu ditu zuzenean, ez du kontzertu askorik eskaini, baina, garai baten zituen "bel-durrak gaintututa", gogotsu ari da orain, taularen gainean.

Bihar, zapatua, Bergarako Seminarixoan izango da, 19:00etan. Sarrerak zortzi eurotan eros daitezke, leihatilan edo Ticket.kutxabank.es atarian.



Olatz Zugasti musikaria. JUAN TATORRI

Laukote formatuan

Ezaugarri duen harpez gainera, gitarra ere eskuetan duela abestuko du Zugastik, eta alboan izango du alaba Gratzina Lertxundi teklatuarekin eta flautarekin, hastapenetatik bidelagun

izan duen Ander Ederra, Julen Barandiaran baxu-jolea eta Uriol Flores baterian. "Ur goiena, ur barrena..." lana abiapuntu hartuta hasiko dugu emanaldia, baina aurreko lanetako abestiei ere tokia egingo diegu. Kantuak sortu eta diskoetan bildu nituen, baina apenas kantatu izan ditut publikoaren aurrean; hortaz, kantu zahar horiei moldaketa berri batzuk egin dizkiet, nire kantatzeko modua aldatu egin delako urteak pasatu ahala. Gustura nago kantu horiek birjaiotzen ari direla ikusita", azaldu du Zugastik.

Oinarri zelta dute kantuek, harpak ukitu hori ematen diela dio Zugastik. Hitzegi begiratuta, berriz, askotarikoak dira: euskal kantu tradizionalak berreskuratu izan ditu, esaterako, eta gaur egungo gizartearen ikuspegi pertsonala erakusten du sortu dituen azkenekoetan. "Zuzenekoetan aldatu egiten dira kantuak, halaxe dio publikoak".

'El secreto de Gibola' liburua, Circulo Rojo sariketan aukeratu

Roquetas de Marren (Almerian) egingo du argitaletxeak gaur, egubakoitza, iluntzean sari-banaketa ekitaldia

A. A. ARRASATE

Oso irakurzalea izan da beti Ane Odriozola (Legazpi, 1979), eta, ogibidez Arrasateko Udaleko langile bada ere, idazle moduan lehen urratsa egin du *El secreto de Gibola* misteriozko eleberrira-ekin.

Abenduan argitaratu zuen Circulo Rojo argitaletxearekin, eta sekulako arrakasta izan du, hamabost egunean 500 ale saldu zituen, eta dagoeneko hirugarren edizioa kaleratu du. Irakurleen feedback onaz gainera, argitaletxeak ere goraiatu du Odriozola, Arrasate Irratian. A. A.



Odriozola, Arrasate Irratian. A. A.

zolarek lana, eta urtero banatzen dituzten sarietarako misteriozko sailean hautagai da gaur, egubakoitza, Roquetas del Marren (Almeria) egingo duten galan: "2.000 liburu argitaratu zituen 2018an Circulo Rojo argitaletxeak, eta, kategoria ezberdinetan banatuta, bakoitzeko hiruna lan aukeratu dituzte. Misteriozko kategorian 400 liburu argitaratu zituzten, eta, horietatik, nireaz gainera, Madrilgo bi idazlerenak aukeratu dituzte. Irakurri ditut liburu horiek, eta bat, bereziki, asko gustatu zait. Zaila da, hortaz, saria lortzea; hala ere, oso pozik nago orain arte lortutakoarekin. Senarrarekin joango naiz galara, eta Arrasateko diseinatzaile Amaia Albesez utzi didan soineko ederra eramango dut soinean".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko otsaileko sariak!



Telebista
LG 32LJ50 80CM/32
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Kalakan 'elementuak II'
Kalakan taldearen diskoa
Parte hartzeko sariaren izena: Kalakan

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz
ARRIKRUTZ

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harrostandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Inbentarioan LFP 15/1999 legearen arabera, puzten dugu, baina, ez dugu eraberritzen. Irabazlearen izena, izenburua, izenburuaren zati bat, izenburuaren lehen letra, izenburuaren lehen letra eta izenburuaren lehen letra izan daitezke. Irabazlearen izena, izenburuaren zati bat, izenburuaren lehen letra, izenburuaren lehen letra eta izenburuaren lehen letra izan daitezke. Irabazlearen izena, izenburuaren zati bat, izenburuaren lehen letra, izenburuaren lehen letra eta izenburuaren lehen letra izan daitezke.

Irabazi bi lagunendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA "Jatetxea"
[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker
"Lur" haur antzerkiarako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amaia Antzokia | Otsailaren 16an | 17:00etan

Bergarako Udaleri esker
"Linbo planeta" antzerkiaren sarrerak ditugu.
Bergara | Seminarixoan | Otsailaren 16an | 18:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Lur / Linbo planeta" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Inbentarioan LFP 15/1999 legearen arabera, puzten dugu, baina, ez dugu eraberritzen. Irabazlearen izena, izenburua, izenburuaren zati bat, izenburuaren lehen letra, izenburuaren lehen letra eta izenburuaren lehen letra izan daitezke. Irabazlearen izena, izenburuaren zati bat, izenburuaren lehen letra, izenburuaren lehen letra eta izenburuaren lehen letra izan daitezke.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Egin zaituzte Goiena Klubeko barkide! Urte osoa, 56 € bakarrik!
Eta barkideen artean, astero zozketak, deskontuak...
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

URTEURRENA

+

Isabel Aramburu Altube

Martin Cortabariaren alarguna

2018ko otsailaren 11n hil zen, 86 urte zituela.



Ama eta amama zoragarria izan zara. Beti irribarretsu, beti laguntzen, beti gurekin. Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Aldez aurretik mila esker.
Bergaran, 2019ko otsailaren 8an.

URTEURRENA



Francisco Viteri Azurmendi

'Pako'

2018ko otsailaren 5ean hil zen, 85 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 10ean, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Ez agurrik, ez adiorik gero arte bakarrik.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan (Marin), 2019ko otsailaren 8an.

URTEURRENA

Tomas Beitia Arejolaleiba

2018ko otsailaren 11n hil zen, 84 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 10ean, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Gogoan zaitugu.


Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan (Marin), 2019ko otsailaren 8an.

ESKER ONA

+

Felix Ayastuy Galdos

2019ko urtarrilaren 28an hil zen, 86 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskerrik asko, aita, emandako eta erakutsitako danagatik. Zure emazte eta semeek ez zaitugu inoiz ahaztuko. Bihotzean betirako.

Arrasaten, 2019ko otsailaren 8an.

ESKER ONA

Roberto Urzelai Martinez de Iturrate

2019ko urtarrilaren 23an hil zen, 55 urte zituela.



Egun gogor hauetan zuen babesa eta maitasuna erakutsi diguzuen guztioi, mila esker Robertoren familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan, otsailaren 9an, 19:30ean, izango da Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2019ko otsailaren 8an.

ESKER ONA

Satur Guridi Irazola

2019ko urtarrilaren 29an hil zen.



Laurogei eta zazpi urtetan zenbat lan, zenbat izerdi; familia bat osatu eta sustraiak errotzen segi. Goenkaletik trenbiden gora bizi poza zen ageri: Tabernak urrun, baratzen goza zure txoko "haize mendi". Zuk utzitako arrasto hori gurekin geratu bedi!

Eskerrik asko egun hauetan gure senar, aita, aitita, eta Bergarako Saturrekin akordatu zaretenoi eta gertukofoi babesa eta dolimina adierazi diguzuenoi. Besarkada handi bana guztioi!

Bergaran, 2019ko otsailaren 8an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

HILDAKOAK

Dolores Lezeta Letamendi. Oñatin, urtarrilaren 24an. 91 urte.

Felicidad Hernandez Cordero. Arrasaten, 24an. 97 urte.

Teofila Sanchez Mesonero. Aretxabaletan, 25ean. 88 urte.

Karmelo Mendarozketa Heriz. Arrasaten, 26an. 82 urte.

Jose Antonio Cantero Arrizabalaga. Bergaran, 26an. 62 urte.

Ricardo Suarez Santos. Bergaran, 28an. 75 urte.

Jose Mari Jausoro Agirre. Arrasaten, 28an. 75 urte.

Felix Ayastuy Galdos. Arrasaten, urtarrilaren 28an. 86 urte.

Arantxa Imaz Arrue. Arrasaten, urtarrilaren 28an. 72 urte.

Pablo Riviere Aranda. Arrasaten, urtarrilaren 29an. 50 urte.

Satur Guridi Irazola. Bergaran, urtarrilaren 29an.

Agustin Lizarralde Untzetabarrenetxea. Aretxabaletan, urtarrilaren 29an. 93 urte.

Isabel Martin Codon. Oñatin, urtarrilaren 30ean. 89 urte.

M. Arantzazu Asurabarrena Zubiarraín. Oñatin, 31n. 95 urte.

Mari Carmen Gaztelu Eguren. Bergaran, otsailaren 1ean. 90 urte.

Manuel Rivero Hernandez. Arrasaten, 1ean. 53 urte.

Gregoria Celia Celemin Saez. Arrasaten, 2an. 92 urte.

Francisco Garcia Raya. Arrasaten, otsailaren 2an. 65 urte.

Celia Perianes Calixto. Oñatin, otsailaren 3an. 83 urte.

Prudencia Ruiz Valera. Arrasaten, otsailaren 4an. 86 urte.

Maria Luisa Etxebarria Elorza. Aramaion, 5ean. 86 urte.

Oliva De la Torre Pomedá. Bergaran, 6an. 85 urte.

Saturnino Poza Peña. Bergaran, otsailaren 6an. 86 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarala Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publicitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



GUARDIAKO FARMAZIAK

<p>ARRASATE EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 8 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09</p> <p>Zapatua, 9 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30</p> <p>Domeka, 10 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15</p> <p>Astelehena, 11 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99</p> <p>Martitzena, 12 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26</p> <p>Eguaztena, 13 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39</p> <p>Eguena, 14 SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74</p> <p>BERGARA EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 8 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63</p> <p>Zapatua, 9 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p> <p>Domeka, 10 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p> <p>Astelehena, 11 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74</p> <p>Martitzena, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87</p> <p>Eguaztena, 13 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05</p> <p>Eguena, 14 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63</p> <p>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</p> <p>Egubakoitza, 8 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22</p> <p>Zapatua, 9 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22</p> <p>Domeka, 10 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22</p> <p>Astelehena, 11 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p> <p>Martitzena, 12 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p> <p>Eguaztena, 13 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28</p> <p>Eguena, 14 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28</p>	<p>ARRASATE GAUEZ EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>2018ko abenduaren 31ra arte:</p> <p>IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39</p> <p>BERGARA GAUEZ EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>2018 osoan:</p> <p>MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p> <p>Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:</p> <p>COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6

1. Ludoteka ibiltaria

Musakolan hasi zuen bira ibiltaria Arrasateko ludotekak. Txatxilipurdiko begiraleekin batera, boxeoa, sukaldaritza lanetan, bitxiak egiten, egurrezko piezekin eraikuntzak egiten eta billarrean jokatzeko ibili ziren gaztetxoak.

2. Go!azen-eko aktoreekin argazkiak egiten

Amaia, Zuri, Eli, Markel, Julen eta Ander egon ziren aurreko aste bukaeran Bergaran egindako emanaldietan. Kantuan eta dantzan ibili ostean, argazkiak atera zituzten zale gazteekin. *Selfie*-ak ere egin zituzten hainbatekin.

3. Arrasate Herri Eskolakoak Santa Ageda ospatzen

Bedoñabeko 4 eta 5 urteko ikasleak eta Erguingo 3. eta 4. mailetakoa herrian ibili ziren. Eguneko Zentroan eta Iturbide egoitzan, besteak beste. Musakolakoek Erguingoekin batera kantatu zuten auzoan.

4. Amaia Albesen jantzia, Goya sarietan

Arrasateko diseinatzaileak Amai Remirez jantzi zuen. Gris antrazita koloreko eta satinezko soinekoa neurrira egin zion Albesei, *Un día con vida* lanarekin animaziozko pelikula onenaren saria jaso zuen zuzendariari.

5. Athleticeko presidentea, Arrasaten

Aitor Elizegi eta klub zuri-gorriko zuzendaritzako beste hainbat kide Arrasaten egon ziren aurreko zapatuan, Anoetako derbiaren atarian. Imanol Etxeberria lagunarteko kideekin elkartu zen Buenuena jatetxean.

6. Urtebetetzea eta 55 urte ezkontuta

Emili Sancho eta Pablo Rodriguez bergarrek ospakizun hirukoitza dute gaur, otsailak 8: bien urtebetetzea eta ezkontu zireneko 55. urteurrena. "Segi horrela! Zorionak, familia guztiaren partetik! Bereziki, Yunerren eta Unairen partetik".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak


Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Jare Berezibar Epelde
Otsailaren 14an, 10 urte. Zorionak, Jare. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Musu handi bana, familiako guztien partetik.



ARETXABALETA
Nerea Olmedo eta Malen Gartziaetxabe
Otsailaren 12an, Nereak 37 urte eta otsailaren 14an, Malenek 7 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunian. Marrubizko laztan bana, etxeko danen partetik.




ARETXABALETA
Manex Arriaran Oianguren
Otsailaren 12an, 9 urte. Zorionak, maitia! Mila kilo zorion, etxeko guztien partetik! Ondo pasatu zure eguna.



ARETXABALETA
Haizea Azkarate Bilbao
Otsailaren 10ean, 5 urte. Zorionak, neska handi! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Primeran ospatukou! Besarkada handi bat eta patxo potolo pilua, danon partetik!



BERGARA
Bidane Larrañaga Iburguren
Otsailaren 9an, urtebete. Zorionak, Bidane, laztana! Zorionak, aibxeren, amaren eta etxeko danon partetik. Urtebete bat in dozun honetan, eskerrak emun guretzau, gure bizitzara ekarri dozun zoriontasunegatik. Asko guretzau, maitxia!



ANTZUOLA
Aitzol Gabilondo Olaortua
Otsailaren 8an, 2 urte. Zorionak, Aitzol! Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Pelloren partetik.



BERGARA
Jon Aranzabal Elkoroberezibar
Otsailaren 8an, Jonen lau urte. Zorionak! Patxo handi bat aitita eta amamen, osaba-izeben eta lehengusuen partetik



ARETXABALETA
Intza Eraña Larrea
Otsailaren 6an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Bost urte! Muxu handi-handi bat, danon partetik!



BERGARA
Jone eta Danel Murgiondo
Otsailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak familiaren eta, bereziki, Landerren partetik.



ARAMAIO
Ianire Lage Elorza
Otsailaren 6an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bat, amatxoren eta aitaxoren partetik!



ARETXABALETA
Jokin Jausoro Zubizarreta
Otsailaren 6an, 5 urte. Zorionak, Jokin! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat danon partetik.



ARETXABALETA
Iratz Berezibar Epelde
Otsailaren 5ean, 7 urte. Musu handi bat, familiako guztien partetik!



OÑATI
Ekain Lizarralde Martinez de Zuazo
Otsailaren 4an, 5 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, etxeko danon partetik! Muxu potolo bat!



OÑATI
Maialen Mendizabal Altzelai
Otsailaren 4an, 8 urte. Zorionak, maitia! Bakitzu... pila bat maite zaitugu! Etxeko guztien partetik mila kilo zorion eta muxu potolo bat.




ARRASATE
Iraia eta Joritz Isasi Rodrigo
Otsailaren 3an, Iraiak 10 urte eta otsailaren 9an, Joritzek 7. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik! Edarto pasatu eta musu handi bana.



ESKORIAITZA
Anje Gabilondo Uribe
Otsailaren 3an, 3 urte. Zorionak etxekoan partetik. Patxo handi bat!



ARRASATE
Izaro Zabalo del Fresno
Otsailaren 2an, 7 urte. Zorionak, Izaro! Ederto pasatu urtebetetze egunean! Muxu pila, familia danaren eta, batez ere, Anderren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Ibai Urkia Berezibar
Otsailaren 1ean, 7 urte. Zorionak, Ibai! Ondo-ondo pasatu eguna! Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Eki Palacin Aldea
Urtarrilaren 31n, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo asko danon partetik. Oso ondo pasatu eguna!



ARETXABALETA
Unax Zuazo Oianguren
Urtarrilaren 31n, 7 urte. Zorionak, Unaxto! Gure mutikoteak jada zazpi urte! Mila muxu familia osoaren eta, batez ere, Izarren, amatxoren eta aitaxoren partetik!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 8

OÑATI Odol ateratzea
Otsaileko deialdia egin dute.
Enpresagintzan, 17:00etan.

ARETXABALETA Maskarak egiteko saioa

Helena Azkarragaurizar eta Joana Manzidor artista arrasatearrek egingo dute tailerra, atzera utzitako materialak berrerabili.
Iralabarri plazan, 17:00etan.

ELGETA Kontalaritza tailerra

Maidar Galartzaren eskutik, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoendako.
Liburutegian, 17:00etan.

ANTZUOLA M8ko greba: batzarra

Irekia, herritar guztiendako.
Olaran etxean, 17:30ean.

ARRASATE 'Jokoa eta menpekotasuna gurean' hitzaldia

Gizartean eragiten dituzten kalteak aztertzeke solasaldia.
Gaztetxean, 18:30ean.

OÑATI Discipulos de Dionisos taldea

Porno-punk musikaz beteko dute taberna. Sarrerak, zortzi euro.
Pako tabernan, 22:00etan.

ZAPATUA 9

ARAMAIO Talde feministaren formakuntza saioa

Feminismoaren historia, oinarriko kontzeptuak eta iraultzarako estrategiak aztertuko dituzte, besteak beste.
Liburutegian, 10:00etan.

ELGETA Mendi Mendia Racing jaia

Auto erakusketa, bazkaria eta kontzertuak egongo dira.
Mendizaleen plazan, 11:00etan.

OÑATI Hotz Oñati: informazio mahaia

Elkartasun katiluak erosteko aukera ere egongo da.
Foruen plazan, 11:00etan.



THIERRY BIZKARI

OÑATI Manez eta Kobreak taldea

Thierry Bizkarik gidatutako taldearen emanaldia. Bere lagunak, auzokideak eta ezagunen bizipenak kantu bilakatu ditu, metal tresnaz osatutako taldearen laguntzarekin. Sarrerak, bost euro.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 12:30ean.

OÑATI Inauterietako entsegua

Martxoaren 3rako dantzak ikasteko entsegu eguna.
Eltzian, 12:00etan.

ESKORIATZA EH Bildu: alkategaiaren aurkezpena

Abenduaren 15ean hasitako prozesuari bukaera emateko, udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztuko dute.
Kultura etxean, 12:15ean.

ANTZUOLA San Blas jaia Basalde auzoan

Elizkizuna egingo dute eta ostein bedeinkapena.
San Blas ermitan, 12:00etan.

ELGETA Grafiti tailerra

Gaur, gaztelekuko erabiltzaileendako saioa egingo dute.
Gaztelekuan, 16:00etan.

ANTZUOLA Claudia Larrauriren erakusketa

Antzuolan bizi den artista mexikarraren lanak ikusgai.
Aitz Garbi tabernan, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Mihi-bero'

Sexualitatearen gaineko galdera-erantzun jolasa gaztekoendako.
Gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Olatz Zugastiren kontzertua

Hernaniko abeslari eta harpa jotzailearen emanaldia. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 19:00etan.

ARRASATE 'Üda batez' dantza emanaldia

Zuberoako herri dantzak eta sorkuntzakoak bateratzen dituen ikuskizuna, hango hogeitaz dantzari gazteren eskutik. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ELGETA Barne Guda, Demencial eta Brigade Loco taldeak

Mendi Mendia Racing jaiko kontzertua. Sarrerak, bost euro.
Espaloian, 21:30ean.

ARRASATE Herdoil, Streetwise eta Erasoka taldeak

Maravillas gaztearean aldeko jaialdia. Sarrera, borondatearen truke.
Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 10

BERGARA Domeka Azoka

Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko azoka.
San Martin plazan, 11:00etan.

ELGETA M8: batzarra

Emakumeen Nazioarteko Egunari forma ematen jarraitzeko, hirugarren batzarra.
Kultura etxean, 11:00etan.

ELGETA Grafiti tailerra

Gaurko saioa Lehen Hezkuntzako 5. mailatik gorakoendako zabalik egongo da. Ate irekiak egingo dituzte.
Gaztelekuan, 16:00etan.



BUFFALO

BERGARA Buffalo taldea

Zarauzko taldeak kontzertua egingo du. Hirukote instrumentala da Ander Ederrak, Joanes Ederrak eta David Gorospek osatzen dutena. Esperimentazioan oinarritzen dute euren musika. Sarrerak, zortzi euro.
Gaur, egubakoitza, Seminarixoan, 22:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako ekintzak.
Okendoko ludotekan, 17:00etan.

ESKORIATZA Santa Ageda: dantzak

2001ean jaiotako dantzaldia.
Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

ASTELEHENA 11

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Odol ateratzea

Arabako odol emaileen elkarte.
Durana kalean, 16:45ean.

OÑATI 'Gaua, gauekoentzat' erakusketa

Natur Eskolaren eskutik, 2019ko Ingurumen Jardunaldien baitan. Gaurtik hilaren 27ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Argazkilaritzako hastapen ikastaroa

Ilunpetan argazki taldekoekin, astelehenero, apirilaren 1era arte.
Eltzian, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Nafarroa euskal estatua. Baina... zer dela eta?' hitzaldia

Martin Ttipia elkartearekin egingo dute berba.
Liburutegian, 19:00etan.

BERGARA M8: batzarra

Emakumeen Nazioarteko Egunari forma ematen jarraitzeko, batzar irekia.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE 'Nacionalismo Nacionalismos' liburuaren aurkezpena

Jose Antonio Villarrek idatzitako liburua. Egilea bera egongo da aurkezpen ekitaldian.
Kulturaten, 19:00etan.

MARTITZENA 12

ANTZUOLA Erorketak prebenitzeko tailerra egingo da

64 urtetik gorako adinekoen artean, erorikoak dira lesio eragile nagusiak.
Olaranen, 16:00etan.

ESKORIATZA Txotxongiloak egiteko tailerra

Materiala ludotekak ipiniko du. Norberak galtzerdi zahar bat eraman beharko du etxetik.
Ludotekan, 17:00etan.

OÑATI M8: batzarra

Emakumeen Nazioarteko Egunari forma ematen jarraitzeko batzarra.
Eltzian, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Elikadurari buruz egunero entzuten diren mitoak eta gezurrak' hitzaldia

Bittor Rodriguez dietista-nutrizionistak egingo du berba.
Zaldibarren, 19:00etan.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Bilakaera

Banuen beharra goiko argazkia aldatzeko. Aurrekoak urte dezente zuen eta noizean behin eguneratzea ondo dago norbera arraro ez sentitzeko. Kasu honetan, gainera, bada denboratxo bat bizarra dudala. Are gehiago, nolabait, batetik bestera egin du ileak: burua utzi du -nire baimenik gabe- eta aurpegira joan da.

Aspalditik datorren buru uzte horrek buruhauste handirik ez dit ekarri; gaurdaino, behintzat. Arrazoia da, uste dut, lerro hauen amaieran aipatzen dudana. Aurretik, hala ere, galera prozesuaren beste momentu bat azalduko dut.

Gogoratzen dut, kanpoan ikasten nengoela, bizi nintzen pisuko ispilura begiratu eta lehen aldiz ikusi nuena: aurrean nuen pertsonaren buruaren kurbadura.

Etxebizitza hartako argiatatik izango zen, agian, baina inoiz ikusi gabeko zerbait izan zen hura. Pentsatzen dut espaziora doazen astronautek antzerako zirrara sentituko dutela gora egin ahala Lurreko kurbaduraz ohartzen direnean...

Goazen, bada, pasarte nagusira. Hogeita hamar urte inguru dira lagun batek ondokoa esan zidala: "Zu, laster, burusoil!". Sekulako mesedea egin zidan. Ordutik, luzapen denboran nago.

BUKATZEKO



Debagoieneko AEK-ko kideak, bideoklipean. DEBAGOIENeko AEK

Debagoieneko AEKren 'Bideoklik' lehiaketa

Debagoieneko AEK-k abian jarri du 'Bideoklik' bideoklip lehiaketa. Hain zuzen ere, Korrikako 'Klik' abestiaren bideoklipak aurkeztu behar dira. Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 21a da eta saria lekukoa eramatea izango da

Amaia Igartua. DEBAGOIENA.

Bailaran egingo den bideoklip lehiaketa da *Bideoklik*, Debagoieneko AEK-k bultzatuta.

Lehiaketan edonork parte hartu dezake, taldeka. Ikus-entzuzkoaren gutxieneko iraupenak minutu batekoa izan behar du eta lanak aurkezteko epea martxoaren 21ean amaitzen da. Bideoak edo bideoaren estekak

bideoklik@gmail.com helbidera bidali behar dira, harremanetarako datuekin batera. Saria izango da Korrikak Debagoiengan duen ibilbidearen zati batean lekukoa eramatea.

"Korrika badatorrela kontuan izanik, *Bideoklik* lehiaketaren bitartez herritarren artean festa giroa piztea eta zabaltzea da gure helburu nagusia", adierazi

du Josu Zubiak, Korrika Debagoieneko koordinatzaileak.

Korrika Debagoiengan

"Herri guztietan sortu dira batzordeak, oso pozik gaude, batzordeetara jende asko etortzen ari delako, eta hori oso garrantzitsua da. Korrika igaroko ez den bi herrietan ere eratu dira batzordeak eta motibazio han-

diarekin ari dira lanean", gaineratu du Zubiak.

Batzordeak hasiak dira degoeneko Korrika egitarauak osatzen. "Giroa ziurtatuta dago, Korrika igaroko den egunean bertan eta baita aurreko eguntan ere. Herri guztietan ekintza desberdinak egingo dira".

Korrika Kulturala

Korrikaren bitartez sortzaileen lana plazaratzeko eta Korrikaren mezua zabaltzeko egitasmoa da. "Debagoiengan ere lanean ari gara, Korrika Kulturalaren berri emango dugu laster, baina oraindik antolakuntza lanetan murgilduta gaude", argitu du.

Txillardegiri omenaldia

Aurtengo Korrikan, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg* omenduko dute, hizkuntzalari, idazle eta politikari donostiarra. "Aprobetxatuz aurten euskara batuaren 50. urteurrena dela eta Txillardegik horri egindako ekarpena kontuan izanik, egoki ikusi zen hura izatea omendua", azaldu du Zubiak.

Aurtengo Korrikaren edizioaren barruan, EHUK, Jakin-ek eta AEK-k elkarlanean egindako Txillardegiren bizitza oinarri duen dokumentalaren estreinaldia izango da. Omenaldia otsailaren 9an izango da, domeka, 19:00etan, Donostian, Musikenen.

Arropen salmenta

"Pixkanaka herri desberdinetan arropak saltzen hasiko gara batzordekideak", adierazi du Zubiak.

Debagoieneko lehenengo salmentagunea Bergarako izango da, otsailaren 14an, egunean, arratsaldean.

DKS SARI BANAKETA

GOIENA TELEBISTA, ZUZENEAN

OTSAILAREN 13AN, EGUAZTENEAN, 19:00ETAN

DEBAGOIENeko KIROL SARIEN GALA ZUZENEAN AMAIA ANTZOKITIK
XABIER URZELAIAK ETA AMAIA ZABALAK AURKEZTUTAKO EKITALDIA

ANTOLATZAILEAK:

DEBAGOIENeko BEDERATZI UDALAK ETA GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

BABESLEAK:

EKIDE GROUP, GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA,
AXA SEGUROS GENERALES, TXAPIME AUTOAK,
CHAPIME TAILERRAK, OBRA SOCIAL LA CAIXA

goiena
Zu hemen zaude.

